Designing periodic and aperiodic structures for nanophotonic devices

Imanol Andonegui Artegui

Supervisors:
Prof. Angel J. Garcia-Adeva
Prof. Estibaliz Apiñaniz

Department of Applied Physics I

University of the Basque Country

This dissertation is submitted for the degree of

Doctor of Philosophy

April 2019

I would like to dedicate this thesis to my loving parents and to Itzi.

Declaration

I hereby declare that except where specific reference is made to the work of others, the contents of this dissertation are original and have not been submitted in whole or in part for consideration for any other degree or qualification in this, or any other University. This dissertation is the result of my own work and includes nothing which is the outcome of work done in collaboration, except where specifically indicated in the text.

Imanol Andonegui Artegui
April 2019

Acknowledgements

This thesis would have been impossible without the contribution of many colleagues and friends. First of all, I would like to acknowledge my advisors, Prof. Angel J. Garcia-Adeva and Prof. Estibaliz Apiñaniz Fernandez de Larrinoa. When I decided to start my PhD at the department of applied physics I met Angel for the first time. In our first meeting, his great energy and enthusiasm to do exciting research impacted me. I feel fortunate to be his first student and going working with him has been the most valuable experience that I gained in my PhD. I had access to Angel and Esti whenever I needed to discuss my problems, and their insights led to the success of my PhD work. I also want to thank all of my friends in the physics group: Adrian (" a PhD candidate never gets out of the lab until dusk" :)), Naiara, Sara, Raquel, Macarena and Itziar for their help, company and the entertaining discussions that we had about everything in general.

Probably the most significant part of my thesis has taken place in CUDOS laboratories at the University of Sydney. When I look back and recall memories of that time I promise myself that someday I will go back to this place where I had so many good times. That is why I would like to acknowledge Prof. Benjamin Eggleton, director of CUDOS who gave me the opportunity to form part of this excellent research group. Besides, I would like to express my sincere gratitude to my tutor in CUDOS, Prof. Andrea Blanco, for the continuous support of my Ph.D study and research, for her patience, motivation, enthusiasm, for the many good times we had. Very special thanks to my friends Alberto, Darren, Birgit, Alessio and Neetesh among many others. They made me feel at home from the very first day. Sincerely, thanks for all those times full of laughs and good times, not to forget that we established the climbing and running days. I had the privilege to learn a lot of things from Alberto, from his scientific knowledge up to climbling! we had really good times and I hope we can meet again soon.

I must express my very profound gratitude to my parents and my family for providing me with unfailing support and continuous encouragement throughout my years of study and through the process of researching and writing this thesis. This accomplishment would not have been possible without them. Thank you.

Last but not least, I would like to thank my Itzi for her support, she has been always proud of my every little success. Finally, I am deeply grateful to her for the love, care and

all the sacrifice she made during the time it took to me to finish this thesis. Her thrust on my decisions and her belief that I will be successful whatever I do was the most powerful force that has pushed me forward in any difficulty that I faced in my research and to reach my goals.

Thanks to all of you who have made me the person I am today, there is a piece of you in this thesis.

Contents

List of Figures

List of Tables

Introduction

The unstoppable miniaturization of electronic components over the last decades brought us the idea of micro-electronics, where transistors feature just a few microns, but the size shrinking trend of those transistors together with the advent of transistor grid lengths of just a few nanometers rapidly unveiled the so called nano-electronic technology. Furthermore, according to the prediction of Moore's law, the length of these transistor grids should be reduced by a factor of two every 18 months. Noticeably there does not exist a Moore's law for nanophotonic or optoelectronic components, which limit is usually naively imagined as featuring the size of wavelength. All in all, the incoming all optical networks and nanotechnology demand for a new scale of integration capable of dealing with light in a natural way. Current fiber networks require an electronic switching in order to commute the information that travels along optical links. In the absence of these components, the optical speed shrinks to electronic speeds of a few gigabytes per second. Therefore, in order to keep optical speeds and bandwidths in future telecommunication networks, it is mandatory to avoid electronic conversion of signals throughout the transmission path. Besides, all–optical networks will require to substitute the present electronic integrated circuitry by optical analogous devices that satisfy the compactness, throughput, latency and high transmission efficiency requirements in nanometer scale dimensions, outperforming the functionality of current networks. Moreover, future optical devices must be fabricated in a material system that is compatible with the existing integrated electronic manufacturing infrastructure. On the one hand, dielectric materials have resulted in successful architectures where a high bandwidth requirements can be satisfied even for long haul optical interconnections. However, far beyond the macroscopic optical device engineering, chip-level optical systems magnitude shrinks rapidly with every new integration of chip-manufacturing technology. Thereby, existing dielectric materials do not confine light in a sufficiently small scale and so the physical size of these links and devices becomes unacceptable. In fact, if the optical chip does not exist in the liking of the electronic chip, photonic crystals have recently led to great hopes for a large-scale integration of optoelectronic components. Accordingly, the first chapter of this thesis is devoted to introduce the reader into the exciting research

field of photonic crystals. To start with, we present these materials by considering the analogies between the study of electrons and photons in periodic media, followed by a short summary comprising some of the most meaningful milestones regarding to this research field. Subsequently, we detail the essential geometrical considerations corresponding to the two-dimensional lattices. Indeed, two-dimensional photonic crystals, and in particular two-dimensional photonic crystal slabs obtained through periodic structuring of a planar optical waveguide, feature many characteristics which bring them closer to electronic micro- and nanostructures. Moreover, when the overall periodicity of the lattice is suitably broken a new world of physical properties ranges for further controlling the flow of light within these complex materials. Though, exploring the light matter interaction within this complex inhomogeneous media requires to address a numerical method capable of successfully simulating the electromagnetic wave propagation subject to these boundary conditions of these materials. Chapter 2 is dedicated to grasp the theoretical background regarding to the set of computational methods that are used throughout this thesis to obtain novel photonic crystal structures. Calculating the unique physical properties resulting from the interaction between light and a complex media is often a tedious task unless one resorts to a rigorous analitical simulation tool to carry out numerical simulations. Among the vast set of tools that have been developed so far to deal with these complex media, we found that there are at least three computational tools that yield to excellent and reliable predictions of the propagation of light in PCs, namely the finite element method (FEM), the plane wave expansion method (PWEM) and the finite difference time domain (FDTD) method.

Subsequently, Chapter 3, is devoted to make a critical assessment of the finite element (FE) method for studying two-dimensional dielectric photonic crystals. Photonic band structures, transmission coefficients, and quality factors of various two-dimensional, periodic and aperiodic, dielectric photonic crystals are calculated by using the FE (real-space) method and the plane wave expansion or the finite difference time domain (FDTD) methods and a comparison is established between those results. It is found that, contrarily to popular belief, the FE method (FEM) not only reproduces extremely well the results obtained with the standard plane wave method with regards to the eigenvalue analysis (photonic band structure and density of states calculations) but it also allows to study very easily the time-harmonic propagation of electromagnetic fields in finite clusters of arbitrary complexity and, thus, to calculate their transmission coefficients in a simple way. Moreover, the advantages of using this real space method in the context of point defect cluster quality factor calculations are also stressed by comparing the results obtained with this method with those obtained with the FDTD one. As a result of this study, FEM comes out as an stable, robust, rigorous,

and reliable tool to study light propagation and confinement in both periodic and aperiodic dielectric photonic crystals and clusters.

Introducing defects into otherwise perfectly arranged dielectric patterns has proven to be a very handy way to create desired optical components, such as waveguides, light bends or micro-resonators, just to cite some. Admittedly, reality is more difficult than it appears, and designing efficient optical components requires to go one step beyond intuitive approaches, and thus, through this thesis we pose the photonic crystal design process as a NP-complete problem. Therein, the inherent complexity requires to address to non-convex combinatory optimization techniques. The subject of combinatorial optimization, which is i.e. the basis of any heuristic algorithm, is a long term discipline that has been extensively applied in computer science and engineering, specially during the las 10 years. Research in this area aims at developing efficient techniques for finding minimum or maximum values of a function of many independent variables comprising a NP or NP-complete problem. In Chapter 4 we openly approach the field of heuristic algorithms and to do so, we addressed to three different heuristic methods, namely the Fast Simulated Annealing (FSA), the Improved Harmoy Search method (IHS) and the Non Sorting Genetic Algorithm II (NSGA-II).

The algorithms introduced in Chapter 4 will serve to steam the inverse design strategy used through this thesis, and to unveil new nanophotonic structures that are listed in Chapter 5. More specifically, in Chapter 5 we report on the inverse design (ID) of ultra-wide bandwidth novel passive devices based on photonic crystal (PC) technology for efficiently performing the essential functionalities required by any future photonic integrated circuit (PIC). We utilize the heuristic and genetic optimization methods described in the previous chapter as a inverse design engine for achieving promising PC systems that outperform previous topologies devised on intuitive grounds. Ee combine the effectiveness of two alternative and well-proven optimization methods that will guide the inverse design process according to a certain pre-established criteria, with the flexibility and robustness of the FEM. With this proceeding we demonstrate that both algorithms suit perfectly to PC devising. PC topologies proposed throughout this chapter are constrained in order to fulfil the limitations imposed by lithographic manufacturing techniques. Therefore, these designs are not only interesting from a theoretical point of view but also of great practical importance, since they can be readily manufactured.

Having explored the capabilities of disrupting photonic crystal structures, we focused on one of the most critical bottlenecks of integrated nanophotonic and electrooptic devices, i.e. the inherent low efficiency of light coupling-decoupling systems. Nowadays, light conduits made of SOI waveguides are extensively used to guide light at micrometer scale in planar silicon integrated circuits and are also the last frontier between the PIC and an optical fibre.

Chapter 6 deals with the prospect of obtaining high integration photonic circuits provided with more effcient light coupling grating structures on these waveguides. This chapter starts with a brief introduction to SOI waveguides. Two typical optical waveguides are presented-strip and rib waveguides. Then, this unit describes the challenge of coupling light in and out of silicon photonic slab waveguides hereof, we review different coupling approaches and explore the physics behind the grating couplers. After, we use an FDTD method steamed by the ID methodology to design non-trivial coupling devices optimized to minimize insertion losses between optical fibres and integrated waveguides.

The final chapter of this thesis, Chapter 7, explores periodic arrangements from a new perspective and reports on the first experimental evidence of topologically protected waveguiding in silicon. Furthermore, we propose and demonstrate that, in a system where topological and trivial defect modes coexist, we can probe them independently. Tuning the configuration of the interface, we observe the transition between a single topological defect and a compound trivial defect state. These results provide a new paradigm for topologically protected waveguiding in a complementary metal-oxide-semiconductor compatible platform and highlight the novel concept of isolating topological and trivial defect modes in the same system that can have important implications in topological physics.

Hitzaurrea

Azken hamarkadetan osagarri elektronikoak jasandako miniaturizazio-joerak gaur egungo mikro-elektronikaren teknologia eraldatu du. Honela, mikra gutxitako transistoreen tamainak are gehiago txikitu dira eta transistore sareak nanometro gutxiko neurrira murriztean, nano-elektronikaren teknologiaren iraultza sustatu dute. Horrez gain, Moore-n legearen arabera, transistore sare hauen tamaina-murrizpenaren joera honek jarraitu egingo luke 18 hilabetero. Hala era, Moore-n legea elektronikaren arloan formulatu zen eta oraindik ez dago honelako aurresanik nanofotonikan edo osagarri optoelektronikoetan aplikatu daitekeena. Hala era, ingurune hauetan, osagarrien tamainaren muga fisikoa, erabilitako uhin luzeraren neurrikoa dela esaten da. Beste alde batetik, etorkizuneko sare guztiz-optikoak eta nanoteknologian oinarritutako gailuek integrazioko atalase-maila berri bat behar dute, argiaren bitartez igorritako informazioa ohiko era batean maneiatzea posible izan dadin. Gaur egungo zuntz optikoko sareek oraindik kommutazio elektronikoa erabiltzen dute informazioa garraiatzeko bide optikoen artean.

Osagarri optiko hauek garatzen diren bitartean, zuntz-optikoen bitartez transmititutako informazioaren abiadura optikoa, elektroien abiadurara mugatuta dago, eta komunikazioaren banda-zabalera gigabyte-segundu gutxitara mugatzen da. Zentzu berean, beraz, etorkizuneko telekomunikazio-sareen abiadura eta banda-zabalera optikoak areagotzeko, seinaleen transmisioa eremu elektronikotik izaera optikora aldatzeak eragiten duen abiadura eta banda-zabalera murrizketa ahal den heinean ekidin behar da. Gainera, sare guztiz optikoak gaur egun erabiltzen dituzten zirkuitu elektroniko trinkoak nanometroen eskalan gailu optikoz ordezkatu beharko dituzte, trinkotasun, eraginkortasun, latentzia eta transmisio tasa eskakizunak betetzeko. Horrez gain, etorkizuneko gailu optikoak osagarri elektronikoak fabrikatzeko erabiltzen diren teknikekin sortu beharko dira. Alde batetik, material dielektrikoak arkitektura arrakastatsuak eskaini ditu; banda-zabalera handiko interkonexio-optikoak eskuragarri jarri ditu. Hala ere, gailu optiko makroskopiko hauetatik kanpo, txip-optikoen eskalak nabarmenki behera egiten du osagarri trinkoen fabrikazio-teknologiek ematen dituzten aurrerapauso bakoitzarekin. Integrazio-muga batetik aurrera, ordea, ohiko material dielektrikoak ez dute argia behar bezala konfinatzen hain eskala txikietan eta beraz, muga fisiko bat zeharkatu

beharko da nolabait. Izan ere, zirkuitu elektronikoen pareko txip-fotoniko hori bermatzen ez den artean, kristal fotonikoa integrazio opto-elektroniko bat ahalbidetu dezakeen teknologia izan daitekeela dirudi.

Horrenbestez, tesi honen lehen kapituluan zehar irakurleak kristal fotonikoen ikerketa-eremuko lehen urratsak aurkituko ditu. Material hauen berezitasunak aurkezteko, ingurune periodikoetan elektroien eta fotoien azterketaren antzekotasunak bereizten dira eta jarraian, ikerketa-eremu honetan jaso diren mugarri aipagarrienak deskribatzen dira. Geroago, bi-dimentsioko sareetan kontuan hartu beharreko hausnarketa geometrikoen xehetasunak eskaintzen dira. Izan ere, bi-dimentsioko kristal fotonikoak, eta, batez ere, bi-dimentsiotako kristal fotonikozko xaflak (2D PC *slab*), uhin-gida lau baten sare periodiko bat antolatuz sortutakoak, mikro eta nano uhin-gida bereziak sortzeko ezaugarri asko biltzen dituzte. Gainera, sarearen maiztasuna era egokian apurtzen denean, propietate berri ugari agertarazten dira. Maiztasun hori gordetzen ez dituzten material konplexu horiek, argiaren hedapena are gehiago kontrolatzeko ahalmena eskaintzen dute. Material inhomogeneo konplexu horietan argi-materiaren interakzioa aztertzeko, muga-baldintza berezien barruan hedatzen diren uhin elektromagnetikoak simulatzeko gai diren metodo numerikoak behar dira. Horregatik, 2. kapituluan, kristal fotonikozko egitura berriak lortzeko erabiliko diren metodo konputazionalen oinarri teorikoak biltzen dira. Ingurune konplexu baten eta argiaren arteko interakzioan ematen diren propietate fisiko bereziak kalkulatzeko eta simulazio numerikoak lortzeko metodo numeriko zehatzak erabiltzea beharrezkoa bait da. Material horien propietateen inguruko hausnarketa bat egiteko, gaur egun eskuragarri dauden metodo numerikoen artean, hiru tresna konputazional aukeratu ditugu, kristal fotonikoetan zehar argiak deskribatzen duen hedapena era zorrotz eta zehatz batean deskribatzeko gai direnak: elementu finituen metodoa (FEM), *plane wave expansion* metodoa (PWEM) eta denbora-domeinuko diferentzia finitoen metodoa (FDTD) erabili ditugu, hurrenez hurren. 3. kapituluan, bi-dimentsioko kristal fotonikoen ezaugarriak antzemateko, elementu finituen (FE) metodoak dituen gaitasunen azterketa kritiko bat egiten da. FE (espazio-errealean), *plane wave expansion* nahiz denbora-domeinuko diferentzia finitoen metodoak erabilita, banda fotonikoen egiturak, transmisio-koefizienteak eta kalitate-faktoreak kalkulatzen dira bi-dimentsioko hainbat egitura periodiko eta aperiodikoentzako. Horrez gain, metodo horiek eskaintzen dituzten emaitzen konparaketa bat egiten da.

Orain arte uste zenaren aurka, FE metodoak, horrelako egiturek dituzten ezaugarri bereziak era bizkorrean eta fidagarrian kalkulatu ditzake. Horretaz gain, FE metodoaren bitartez, konplexutasun arbitrarioa duten kluster finituetan eremu elektromagnetikoen denbora-harmonikoen hedapena aztertzea posiblea da eta beraz, transmisio koefizienteak eskuratu daitezke era erraz eta bizkor batean. Beste alde batetik, akats-puntu bat duten klusterren

kalitate-faktoreen kalkulua burutzeko espazio errealeko metodo bat erabiltzearen abantailak ere aipatzen dira. Horretarako FDTD teknikarekin lortutako emaitzekin konparaketa bat egin dugu. Ikerketa-emaitza horietatik, FE kristal fotoniko dielektrikoko kluster periodiko nahiz aperiodikoen argiaren lokalizazioa aztertzeko metodo egonkorra, sendoa, zorrotza eta fidagarria dela ondorioztatu dugu.

Sare periodikoetan akatsak sortuz, osagarri optiko berriak sortu daitezke, esaterako uhin-gidak, mikro-erresonadoreak eta kurbadura handiak dituzten uhin-gidak. Errealitatean ordea, era horretan osagarri optiko eraginkorrak sortzea eginkizun zaila da eta horrelako diseinuak sortzeko, intuizio soilaren bidez lortzen diren diseinuak baino askoz diseinu hobeagoak ahalbidetzen dituen metodo bat proposatzen da tesi honetan. Horretarako, kristal fotonikoen diseinu prozesua problema ez-polinomiko oso (NP-complete) bat bezala planteatzen da. Horrelako problemei dagokien konplexutasun mailak beharrezkoa egiten du optimizazio teknika ez-konbexu konbinatorioak erabiltzea. Optimizazio konbinatorioa, berez, edozein algoritmo heuristikoen oinarria, asko erabili da zientzia eta ingeniaritzako hainbat esparrutan, bereziki, azken hamarkada honetan. Esparru horretako ikerketak aldagai ugari dituzten NP edo NP-problemetan funtzio baten minimo nahiz maximo globalak era bizkor baten aurkitzean oinarritzen dira.

4. kapituluan mota horretako algoritmoetan murgiltzen gara eta bereziki hiru algoritmo aztertzen dira: *Fast Simulated Annealing* (FSA), *Improved Harmoy Search* metodoa (IHS) eta *Non Sorting Genetic Algorithm II* (NSGA-II) helburu-anitzetako algoritmo genetikoa. 4. kapituluan deskribatutako algoritmoak alderantzizko diseinua (ID) deritzogun metodologiaren bitartez nano-egitura fotoniko berriak aurkitzeko erabiliko dira. Bereziki, 5. kapituluan, ID metodologia erabiliz banda-zabalera handia duten kristal fotonikozko dispositibo pasibo berriak aurkezten dira. Hain zuzen ere, kapitulu horretan, zirkuitu integratu fotonikoetan behar-beharrezkoak diren funtzioak betetzeko gai diren egitura ugari diseinatu dira. Horretarako, ID metodoa aldez aurretik definitutako irizpide baten eta FE metodoaren fidagarritasunean eta malgutasunean oinarrituz eta bi optimizazio metodo alternatiboz baliatu gara. Gainera, bertan proposatutako topologiak litografia prozesu baten bidez fabrikatzea posible izan dadin, egituretan muga bereziak ezarri dira. Horren arabera, egitura horiek ez dira soilik esparru teorikoan aztertu daitezkeen ereduak, baizik eta izaera guztiz praktikoa izan dezaketenak, fabrikazio-prozesu batean gauzatu daitezkeelako. Kristal fotonikoen abantailak aztertu ostean, gailu opto-elektronikoak duten eragozpen handiena aztertu dugu: bi ingurune horien arteko argi-akoplamendu sistemen eraginkortasun eza.

Gaur egun, *silicon-on-insulator* (SOI) teknologian egindako uhin-gida optikoak erabiltzen dira, mikrometroko eskalan, siliziozko zirkuitu integratuetan zehar argia garraiatzeko, eta PIC eta zuntz-optiko baten arteko azken muga dira. 6. kapitulua zirkuitu fotonikoetan

argi-akoplamendu eraginkor bat lor dezaketen *grating* egitura berrietan ardazten da. Kapitulu honetan, hasteko, SOI uhin-gidak deskribatzen dira, *strip* eta *rib* uhin-gida motak bereiztuz. Geroago, SOI uhin-giden eta zuntz optikoen bitarteko akoplamendua lortzeko ezagutzen diren metodoak zehazten dira eta grating akopladoreak erabiltzen duten printzipio fisikoa azaltzen da. Azkenik, FDTD metodo ID metodologiarekin batera erabiltzen da akoplamendu eraginkorra sortu dezaketen grating sistema ez-tribialak diseinatzeko.

Tesi honen azkenengo kapituluak, 7. kapituluak, egitura periodikoak beste ikuspegi batetik aztertzen ditu eta bertan silizioan egindako topologikoki babestuta dagoen lehenengo gidapenaren frogapen esperimentala aurkezten da. Gainera, kapitulu honetan akats topologikoa eta akats tribiala aurkitzen diren sistema batean, bi akatsak bereiztu daitezkeela frogatu dugu. Horretaz gain, sistema horren konfigurazioa aldatuz gero, modu topologikoaren eta modu topologiko eta tribialaren arteko nahasketa lortzeko trantsizioa aurkitu dugu. Emaitza hauek gidaketa topologikoaren paradigma berria zabaltzen dute, alde batetik, *complementary metal-oxide-semiconductor* (CMOS) plataformarekin guztiz bateragarria bait da eta bestetik, modu topologikoak eta tribialak sistema berean isolatzea posiblea izateak fisika topologikoan inplikazio berriak izan ditzakelako.

Kapitulua 1

Band Gap Fotonikoa duten materialak eta Kristal Fotonikoak

Lehenengo kapitulu honetan, irakurleak kristal fotonikoaren ikerketa arloari buruzko oinarriak aurkituko ditu. Egitura periodikoen materialen ikerketak interes haundia sustatzen dutenez, gai honen inguruko argitalpen kopurua oso ugaria da eta beraz, kapitulu honetan soilik kristal fotonikoen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu. Kapitulu honetan, lehenengo eta behin, izaera periodikoa duten materialak zeharkatzen dituzten elektroien eta fotoien arteko analogiak deskribatzen dira. Gero, ikerketa hildo honen inguruan, horain arte emon diren aurrepauso garrantzitsuen kronologia aurkitzen da, eta azkenik, bi-dimentsioko sare periodikoen oinarrizko kontsiderazio geometrikoak azaltzen dira.

1.1 Band gap fotonikoa duten materialak eta kristal fotonikoak: Elektroien eta fotoien arteko analogia egitura periodikoetan

Solido kristalinoen barneko elektroien dinamika hausnartzeko, egoera solidoaren fisikaren edota fisika kuantikoaren oinarri teorikoetara jo beharra dago. Bereziki, material horietan zehar elektroien higidura deskribatzeko, eredu sinplifikatuak erabiltzen dira. Orokorrean, elektroien dinamika aztertzeko, periodikoki tartekatutako atomo-kate infinituetan murgilduta-ko elektroiak erabiltzen direnean, material horien modelo teoriko bat moldatzen da. Ohikoa den sinplifikazio hau onetziz, kate egituraren egoera-elektronikoaren konputazioa errez burutu daiteke, alegia, atomo-kate infinituen eredua potentzial periodikoak erabiliz adierazten bada. Sistema horren maiztasuna eta traslazio simetria, a sare-parametroaren bidez deskribatzen da.

Traslazio-simetria, Schrödingerren formularekin konbinatuz gero, solidoen ezaugarri fisiko bereizgarriak aztertu daitezke. Honelako simetria duten egituretan, egoera aproposak ematen badira, energia-tarte debekatuak zabaltzen dira, horietan, elektroien agerpena inhibituta edo debekatuta dago. Ezaugarri hau erakusten duten materialei *Electronic Band-Gap* (EBG) materialak deritzegu. Hain zuzen ere, hauxe da aleazio semi-eroaleen propietaterik bereizgarriena: energi-tarte debekatua edukitzea. Honen bitartez, ezinbestekoa den elektroien hedapenaren kontrola izan dezakegu GaAlAs, InGaAs ed InAlAs bezalako sintesietan. Berezitasun hau ez da soilik elektroien inguruan jasotzen, periodikoki antolatutako material dielektrikoek antzeko propietatea adierazten dute, baina kasu honetan fotoien energia-tarteetan agertzen dira *gap* hauek. Material hauetan, uhin ekuazioak aztertuz gero, elektroiek eta fotoiek osatzen duten sistemen arteko analogia ugari aurkitu daitezke. Hartu dezagun hasteko Schrödingerren ekuazioa. Schrödingerren ekuazioa, $V(\vec{r})$ potentzial putzu-kate periodiko baten barne dagoen elektroiarentzat honela adierazi daiteteke

$$\left[-\frac{h^2}{8\pi^2 m}\nabla^2 + V(\vec{r})\right]\Psi(\vec{r}) = E\Psi(\vec{r}). \tag{1.1}$$

Bertan, ∇^2, h, Ψ, m eta E, Laplace-ren operadorea, Planck-en konstantea, uhin funtzioa, partikularen masa efektiboa eta energia totala dira, hurrenez hurren [1, 2]. Irispide teoriko bera erabili daiteke, elektroien ordez fotoiak ordezkatuz, dielektriko ezberdinez tartekatutako sistema periodiko baten uhin harmonikoaren ekuazioa ebazteko. Izan ere, Schrödingerren ekuazioaren berformulazio honek EBG materialen guztiz parekoa den sistema optikoa agertarazten du. Horretarako, egitura hauek ez magnetikoak direla kontuan hartuz, eta Maxwell-en ekuazioetan aldaketa gutxi batzuk eginez, hurrengo autobalio-kuazioa lortzen da

$$\left[\nabla \times \frac{1}{\varepsilon(\vec{r})}\nabla \times\right]\vec{H}(\vec{r}) = \left(\frac{\omega}{c}\right)^2 \vec{H}(\vec{r}), \tag{1.2}$$

$\vec{H}(\vec{r})$ eremu magnetikoarentzat $\varepsilon(\vec{r})$ permitibitatea duen profil dielektriko periodikoa zeharkatzen duenean. Bereziki azpimarragarriak dira (1.1) ekuazioaren eta (1.2) ekuazioaren arteko berdintasunak. Bi ekuazio hauek egitura periodiko baten antolatutako material bat zeharkatzen duen uhin funtzio bat adierazten dute eta beraz, edozein kasuan ebazpenean Bloch uhinak agertuko dira. (1.1) ekuazioak, Ψ probabilitate-funtzioa kalkulatzen du $V(\vec{r}) = V(\vec{r}+\vec{a})$ formako potentzial periodikoetan, non a lehen aipatutako sare-parametroa da. (1.2) ekuazioa ordea, $\varepsilon(\vec{r}) = \varepsilon(\vec{r}+\vec{a})$ permitibitatea duen egitura dielektriko periodikoa aztertzeko erabili daiteke.

Funtzio periodiko hauek bigarren ordeneko espazio-diferentzial operadore bat dute barnean, Hamiltonianoa eta Maxwellen operadorea, hurrenez hurren. Gainera, bi operadore hauek azpiespazio Hermitikoak osatzen dituzte [3].

Ekuazio honen ebazpenetik kalkulatu daitezkeen autobalio errealak elektroiaren energia, E, eta uhin elektromagnetikoaren frekuentziaren karratua, ω^2, dira, hurrenez hurren. Bi kasuetan, hedatutako uhinen superposizio koherenteak, elektroi eta fotoien deuseztapena deskribatzen dituzten autobalioak jaso daitezke. Egitura periodiko bat zeharkatuko duen fotoiaren kasu partikularrean (demagun orduan egituraren sare-parametroa fotoiaren uhin-luzeeraren parekoa dela) material honen errefrakzio-indizea periodikoki antolatuta egon ezkero eta errefrakzio indize honen aldakuntza nabaria bada, orduan, Bragg baldintzaren inguruan hedapen ezaugarri bitxiak aurkeztuko ditu fotoi honek. Konkretuki, aurreko kasuan, elektroiarentzat potentzial putzu periodikoen ondorioz sortutako energia debekatuen tarteen pareko tarteak sortuaraziko ditu honek, baina, kasu honetan debekaturiko fotoien energia buruz hitz egingo genuke.

Badira ere bi diferentzia nagusi mekanika kuantikoaren eta elektromagnetismo klasikoaren formulazio hauen artean. Alde batetik, (1.2) ekuazioko eremu elektrikoaren ekuazioa ebazteko guztiz bektorialak diren ebazpenak lortu behar dira, aldiz, Schrödingerren ekuazioaren soluzioak eskalarrak dira [1]. Beste alde batetik, Maxwell-en ekuazioetan ez dago neurri-eskala karakteristikorik, aldagai guztiak modu berean eskalatzen bait dira ekuazio horretan, baina, Schrödingerren ekuazioan konstante-fisikoek, Planck-en konstanteak edota elektroiaren masak esaterako, ekuazioaren aldagaien eskala finkatzen dute [3].

1.2 Kristal Fotonikoak

Kristal fotonikoek interes handia sustatu dute azken hamarkadan, fotoien garraioa kontrolatzeko aukera eskeintzen duten materialak bait dira [4–7]. Definizioz, kristal fotonikoak bi material edo gehiagoz osaturiko egitura inhomogeneo periodikoak dira eta osagai hauen konstante dielektrikoen artean diferentzia nabaria izaten da. Bereziki, konstante dielektriko (ε) periodikoaren aldakuntza dimentsio bakar batean gertatzen bada, honelako egiturei 1D PC deritzogu. Era berean, 2D eta 3D kristal fotoniak definitu daitezke, ε-en adakuntza bi eta hiru dimentsioetan gertatzen den kasuetarako, hurrenez hurren. 1.1 irudian aurkezten dira bat, bi eta hiru dimentsioetan agertzen diren egitura dielektriko inhomogeneoen eredu batzuk. Egitura horietan, sare-parametroaren pareko uhin-luzeera duen uhin elektromagnetiko bat hedatzen denean, ezuzteko jokaerak agertzen dira. Hauetatik interesgarrienak band-gap fotoniko oso (CPBG) bat sortzeko aukera, sare periodikoan defektuen bidez argia lokalizatzea

[1] Azalpen honetan spin-a alde batera utzi dogu.

[8, 9], edota talde-abiadura baxuak sorturiko argi materia interakzioak sustatutako fenomeno ez-linealak gertatzea [10, 11] aipagarriak dira, beste askoren artean.



1.1. Irudia (a)1D, (b) 2D eta (c) 3D kristal fotoniko ezberdinen ereduak.

Fenomeno hauek potentzial teknologiko ugari izan ditzakete, esaterako, kristal fotonikoak ispilu hobeezinak garatzeko [12, 13], nahiz ioi aktiboen emisio espontaneoa kontrolatzeko [14–16] edota solitoiak garraiatzeko [11, 17].

Beste alde batetik, material hauek sustatzen duten argi materia interakzio gogorraz baliatuz kristal fotonikoetan ematen diren fenomeno ez-linealak aztertu daitezke, eta horiek aplikazio berrien hildoak zabaltzeko erabili daitezke. Esaterako, trinkoagoak diren kontsumo baxuko birsorgailuak sor daitezke [18, 19], sentsore eta biosentsore aurreratuak [20–22], eta zelula fotoboltaiko efizienteagoak garatu daitezke [23–25].

Zoritxarrez, gauza guzti hauek kontrapuntu bat dute: aipatutako aplikazio gehienetan, eta, batez ere, telekomunikazio maiztasunetan operatzen duten aplikazioetan, behar genukeen

kristal fotonikoen eskala-neurriak mikra baten azpikoak lirateke eta tamaina hain txikiko egiturak eraikitzeko prozesu konplexuak erabili behar dira. Are gehiago, ikuspuntu teknologiko batetik, honelako egitura periodikoak fabrikatzea askoz zailagoa bilakatzen da hiru dimentsioetako kristal fotonikoak planteatzen direnean. Ondorioz, kristal fotonikoen ikerketak bi dimentsioetako heteroegituetan jarri dira ikerketa ahalegin gehienak, batez ere, bi sustratoen artean inguratutako 2D kristal fotonikoez egindako hiru dimentsioetako egituretan, PC slab bezala ezagutzen direnak [26, 27]. Orain arte esandakoaren arabera, argudiatu daiteke beraz, kristal fotonikoen ikerketa ez dela soilik mundu akademikoaren inguruko ariketa batera mugatzen, baizik eta oinarrizko fisikan eta fisika aplikatuaneta teknologia berrien garapenean hildo garrantzitsu bat osatzen duen urratsa dela esan genezake.

1.2.1 Kristal Fotonikoen ikerketaren urratsak

Kristal fotonikoak ez dira hain material bitxiak. Guk egitura sintetikoen bidez argiaren hedapena manipulatzen hasi baino milloika urte lehenago, sistema biologikoek nanometroko eskalako egiturak erabiltzen zituzten efektu optiko liluragarriak sortzeko [28]. Zomorro espezie batzuen azalak sortutako iridiszentzia, pinpilinpauxen hegoen koloreak, nahiz opalo harribitxi erakargarriak daude periodikoki ordenatutako egiturez osatuak. Egitura konplexu hauek guztiak orden finko bat jarraitzen dute eta, orden horren barruan, batzuetan, defektu edo nolabaiteko kontrolpeko desordena ager daiteke, argiaren barreiadura sortzeko eta maiztasun zehatz batzuk deuseztekp.

Bereziki, animalia espezie batzuk sortutako urdin koloreak, 1.2 irudian agertzen diren modukoak, haien azaletan, periodikoki ordenatutako partikulen multzoak sortutako islapen elastikoan du jatorria, eta Tyndall islapenez ezagutzen da, edo Mie islapena, objektu horiek itxura esferikoa dutenean. Naturan sorturiko urdin kolorearen jatorriaren inguruan gehiago jakiteko irakurleak Simonis et al. -en idazkietan [29] aurkitu dezake deskribapen zehatza eta interesgarria. Oro har, naturak erakusten dituen egitura fotonikoen aniztasuna harrigarria da eta sarritan aplikazio berriak sortzeko erabiliak izan dira. Hortaz, kristal fotonikoak beti egon dira gure inguruan, era batean edo bestean, baina nahiz eta kristal fotonikoen ikerketa aspaldi hasi zen, gero eta ikerketa teoriko eta aplikatu gehiago egiten ari dira esparru honetan.

Gaur egun, kristal fotoniko terminoa argiaren hedapena kontrolatzeko eta argiaren eta materiaren interakzioa sustatzeko gai den edozein material periodiko inhomogeneo izendatzeko erabiltzen da. Gainera, aurreko definizioak ez ditu baztertzen periodizitatea nolabait etena dituzten materialak.

Beste alde batetik, kristal fotonikoen ikerketak, egoera solidoaren fisikatik oinordetzen ditu oinarri teoriko gehienak. Egoera solidoaren fisikan, dimentsio bakarreko potentzial hesi periodikoen katean higitzen den elektroiaren eredua, hots, Kronig-Penney eredua [31, 32],



1.2. Irudia (a) Mikroskopioz hartutako eta (b) mikroskopio elektronikoz lortutako *Cyphus Handoki* gurgurioaren azal urdinaren irudiak. Bertan, sare kristalinoak isladapen fenomeno berezia sortzen du [30]. (c) *Graphium sarpedon* -en pigmentazio karakteristikoa hegoetan dituen eskaten ordenamenduak sortzen du [29].

energia-gakoen agerpena azaltzeko erabiltzen da. Optika mailan analogoa den eredua, hau da, material dielektriko ezberdinen pilaketaz sortutako ispiluak, Bragg erreflektore, *multilayer* pila, nahiz 1D PC izenez ezagutzen dira (Fig.1.1.a-b).

Argiak Bragg erreflektorea jotzen duenean, partzialki islatzen da, konstante dielektrikoaren aldakuntza bat ematen den puntu bakoitzean eta material dielektriko ezberdinen arteko kokapena periodikoa bada, orduan, islatutako konponenteak era suntsikorrean interferitzen dute, aurreruntz propagatzen den argi-uhina deuseztatuz. Fenomeno hau Lord Rayleigh-ek aztertu zuen lehenengoz 1887an [33] eta gaur egungo ispilu dielektrikoen [34, 35], Frabry-Perot filtroen [36, 37], erreflekzioak ekiditzeko geruzen [38], *distributed feedback laser*-en [39] nahiz kabitate optikoen [40] oinarria da.

Bi eta hiru dimentsioko kristal fotonikoen bidez, bi-hiru dimentsioko band-gap fotonikoak sortzea, Lord Rayleigh-en ikerketa eta ehun urte geroago proposatu zuten S. John and E. Yablonovich-ek ia aldi berean argitaratutako ikerketetan [41, 42]. Bi dimentsioko kristal fotonikoak material dielektrikoz edo metal-dielektrikoz osaturiko *array* erregularrak dituzte egituraren bi norabideetan; aldiz, homogeneoak eta infinituak dira beste norabidean. Azkenik, hiru dimentsioko kristal fotonikoak, hiru dimentsiotan zabaltzen diren material dielektrikoz edo metal-dielektrikoz osaturiko tartekatze erregularrez sortzen dira. Azken egitura hau da band-gap osoa sortzeko aukera duen bakarra, hau da, uhin elektromagnetikoen hedapena hiru dimentsioetan eta noranahi inhibitzeko ahalmena duen egitura da.

Geroago, 90.hamarkadaren hasieran, ikerketa ahalmen gehienak band-gap osoak (CPB) lortzearen saiaketan ardaztu ziren [47, 48]. Horretarako kristal sare ezberdinen banda-egiturak aztertu ziran [49, 50] eta fotoien lokalizazioa eta gidaketa sortzeko gai diran egitura berriak identifikatu ziren. Kristal fotonikoen aurkikuntza teorikoekin batera, fabrikazio-prozesu berriak garatu ziren, nanometroko eskalako kristalak sortzeko. Honen inguruan,



1.3. Irudia (a) Materia eta argiaren arteko interakzioa sustatzen duen 1D kristal fotonikoko erresonadore eraztun batez osatutako biosensore optiko baten SEM (Scanning electron microscopy) irudia [20]. (b) p-motatako Si nano uhin-gidaz eginiko elektoluminiszentzia sortzeko gailua, n-motatako ZnO erabiliz dopatutako aluminiozko elektrodoz osaturikoa. Material hauen artean Si-ko zutabez osaturiko kristal fotoniko bat kokatu da [43]. (c) SEM bidez lortutako 3D-ko *woodpile* egituran antolatutako kristal fotonikoaren irudia, SU-8 polimeroan egindakoa [45]. (d) Bi dimentsioko kristal fotoniko baten sortuarazitako akats puntual baten bitartez egindako laserra. Egitura honetan putzu energetiko bat agertzen da fotoientzat, hari kuantiko baten egituran elektroientzat sortzen den parekoa dena [44]. (e) Kristal fotoniko hutsune bat kristal fotoniko uhin-gida batekin akoplatuta eta honen muturrean uhinak kanporantza gidatzen dituen egitura bat du 1D kristal fotoniko batez osaturikoa [46]

self-assembly metodoa[51] eta erresinen bi fotoien xurgapenaren bidezko laser-idazketa zuzenaren teknikak [52] garatu ziren kalitate haundiko kristal fotonikoak fabrikatzeko. Bi metodo horiek, etorkizun handiko metodoak dira 3D PC egiturak sortzeko eta beraz, CPB baten beharra duten aplikazioetarako dispositiboak sortzeko.

Beste alde batetik, kuasi-2D kristal fotonikoak edo slab kristal fotonikoak, harreta handia jaso dute ikerketa mailan, zirkuito fotonikoak eraikitzeko plataforma bikainak izateko potentziala bait dute. Egitura horietan, nahita sortutako *akatsak* erabiliz, zirkuito fotoniko integratuetarako dispositibo pasiboak (filtroak [53–55] esaterako) eta aktiboak (laserrak [39, 56, 57] esaterako), inplementatu daitezke egitura konplexuak sortzeko [58]. Ondorioz, kristal fotonikoen ikerketa-arloa oso dinamikoa dela esan genezake, bertan aurkikuntza eta aplikazio berriak asmatzen bait dira erregularki.

Gainera, material hauek beste hildo batzuetara jauzia eman dute, hauen artean biologian PC biosensoreen [21] erabileran dute aplikazio nabaria, horien sensitibitate karakteristikoagatik; edota, ingenieritza zibilaren arloko aplikazioetan [59, 60], beste hainbat arloetako aplikazio ereduen artean. Hala eta guztiz ere, orain arte aipatutako aplikazio teknologikoen artean, arrakastatsuena kristal fotonikoen zuntz optikoetan aukitzen da. Mota honetako zuntz optikoak *core* hutsa (airea) erabiliz argia gidatzeko gai dira, propagazio galerak bortizki murriztuz [61, 62]

1.2.2 Bi dimentsioko sare periodikoak

Orain arte ikusi dugun moduan, kristal fotonikoak espazioko norabideetan periodikoki errepikatzen diren patroiez osaturiko materialak baino ez dira. Kristal arruntetan errepikatzen den patroia atomo edo molekulaz osatzen da, kristal fotonikoetan ordea, errepikatzen den elementua konstante dielelektriko ezberdina duten bi material edo gehiagok osatzen dute. Band-gap-en sormena eta horien zabalera faktore batzuen menpe dago: sarearen barne simetria, kristal fotonikoaren simetriarekiko topologia partikularra eta material dielektrikoen arteko indizearen kontrastea, batik bat. Hortaz, oso garrantzitsua da sare periodikoaren berezitasun geometrikoak ulertzea kristal fotoniko bakoitzaren ezaugarri fotonikoak ulertzeko. Bestalde, ikuspegi praktiko batetik, sarearen ezaugarri geometrikoen ulermenak, simulazioen domeinua murriztea ahalbidetzen du, gelaxka-unitate bakarra erabiliz eta bigarren pauso baten, sare osoa berregin ahal izateko, sareko simetriaz baliatuz.

Hiru dimentsioko sareetako ezaugarri geometrikoak idazki ugarietan lantzen dira [1]. Baina bi dimentsioko sareen kontsiderazio geometrikoak lantzen dituzten testu liburuak aurkitzea ez da hain erreza izaten. Hau dela eta, atal honetan, bi dimentsioko kristalen propietate geometrikoak laburbilduko ditugu. Sare karratua, gelaxka-unitatea definitzen duten sare-bektoreak erabiliz deskribatzen da (begiratu 1.4.a irudia)

$$\vec{a}_1 = a\,\hat{i}, \tag{1.3}$$

$$\vec{a}_2 = a\,\hat{j}. \tag{1.4}$$

Sarritan, beste gelaxka-unitate bat erabiltzen da ere, Wigner-Seitz gelaxka-unitatea, hain zuzen ere. Gelaxka-unitate honek, sare beraren simetria partekatzen dute. Beste ere batera definituta, gelaxka hau sare-puntuetatik hurbilen dauden puntuek osatutako gelaxka da. Tesi honetan zehar gelaxka hau erabiliko dogu gelaxka-unitate bat izendatzen dogun bakoitzean. Sare karratuan, gelaxka-unitate hau, sarearen puntu arbitrario baten zentratutako karratu batez osatzen da eta karratuaren aldeak a (sare parametroa) luzeera izango du. gelaxka-unitate



1.4. Irudia (a) Sare-bektoreak (beltzez), sare-erreziprokoaren bektoreak (urdinez), lehenengo Brillouin gunea (karratu gorria), zatiezina den 1BZ (triangelu urdina), eta sare karratuaren simetriaren puntu bereziak (Γ, X, eta M). (b) Sare-bektoreak (beltzez), sare erreziprokoaren bektoreak (urdinez), lehenengo Brillouin gunea (karratu gorria), zatiezina den 1BZ (triangelu urdina), eta sare triangeluarraren simetriaren puntu bereziak (Γ, M, eta K).

honi lotutako sare erreziprokoa (uhin-bektore espazioan) honako bektoreak osatuta dago:

$$\vec{b}_1 = \frac{2\pi}{a}\hat{\imath}, \tag{1.5}$$

$$\vec{b}_2 = \frac{2\pi}{a}\hat{\jmath} \tag{1.6}$$

eta hauek ortogonalitate baldintzak betetzen dituzte:

$$\vec{a}_i \cdot \vec{b}_i = 2\pi, \qquad \vec{a}_i \cdot \vec{b}_j = 0. \tag{1.7}$$

Espazio erreziprokoaren gelaxka-unitatearentzat bestelako geometria aukeratu genezake, lehenengo Brillouin gunea hautatuz (1BZ). Azken hau, espazio erreziprokoan proiektatutako Wigner-Seitz gelaxka-unitatea da. Gelaxka-unitate hau 1.4.a irudian ikusi daiteke, $\frac{\pi}{a}$ alboko karratu gorriz mugatutako gunean. Banda-egituretako kalkuluetan erabiltzen diren simetria-puntu bereziak, simetria-operaketetan erabiltzen direnak, 1.4.a irudian azaltzen dira ere bai.

Simetria puntu hauek honela adierazi daitezke:

$$\Gamma \equiv \vec{0}, \tag{1.8}$$

$$X \equiv \frac{\vec{b}_1}{2}, \tag{1.9}$$

$$M \equiv \frac{\vec{b}_1}{2} + \frac{\vec{b}_2}{2}. \tag{1.10}$$

Hiru puntu hauekin mugatutako espazio erreziprokoaren zatiari 1BZ-ren espazio zatiezina deritzogu. Uhin-bektorearen menpe dagoen edozein aldagai edo kopuru, zatiezin guneko uhin-bektoreen arabera kalkulatu daiteke eta, geroago, espazio erreziproko guztian errepikatu daiteke, simetria-operaketen bidez. Izan ere, banda-egitura operaketetan, hau da, uhin-energian uhin-momentuarekiko kalkuluetan, orokorrean energia dispertzioa 1BZ-ren zatiezin gunearen parametroarekiko kalkulatzen da.

Sare triangularrari dagokionez, horrela adierazi daiteke (begiratu 1.4.b irudia)

$$\vec{a}_1 = \frac{\sqrt{3}}{2} a\hat{i} - \frac{a}{2}\hat{j}, \tag{1.11}$$

$$\vec{a}_2 = \frac{\sqrt{3}}{2} a\hat{i} + \frac{a}{2}\hat{j}. \tag{1.12}$$

Sare ereziprokoari dagozkion bektoreak honela osatu daitezke

$$\vec{b}_1 = \frac{2\pi}{a}\left(\frac{1}{\sqrt{3}}\hat{i} - \hat{j}\right), \tag{1.13}$$

$$\vec{b}_2 = \frac{2\pi}{a}\left(\frac{1}{\sqrt{3}}\hat{i} + \hat{j}\right). \tag{1.14}$$

berriro ere, bektore hauek ortogonalizazio baldintzak betetzen dituzte. Sare honen 1BZ, $\frac{\pi}{a}$-ko apotema duen hexagono bat da 1.4.b irudian, simetria puntu bereziekin batera, irudikatzen den modukoa. Simetria puntu hauen izenak eta posizioak hauek lirateke

$$\Gamma \equiv \vec{0}, \tag{1.15}$$

$$M \equiv \frac{\vec{b}_2}{2}, \tag{1.16}$$

$$K \equiv -\frac{\vec{b}_1}{3} + \frac{\vec{b}_2}{3}. \tag{1.17}$$

Egitura-bandetako kalkuluetan sarearen periodizitatea ziurtatzeko eta era berean simulazio esparrua gelaxka-unitate batera mugatzeko, Bloch-en teorema aplikatu behar da simulazioaren



$\vec{k}$	$f(\eta)$	$g(\eta)$
$\overline{\Gamma X}$	$e^{i\pi\eta}$	1
$\overline{XM}$	-1	$e^{i\pi\eta}$
$\overline{M\Gamma}$	$e^{i\pi(1-\eta)}$	$e^{i\pi(1-\eta)}$

1.5. Irudia Bloch-en teorema sare karratu baten Wigner-Seitz gelaxka-unitatean aplikatuta. Berdez: Wigner-Seitz gelaxka-unitatea. Gorriz: Lehenengo Brillouin gunea (espazio erreziprokoaren Wigner-Seitzgelaxka-unitatea). Urdinez: zatiezina den 1BZ-ren partearen mugak. $\phi(i)$ balioak $\phi(\vec{r})$ (E_z edo H_z) kopurua hartzen du gelaxka-unitatearen i. mugan.



$\vec{k}$	$f(\eta)$	$g(\eta)$	$h(\eta)$
$\overline{\Gamma M}$	$e^{i\pi\eta}$	1	$e^{i\pi\eta}$
$\overline{MK}$	$-e^{-i\frac{\pi}{3}\eta}$	$e^{-i\frac{2\pi}{3}\eta}$	$-e^{i\frac{\pi}{3}\eta}$
$\overline{K\Gamma}$	$e^{i\frac{2\pi}{3}(1-\eta)}$	$e^{-i\frac{2\pi}{3}(1-\eta)}$	$e^{i\frac{4\pi}{3}(1-\eta)}$

1.6. Irudia Bloch-en teorema sare triangeluar baten Wigner-Seitz gelaxka-unitatean aplikatuta. Berdez: Wigner-Seitz gelaxka-unitatea. Gorriz: Lehenengo Brillouin gunea (espazio erreziprokoaren Wigner-Seitz gelaxka-unitatea). Urdinez: zatiezina den 1BZ-ren partearen mugak. $\phi(i)$ balioak $\phi(\vec{r})$ (E_z edo H_z) kopurua hartzen du ugelaxka-unitatearen i garren mugan.

mugetan. Uhin-luzeera konkretu batentzat, muga-baldintza hauek uhin elektromagnetikoaren hedapen norabidearen araberakoak dira, hau da, espazio erreziprokoaren uhin-bektorearen norabidearen menpekoak dira. Muga badintza hauek, sare karratu eta triangularrarentzat, 1BZ-ren gune zatigaitzan 1.5 eta 1.6 irudietan azaltzen dira, hurrenez hurren.

Kapitulua 2

Metodo numerikoak nanofotonikan

Atal honek tesiak jorratzen dituen kristal fotonikoko egitura berriak sortzeko erabiliko ditugun metodo konputazionalen oinarriak ezartzen ditu. Argiaren eta materialen egitura konplexuen arteko interakzioan gauzatzen diren fenomeno fisiko bereziak kalkulatzeko, eta propiete hauen simulazioak era zorrotz batean egiteko, simulazio tresna analitikoen erabileraren beharra dago. Dagoeneko hainbat simulazio-teknika ezberdin garatu izan dira material konplexu hauetan egin beharreko simulazioak aurrera eramateko. Hauen artean hiru simulazio teknika ezberdin erabili izan ditugu, teknika hauek, kristal fotonikoetan zehar hedatzen diren argi uhinen ezaugarriak era fidagarrian aurreikusteko orduan emaitz apartak eskaintzeko gai dira. Hiru metodo numeriko hauek elementu finitoen metodoa (FEM), uhin planoen espantsio metodoa (PWEM) eta denboraren araberako diferentzia finituen metodoa (FDTD) dira, hurrenez hurren.

2.1 Egitura nanofotonikoen azterketa teorikoa

Ikuspuntu teoriko batetik silizioan oinarritutako fotonikaren ikerketaren inguruko ekarpen garrantzitsuenetako bat, material heterogeneoen barruan, Maxwellen ekuazioak formulatzen dituzten uhin elektromagnetikoen hedapena deskribatzeko metodo numerikoen garapena da. Metodo numeriko horiek, prozesu experimentaletan lortutako emaitzak eta bertako sistemen fenomenologia modu bizkor eta era fidagarrian erreplikatzeko, ezinbesteko tresnak bilakatu dira.

Zoritxarrez, sistema hauetan hedatzen diren uhin elektromagnetikoak deskribatutako uhin ekuazioak, sistema homogeneoetan erabiltzen direnak baino konplexuagoak dira, hauetan ematen den konstante dielektrikoaren eta espazioarekiko menpekotasuna dela eta. Ondorioz, uhin-ekuazio hauek, modu analitiko batean ebaztea prozesu zaila da eta soilik kasu sinpleenetan, 1D PC-an esaterako, ebatzi daitezke konputagailu bidezko metodo numerikoak

erabili barik. Beraz, metodo numeriko hauek ezinbestekoak dira, alde batetik, orokorrean emaitz kuantitatiboak lortzeko bide bakarra direlako, eta beste alde batetik, PC konkretu baten predikzio numerikoa lortzea, neurketa esperimentalak egitea baino azkarragoa eta merkeagoa delako.

Kristal fotonikoen arloko metodo numerikoen garapenak, semi-eroaleen banda-egitura elektronikoa kalkulatzeko metodoek izandako bidearen parekoa izan da. Hasieran, ikerketa ahalegin gehienak kristal fotoniko ideal eta infinituek erakarri zituzten. Sistema hauetan, maiztasun espazialeko teknikak oso ondo moldatzen dira, adibidez uhin lauen metodoa (PWE) [4, 63, 85], edota *tight binding* metodoan oinarritutakoak. Laster, ordea, kristal fotonikoetako egituretan nolabaiteko desordena sartzeak ezaugarri fisiko bereziak sortarazten zituztela ikusiz, maiztasun eremuko metodoak erabili ziren, akatsak dituzten kristal fotonikoen banda egiturak nahiz egoera fotonikoen dentsitatea kalkulatzeko, gehien bat puntu edo lerro akatsez osaturiko supergelaxka egituretan oinarrituz [65]. Argiaren lokalizazioa sortzen duten akats hauetan ez ezik, kristal fotonikoen fabrikazio prozesuetan gertatzen den antzerako osagaien zorizko desplazamenduak sortutako desordena aztertzeko, aurreko metodo hauek ez dira aproposak. Gainera, sistema errealak beti luzera finitua dute eta beraz, metodo hauen sistema infinituen suposaketak beti errealitatearekin bat ez datozen kontsiderazioak dakartza.

Aurrekoak direla eta, ikertzaileak azken urte hauetan espazio errealean operatzen duten metodoak gero eta gehiago erabiltzen hasi dira. Metodo horiek beste metodoak ez bezala, periodikoak ez diren kluster finitoak erabiltzen dituzte. Azken horien artean, Maxwell ekuazioen hedapen multipolarrean oinarritutako zenbait algoritmo aipa ditzakegu, simetriaren arabera ardaztuta daudenak [66, 67] (harmoniko zilindriko edo esferikoak esaterako) edo denboraren eremuko diferentzia finituen metodoa [68]. Hedapen multipolarrean oinarritutako metodoak, oinarri simetrikoaren aukeraketaz mugatuta daude, simetria bera duten osagai dielektrikoak dituzten sistemei aurre egiteko. FDTD metodoa ordea, gero eta itxaropentsuagoa dirudi, metodo honen eragozpen garrantzitsuena denboraren araberako ekuazio-sistemetan hedatutako eremuek egoera egonkorrera iristeko beharrezko denbora, hau da, konputazio-denbora, luzea izaten ohi dela da. Nolanahi ere, metodo hauen erabilera askotan baztertu egin da, batez ere konputazionalki oso garestiak direlako, batez ere memoria erabilerari dagokionez. Hala ere, konputagailuen baliabide informatikoak gora egin ahala eta RAM memorien prezioen murrizketa ikusgarriak, FDTD metodoaren konputazio-kostuak areagotu ditu eta ondorioz, espazio errealeko metodoak aplikazio praktikoetan erabilpenean oso interesgarri egiten ditu.

Beste alde batetik, elementu finitoen (FE) metodoak [69–72, 74] arreta gutxi jaso du orain arte fisikaren arlo honetan, nahiz eta fisika eta ingenieritzako beste hainbat sailetan arrunki aplikatzen den. Izan ere, azken metodo honek baditu ingurune heterogeneo baten hedatzen

diren uhin elektromagnetikoen analisia egiteko onuragarriak diren alderdi ugari. Konkretuki, FE metodoak, modu natural batean, geometria arbitrarioen azterketa eta maiztasunaren araberako funtzio dielektrikoekin (adibidez, egitura inhomogeneo metalikoen kasuan) uhinen ebazpena ahalbidetzen du. Gainera, funtzio dielektrikoaren jarraitasun ezak ez dira FE metodoarentzat bereziki kaltegarriak eta kalkulatu beharreko kantitateak egoera egonkorrean aurkezten ditu uneoro. Metodoaren gabezi bakarra konputagailuaren memoriaren behar intentsiboa da. Hala eta guztiz ere, baliabide honen eskakizunak ez dira asko aldatzen egitura hauetan akatsak aztertzen direnean. Beraz, metodo honen erabilpena oso abantailagarria izan liteke sare desordenatuen azterketan [72]. Ondorioz, gaur egun, band gap fotonikoen arloan, FE metodoaren erabilgarritasuna aztertzea garrantzitsua da, honen bidez kristal fotonikoen propietate fisikoak ikertzeko, ikuspegi fundamental eta aplikatutik aurkezten dituen xehetasunak jakinarazteko.

2.2 Ingurune inhomogeneoetan uhin elektromagnetikoen hedapenari buruzko oinarri matematikoak

Ingurune heterogeneo baten hedatzen den uhin elektromagnetikoaren ezaugarriak deskribatzeko Maxwellen ekuazioak erabiltzen dira. Karga libreen eta kanpo korronte elektrikoen gabezian, Maxwellen ekuazioak, ingurune ez-magnetiko eta isotropikoan, hurrengo eran idatzi daitezke:

$$\nabla \cdot \vec{B} = 0 \tag{2.1}$$

$$\nabla \times \vec{E} = -\frac{d\vec{B}}{dt} \tag{2.2}$$

$$\nabla \cdot \vec{D} = \rho \tag{2.3}$$

$$\nabla \times \vec{D} = \vec{J} + \frac{d\vec{D}}{dt}, \tag{2.4}$$

non $\vec{E}$ eremu elektrikoa da eta $\vec{B}$ dentsitate magnetikoaren fluxua da. μ hutsaren permitibitatea da, $\varepsilon_0/\mu_0 = 1/c^2$ non, ε_0 hutsaren konstante dielektrikoa da. $\vec{D}$ desplazamendu eremua da, azken hau $\vec{E}$ eremu elektrikoarekin lotzen da ε konstante dielektrikoaren bitartez. Bereziki, bi-dimentsioko sistemetan, edozein eremu elektriko edo magnetiko bat, zeharkako eremu elektriko (TE) bat eta zeharkako eremu magnetiko (TM) baten konbinaketa linela erabiliz adierazi daiteke. Zeharkako eremu elektrikoa, kristal fotonikoaren plano perpendikularraren norabidea hartzen du – era berean, zeharkako eremu magnetikoa kristal fotonikoaren plano berean kokatzen da– eta kanpo iturrien ezean, Maxwell-en ekuazioak eremu elektrikoarentzat

Helmhotz-en ekuaziora murriztu daitezke hurrengo eran

$$\nabla^2 E_z(\vec{r}) + k_0^2 \epsilon_r(\vec{r}) E_z(\vec{r}) = 0, \tag{2.5}$$

non $E_z(\vec{r})$, z-norabidean hedatzen den eremu elektrikoa da $\vec{r}$ posizioan, $\epsilon_r(\vec{r})$ kristal fotonikoaren konstante dielektriko inhomogeneoa da, eta $k_0 = \omega/c$-n, ω eremu elektriko eraginkorraren maiztasun angularra da, c espazio hutseko argi abiadura izanik. (2.5) ekuazioa idazterakoan kristal fotonikoa ez magnetikoa ($\mu_r = 1$) eta ez-eroalea ($\sigma = 0$) dela onartu da. (2.5) ekuazioa ebatzi eta gero, denbora-harmonikoko eremu elektriko eta magnetikoak errez kalkulatu daitezke

$$\vec{E}(\vec{r}, t) = E_z(\vec{r})\, e^{-i\omega t}\, \hat{z} \tag{2.6}$$

$$\vec{H}(\vec{r}, t) = \frac{i}{k_0} \nabla \times \epsilon_r(\vec{r}) \vec{E}(\vec{r}, t). \tag{2.7}$$

Beste alde batetik, TM polarizazioaren kasuan, eremu magnetikoa kristal fotonikoaren planoarekiko perpendikularra da–eremu elektrikoa plano horretara mugatzen den neurrian –eta Maxwellen ekuazioak, kanpo iturrien ezean, eremu magnetikoarentzako Hemholz-en ekuaziora murriztu daiteke

$$\nabla \left(\frac{\nabla H_z(\vec{r})}{\epsilon_r(\vec{r})} \right) - k_0^2 H_z(\vec{r}) = 0, \tag{2.8}$$

non $H_z(\vec{r})$, z norabidean hedatzen den eremu magnetikoaren osagaia da, $\vec{r}$ posizioan. Eremu elektriko eta magnetikoen denbora-harmonikoak erraz kalkulatu daitezke (2.8) ekuazioa ebatzi eta gero

$$\vec{H}(\vec{r}, t) = H_z(\vec{r})\, e^{-i\omega t}\, \hat{z} \tag{2.9}$$

$$\vec{E}(\vec{r}, t) = -\frac{i}{k_0 \epsilon(\vec{r})} \nabla \times \vec{H}(\vec{r}, t). \tag{2.10}$$

Simulazio elektromagnetiko baten, simulazio domeinuaren muga-baldintza egokiak erabiltzea, alderdi garrantzitsu bat da. Muga-baldintza hauek, simulatutako eremu elektromagnetikoen izaera, problema fisiko bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitzen dituzte. Adibidez, banda-fotonikoen egiturak kalkulatzeko, muga-baldintza hauek, egitura infinitu baten propietateak sortzeko gai izan behar dira eta aldi berean, kristal fotonikoaren periodizitatea errepikatu behar dute. Aldiz, mota honetako muga- baldintzak ezin dira berrerabili izaera finitua duten egituretan. Egitura infinitu bat simulatzeko, muga-baldintza magnetiko perfektuak (PMC) edo elektriko perfektuak (PEC) erabiltzen dira, simulazio-eskualdea islatzeko. PMC baldintzak, eremu elektromagnetikoaren TE polarizazioarentzat erabiltzean, simulazio-

eskualdearen mugan tangentea den eremu magnetikoa deuseztatu beharko litzateke, hau da

$$\hat{n} \times \vec{H} = \vec{0}, \tag{2.11}$$

non $\hat{n}$ simulazio domeinuaren kanpoaldeko puntu bakoitzarekiko perpendikularra den unitate-bektorea da. Beste alde batetik, PMC baldintzak eremu elektromagnetikoaren TE polarizazioarentzat erabiltzen dira, simulazio-eskualdearen mugan tangentea den eremu elektrikoa deuseztatuko litzateke, hau da

$$\hat{n} \times \vec{E} = \vec{0}. \tag{2.12}$$

Kristal fotonikoaren sarearen periodizitatea, Bloch-en teorema erabiliz kristal fotonikoaren gelaxka unitatearen mugetan eragin daiteke. Teorema honek adierazten duenez, eremu elektrikoa (magnetikoa), PC-ren puntu batetik gelaxka unitatearen beste aldera hedatzen denean, $\vec{R}$ espazioa zeharkatuz, eremu elektromagnetikoak jasatzen duen aldaketa bakarra bere fasean aurkitzen da

$$E_z(\vec{r}+\vec{R}) = e^{i\vec{k}\cdot\vec{R}} E_z(\vec{r}) \tag{2.13}$$

eta

$$H_z(\vec{r}+\vec{R}) = e^{i\vec{k}\cdot\vec{R}} H_z(\vec{r}). \tag{2.14}$$

TE eta TM polarizazioetarako, hurrenez hurren. Ekuazio hauetan, $\vec{R}$ kristal fotoniko sarearen bektorea da, eta $\vec{k}$ eremu elektromagnetikoaren uhi- bektorea da (3). Beste alde batetik, hurrengo kapituluetan aurkezten diren transmitantziaren kalkuluak egiteko, uhin bektorearekiko paraleloak diren kluster finitoak erabiltzen dira. Aldi berean, kluster hauek infinituak dira norabide perpendikularrean. Material hauen ezaugarriak erreplikatzeko, PMC eta PEC muga-baldintzak erabili dira simulazio eskualdearen kanpo ertzetan, uhin bektore eraginkorrarekiko perpendikularra den norabidean TE eta TM polarizazioarentzat, hurrenez hurren. Uhin elektromagnetikoak, muga hauek zeharkatzen dituzten kasuetan, kanpo muga-baldintzetan arreta handia jarri behar da, egituren izaera finituak sortutako eremuen islapen artifizialak ekiditzeko. Horretarako *perfectly matched layer* (PML) muga-baldintzak erabiltzen dira. Muga-baldintza horiek definitzen dituzten ekuazioak hauexek dira

$$\hat{z} \cdot \hat{n} \times (\nabla \times E_z \hat{z}) - i\beta E_z = -2i\beta E_{0z} \tag{2.15}$$

$$\hat{z} \cdot \hat{n} \times (\nabla \times H_z \hat{z}) - i\beta H_z = -2i\beta H_{0z}, \tag{2.16}$$

non E_{0z} eta H_{0z} eremu elektriko eta magnetikoen eremuko hasierako balioak dira, hurrenez hurren, eta $\beta = k_0$ propagazio konstantea da. Goiko ekuazioa TE polarizazioari aplikatzen zaio, behekoa TM polarizazioari dagokio. Eremu elektrikoa mugaren modu propioa bada, mugan ez da isladapenik emango.

2.3 Elementu finitoen metodoa

Aurkezpenean adierazi den bezala, elementu finituen metodoa (FEM) ekuazio partzial diferentzialak ebazteko metodo numeriko orokorra da. Metodo hau bereziki egokia da zorizko konplexutasuna duten geometrien problema elektromagnetikoei aurre egiteko. Edozein FE simulazioen muinean sare bat sortzeko algoritmoa dago, hau da, simulatu beharreko geometria-eskualdea forma konkretu batez osatutako *sare elementu*-etan zatitzen duen algoritmoa.

Dimentsio bakarrean, hau da 1D-an, sare hau simulazio-domeinua zati txikietan banatzearen emaitza da. Sare honen muturreko puntuei *sarearen erpinak* edo *sarearen nodoak* deitzen zaie. Bi dimentsioetan, simulazio domeinua sare elementu triangular edo laukizuzenekin osatzen da, adibidez. Triangeluen bidez osatutako sareari, *egituragabea* deritzogu eta laukizuzenez osatutakoari ordea *egituratuta* dagoen sarea dela esaten diogu, sarea honek patroi itxura zehatz bat osatzen bait du. Triangeluen edota laukizuzenen albo eta ertzei, *sarearen ertz* eta *sarearen erpin*, deitzen zaie, hurrenez hurren. Simulazio-domeinuaren mugak partzialki (gutxi gorabehera) sarea ertzetan partekatzen dira, *muga elementuak* deritzogunetan, eta hauek sarearen triangeluekin bat etorri behar dira ondoan azpi-domeinu bat badago. Era berean, 3D-an, simulazio-eremua tetraedro, hexaedro edo prisma-sarea elementuetan banatu daiteke, zeinen aurpegiak, ertzak eta erpinak *sare aurpegi*, *sarearen ertz* eta *sarearen erpin* terminoekin izendatzen dira, hurrenez hurren. 2.1 irudian bi dimentsioetarako osatutako sare ezberdinen adibideak erakusten dira.

Hautatutako geometriarentzat sare bat definitu eta gero, problemaren menpeko aldagaien hurbilpen bat egiten da. Pauso honen helburua, parametro kopuru batzuen bitartez interpolazio-funtzio bat osatzea da, honela menpeko aldagaien hurbilketa bat egiteko. Interpolazio-funtzioa osatzen duten parametro hauei *askatasun-gradua* deitzen zaie. Ekuazio partzial diferentzialean (PDE) hurbilketa hau erabiltzean, askatasun-gradu hauentzat, ekuazio algebraiko sorta bat sortzen du. Gero, ekuazio algebraiko hauek, *solver* egokia erabiliz ebatzi daitezke. Prozesu hau hobeto deskribatzeko, ondoren FEM erabiliz dimentsio bakarreko ekuazio diferentzialaren ebazpena aztertuko dugu

$$-\frac{d}{dx}\left(\alpha(x)\frac{d\phi}{dx}\right)+\beta(x)\phi(x)=0, \tag{2.17}$$

$\phi(x)$ ebatzi nahi dugun funtzioa da eta $\alpha(x)$ eta $\beta(x)$ soluzio-domeinuaren ezaugarri fisikoak deskribatzen dituzten eta ezagunak diren funtzioak dira. Egin dezagun beste suposaketa bat, $\phi(x)$ funtzioa, simulazio-eskualdearen mugetan hirugarren motatako muga-baldintza



2.1. Irudia Ezkerrean: 2D sare-egitura baten eredua, 7400 sare elementu laukizuzenez osatutakoa. Eskuman: simulazio-eskualde bera 7722 sare-elementu triangeluarrez osatutako sare ez-egituratu batean zatituta dagoena. Geometria honen bidez uhin-gida plano axisimetriko baten uhin elektromagnetikoen hedapena simulatzeko erabili daiteke, adibidez. Simulazio eskualdearen gune ilunak, materialaren errefrakzio-indizeak balio altuak hartzen dituen tarteak irudikatzen ditu ($n = 3$), aldiz, kolore argiak dituzten guneak, aireak betetzen dituen tarteak adierazten ditu.

inhomogenoak emandako balioak hartzen dituela esanez

$$\alpha(0)\left.\frac{d\phi}{dx}\right|_{x=0} + \gamma(0)\phi(0) = q(0) \tag{2.18}$$

$$\alpha(L)\left.\frac{d\phi}{dx}\right|_{x=L} + \gamma(L)\phi(L) = q(L), \tag{2.19}$$

bertan $q(0)$ eta $q(L)$ parametroak ezagunak dira. Dimentsio bakarrean definitutako Helmholtz-en ekuazioa hurrengo eran idatzi daiteke

$$\frac{d^2\phi}{dx^2} + k_0^2\epsilon_r(x)\phi(x) = 0 \tag{2.20}$$

transparent influx motatako muga-baldintzak erabiliz (aurreko atalean deskribatutako PML baldintzen kasu berezia da hau, simulazio gunera igorritako eta simulazio gunetik irtetzen diren uhinen islapena ekiditzea ziurtatzen duten muga-baldintzak dira hain zuzen ere, $x = 0$ eta $x = L$-en, hurrenez hurren)

$$-\left.\frac{d\phi}{dx}\right|_{x=0} + ik_0\phi(0) = 2ik_0 \tag{2.21}$$

$$\left.\frac{d\phi}{dx}\right|_{x=L} + ik_0\phi(L) = 0 \tag{2.22}$$

(2.17)-ren kasu berezia da $\alpha(x) = -1$, $\beta(x) = k_0^2 \epsilon_r(x)$, $\gamma(0) = -\gamma(L) = ik_0$, $q(0) = 2ik_0$, eta $q(L) = 0$ direnean.

(2.17) ekuazioa (2.18) eta (2.19) muga-baldintzekin batera adierazteak, [69] aldakuntza-problema ebaztearen baliokidea da

$$\delta F(\phi) = 0, \tag{2.23}$$

eta bertan

$$F(\phi) = \frac{1}{2} \int_0^L \left[\alpha(x) \frac{d^2\phi}{dx^2} + \beta(x)\phi(x)^2 \right] dx + \Gamma(L) - \Gamma(0) \tag{2.24}$$

eta bereziki

$$\Gamma(x) = \frac{\gamma(x)}{2} \phi(x)^2 - q(x)\phi(x). \tag{2.25}$$

Horretarako, $F(\ phi)$-ren lehen aldakuntza sortuko dugu $\phi(x)$ funtzio fisikoaren arabera

$$\begin{aligned} \delta F(\phi) &= F(\phi(x) + \delta\phi(x)) - F(\phi) = \\ &= \int_0^L \left[\alpha(x) \frac{d\phi}{dx} \frac{d\delta\phi}{dx} + \beta(x)\phi(x)\delta\phi(x) \right] dx + \left[(\gamma(x)\phi(x) - q(x))\, \delta\phi(x) \right]_{x=0}^{x=L}. \end{aligned} \tag{2.26}$$

$\alpha(x)$ domeinu osoan jarraia dela suposatuz eta eskuinaldeko lehenengo terminoa zatietan integratuz, (2.26) hurrengo eran idatzi daiteke

$$\begin{aligned} \delta F(\phi) = -\int_0^L \left[\frac{d}{dx} \left(\alpha(x) \frac{d\phi}{dx} \right) + \beta(x)\phi(x) \right] \delta\phi(x) dx \\ + \left[\left(\alpha(x) \frac{d\phi}{dx} + \gamma(x)\phi(x) - q(x) \right) \delta\phi(x) \right]_{x=0}^{x=L} = 0. \end{aligned} \tag{2.27}$$

$\Delta\phi(x)$ aldakuntza arbitrarioa denez, integrazioa eta muga-terminoak desagertu egin behar dira eta jarraian (2.17) eta muga-baldintza homogeneoak, (2.18) eta (2.19) berreskuratzen dira. Elementu finituen metodoan, (2.23) ekuazioa ebazteko, soluzio-domeinua M luzeera berdineko sare-elementuetan zatitzen da [1], alegia, Δx elementuetan. Elementu bakoitzak n sare-nodoak edukiko ditu, x_i^l-ean kokatuta (ikusi 2.2 irudia). Elementu bakoitzean, interpolazio-funtzioa erabiliz $\phi(x)$-en hurbilketa kalkulatzen da

$$\tilde{\phi}^l(x) = \sum_{i=1}^{n} e_i^l \varphi_i^l(x), \tag{2.28}$$

[1] baldintza hau erraz erlaxatu daiteke baina honela eginez metodoaren formulazioa asko errazten da, beraz, tesi honetan zehar jokabide honekin jarraituko dugu.



2.2. Irudia Azpikaldean: Simulazio eskualdea M sare-elementuetan zatituta, elementu hauek n nodo dituzte, zenbaketa eskema lokal eta globalean. Goikoan ezkerrean: Elementu linealen oinarrizko funtzioak l. sare-elementuarentzat. Goian eskuman: Elementu laukizuzenen oinarrizko funtzioak l. sare-elementuarentzat.

non e_i^l lehen definitutako askatasun graduak eta $\varphi_i^l(x)$ oinarrizko funtzioak hurrengo baldintzei lotuta daude

$$\varphi_i^l(x_j^l) = \delta_{ij} \qquad (i,j = 1,2,\ldots,N) \tag{2.29}$$

δ_{ij} Kronecker-en delta da. Oinarrizko funtzioak sortutako $\Phi(x)$ funtzio-sorta, funtzio linealen espazio bat da, *elementu finituen espazioa* izenekoa. Adierazpen hauetan, $l = 1,2\ldots,M$ sare-elementuen zenbakia da eta $i = 1,2,\ldots,n$ elementu konkretu baten barruko sareko nodoen zenbakia. Ordenamendu honi, zenbaketa lokalaren eskema deritzogu. Dimentsio bakarreko problemetan, zenbaketa lokalaren eskema hau erabiltzeak ez du abantaila haundirik ekartzen eta nahikoa izaten da soilik indize bakar bat erabiltzea elementuak eta nodoak bereizteko. Prozedura hau zenbaketa globalaren eskemaz ezagutzen da. Bertan, nodoak globalki ordenatzen dira 1-etik N-ra, N sortutako nodoen kopuru totala izanik. Zenbaketa lokalaren eskema erabiliz ordea, metodoa 2 eta 3 dimentsioetan formulatzerakoan, asko errazten du nodoen eta elementuen jarraipena egitea, eta beraz, aurrerantzean eskema hau jarraituko dugu tesi honetan zehar. (2.28) ekuazioa $F(\phi)$ funtzionalean ordezkatuz, hurbilketa funtzionala lortzen da

$$\tilde{F}(\tilde{\phi}) = \frac{1}{2}\sum_{l=1}^{M}\sum_{i,j=1}^{n} e_i^l K_{ij}^l e_j^l + \tilde{\Gamma}(L) - \tilde{\Gamma}(0), \tag{2.30}$$

bertan

$$K_{ij}^{(l)} = \int_{x_1^l}^{x_n^l} \left[\alpha(x) \frac{d\varphi_i^l}{dx} \frac{d\varphi_j^l}{dx} + \beta(x) \varphi_i^l(x) \varphi_j^l(x) \right] dx \tag{2.31}$$

eta

$$\tilde{\Gamma}(L) = \frac{\gamma(L)}{2} (e_n^M)^2 - q(L)\, e_n^M \tag{2.32}$$

$$\tilde{\Gamma}(0) = \frac{\gamma(0)}{2} (e_1^1)^2 - q(0)\, e_1^1. \tag{2.33}$$

Problemaren askatasun graduak kalkulatzeko beharrezkoak diren ekuazioak, egoera egonkorra edo estazionarioa inposatuz lortzen dira

$$\frac{\partial F}{\partial e_i^l}(e_1^1, \ldots, e_i^l, \ldots, e_n^M) = 0 \qquad (l = 1, 2, \ldots, M; i = 1, 2, \ldots, n). \tag{2.34}$$

Ekuazio aproposak lortzeko, hurrengo loturak kontuan izan behar ditugu

$$e_n^{l-1} \equiv e_1^l \qquad (l = 2, 3, \ldots, M), \tag{2.35}$$

eta beraz, askatasun gradu guztiak bikoiztuta egongo dira, lenehengoa eta azkena izan ezik, (2.34) ekuazioan. Honen bidez ondoko ekuazio linealak lortuko dira

$$\sum_{j=1}^{N} \left(K_{ij} + \gamma_{ij} \right) e_j = q_i \qquad (i = 1, 2, \ldots, N), \tag{2.36}$$

edo, era matrizialean

$$[\mathbb{K} + \mathbb{G}]\, \vec{e} = \vec{q}, \tag{2.37}$$

bertan

$$\mathbb{K} = \begin{bmatrix}
K_{11}^{(1)} & \dots & K_{1n}^{(1)} & \dots & 0 & \dots & 0 & \dots & 0 & \dots & 0 \\
\vdots & \ddots & \vdots & \ddots & \vdots & & \vdots & & \vdots & & \vdots \\
K_{n1}^{(1)} & \dots & K_{nn}^{(1)} + K_{11}^{(2)} & \dots & K_{1n}^{(2)} & \dots & 0 & \dots & 0 & \dots & 0 \\
\vdots & \ddots & \vdots & \ddots & \vdots & \ddots & \vdots & & \vdots & & \vdots \\
0 & \dots & K_{n1}^{(2)} & \dots & K_{nn}^{(2)} + K_{11}^{(3)} & \dots & K_{1n}^{(3)} & \dots & 0 & \dots & 0 \\
\vdots & & \vdots & \ddots & & \ddots & & \ddots & & & \vdots \\
\vdots & & \vdots & & \ddots & & \ddots & & \ddots & & \vdots \\
\vdots & & \vdots & & & \ddots & & \ddots & & \ddots & \vdots \\
0 & \dots & 0 & \dots & 0 & \dots & K_{11}^{(M-1)} & \dots & K_{1n}^{(M-1)} + K_{11}^{(M)} & \dots & K_{1n}^{(M)} \\
\vdots & & \vdots & & \vdots & & \vdots & \ddots & \vdots & \ddots & \vdots \\
0 & \dots & 0 & \dots & 0 & \dots & 0 & \dots & K_{n1}^{(M)} & \dots & K_{nn}^{(M)}
\end{bmatrix}, \tag{2.38}$$

$$\mathbb{G} = \begin{bmatrix}
-\gamma(0) & 0 & \dots & 0 & 0 \\
0 & 0 & \dots & 0 & 0 \\
\vdots & \vdots & \ddots & \vdots & \vdots \\
0 & 0 & \dots & 0 & 0 \\
0 & 0 & \dots & 0 & \gamma(L)
\end{bmatrix}, \tag{2.39}$$

$\vec{q} = \left(-q(0), 0, \dots, 0, q(L)\right)^T$, eta $\vec{e} = \left(e_1^{(1)}, \dots, e_{n-1}^{(1)}, e_1^{(2)}, \dots, e_{n-1}^{(2)}, e_1^{(3)}, \dots, e_n^{(M)}\right)^T$, azkenik *solver* egokia erabiliz ebatzi daitekeena. $\mathbb{K}$ matrizearen elementu ugarik zero balioa dute. Matrize honen tamaina mallaren elementu kopuruak zehazten du. FEM ekuazioak formulatzeko erabili dogun metodoari askotan Ritz FEM esaten zaio. FEM formulatzeko beste metodo batzuk ere badaude, adibidez, oso ezaguna den Galerkin metodoa. FEM metodo ezberdinak, antzeko ekuazio sistemetara hailegatzen dira. Metodo hauetan hausnartzean interesatuta dagoen irakurleak xehetasun gehiago aurkituko ditu ref. [69] erreferentzian.

Elementu finituen metodoaren alderdi garrantzitsuenetako bat (2.28) funtzio oinarrien aukeraketa da. Hautatutako oinarrizko funtzioen formulaketan, ohikoa da konpromezu bat bilatzea, funtzioaren ebazpenerako esleitzen duten hurbilketa ona izatea bilatzen da, baina baita oinarrizko funtzio hauek ahal den moduan funtzio sinpleak izatea ere espero da, beraz, bi helburu hauen arteko konpromezua da orokorrean hautagairik onena. Orokorrean, oinarrizko funtzioetarako (p) gradu jakin bateko polinomioak erabiltzen dira, hauek konputazio-metodo eraginkorra ahalbidetzen dutelako. Gradu jakin bateko polinomio baterako, sarean behar diran nodo kopurua $p+1$ da. Azter dezagun xehetasunez polinomio hauen bi aukera tipikoak: jarraian elementu linealak eta laukizuzenen erabilera aztertuko da, (2.17) adibidea erabiliz.



2.3. Irudia $\alpha(x)$ eta $\beta(x)$ funtzioen zatikako hurbilpenak. Hurbildutako funtzioak norabide bertikalean irudikatu dira, irudia ulerkorragoa izan dadin.

2.3.1 Elementu linealak ($p = 1$)

Teoria elektromagnetikoan erabiltzen diren ohiko oinarrizko funtzioak, batez ere hiru dimentsioetan erabiltzen direnak, elementu linealak dira, hauek elementu finitoen metodoaren efizientzia sustatzen bait dute. Elementu linealak erabiltzean, elementu bakoitzeko 2 nodo egongo lirateke eta oinarri funtzioak hauek izango lirateke (ikus 2.2) irudia).

$$\varphi_1^l(x) = \frac{x_2^l - x}{\Delta x}, \tag{2.40}$$

$$\varphi_2^l(x) = \frac{x - x_1^l}{\Delta x} \tag{2.41}$$

eta proba funtzioa honela idatzi daiteke

$$\tilde{\phi}^l(x) = e_1^l \varphi_1^l(x) + e_2^l \varphi_2^l(x). \tag{2.42}$$

$K_{ij}^{(l)}$ integrala ebaluatzeko, $\alpha(x)$ eta $\beta(x)$ funtzioen emaitz zehatza jakitea beharrezkoa da. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan ez da beharrezkoa datu hau jakitea, horretarako funtzio hauen zatikako hurbilketa egiten bada– 2.3 irudian argitzen den bezala–hau egiteko funtzio hauen balioa $[x_1^l, x_n^l]$ bitartean hurbiltzen da $\tilde{\alpha}_l = \alpha(x_1^l)$, $\tilde{\beta}_l = \beta(x_1^l)$ konstanteen bitartez, hurrenez hurren. Gainera, hurbilketa mota hau guztiz aproposa da hurrengo kapituluan proposatutako problemetarako, alegia kristal fotonikoen eremu elektromagnetikoen ebazpenerako. Problema hauetan, $\beta(x)$ kristal fotonikoaren errefrakzio-indizearekiko proportzinala da (dagoeneko definizioz zatietan definitutako funtzio bat dena) domeinuko sarea osatzean sarearen elementuen nodoak errefrakzio-indizearen aldaketa puntuekin bat badatoz. Baldintza honen arabera, $K_{ij}^{(l)}$ integralak analitikoki ebaluatu daitezke. Elementu linealak erabiliz, hurrengo emaitzara ailegatuko gara

$$K_{11}^{(l)} = K_{22}^{(l)} = \frac{\tilde{\alpha}_l}{\Delta x} + \tilde{\beta}_l \frac{\Delta x}{3}, \tag{2.43}$$

$$K_{12}^{(l)} = K_{21}^{(l)} = -\frac{\tilde{\alpha}_l}{\Delta x} + \tilde{\beta}_l \frac{\Delta x}{6}. \tag{2.44}$$

Adibide praktiko bat aipatzeko, elementu linealen bidez ebatzitako 1D Helmholtz ekuazioa, (2.37) ekuazio linealentzako FEM soluzioak ematen du, hurrengoarekin batera

$$\mathbb{K} = \frac{-1}{\Delta x}\begin{bmatrix} 1 & -1 & 0 & 0 & \dots\dots & 0 \\ -1 & 2 & -1 & 0 & \dots\dots & 0 \\ 0 & -1 & 2 & -1 & \dots\dots & 0 \\ \vdots & & \ddots & \ddots & \ddots & \vdots \\ 0 & \dots\dots & -1 & 2 & -1 & 0 \\ 0 & \dots\dots & 0 & -1 & 2 & -1 \\ 0 & \dots\dots & 0 & 0 & -1 & 1 \end{bmatrix}$$

$$+ \frac{k_0^2 \Delta x}{6}\begin{bmatrix} 2c_1 & c_1 & 0 & 0 & \dots\dots & 0 \\ c_1 & 2(c_1+c_2) & c_2 & 0 & \dots\dots & 0 \\ 0 & c_2 & 2(c_2+c_3) & c_3 & \dots\dots & 0 \\ \vdots & & \ddots & \ddots & \ddots & \vdots \\ 0 & \dots\dots & c_{M-2} & 2(c_{M-2}+c_{M-1}) & c_{M-1} & 0 \\ 0 & \dots\dots & 0 & c_{M-1} & 2(c_{M-1}+c_M) & c_M \\ 0 & \dots\dots & 0 & 0 & c_M & 2c_M \end{bmatrix}, \tag{2.45}$$

$$\mathbb{G} = \begin{bmatrix} -ik_0 & 0 & \dots & 0 & 0 \\ 0 & 0 & \dots & 0 & 0 \\ \vdots & \vdots & \ddots & \vdots & \vdots \\ 0 & 0 & \dots & 0 & 0 \\ 0 & 0 & \dots & 0 & -ik_0 \end{bmatrix}, \tag{2.46}$$

(2.47)

eta $\vec{q} = (-2ik_0, 0, \dots, 0)^T$ honekin batera $c_l = \tilde{n}_l^2 = n^2(x_1^l)$.

2.3.2 Elementu kuadratikoak ($p = 2$)

Soluzioaren zehaztasuna hobetzeko, maila handiagoko oinarrizko funtzioak erabili daitezke. Bereziki, elementu kuadratikoak problema fisiko ugarietan erabiltzen dira. Kasu honetan, sareko bitarte bakoitzean $p+1 = 3$ nodo aurkituko dira. Oinarrizko funtzioak (2.29) baldintzaz

mugatuta daude, hurrengoko ekuazioetara helduz (ikusi fig. 2.2 irudia)

$$\varphi_1^l = \frac{(x-x_2^l)(x-x_3^l)}{(x_1^l-x_2^l)(x_1^l-x_3^l)} = \frac{2(x-x_2^l)(x-x_3^l)}{\Delta x^2}, \tag{2.48}$$

$$\varphi_2^l = \frac{(x-x_1^l)(x-x_3^l)}{(x_2^l-x_1^l)(x_2^l-x_3^l)} = -\frac{4(x-x_1^l)(x-x_3^l)}{\Delta x^2}, \tag{2.49}$$

$$\varphi_3^l = \frac{(x-x_1^l)(x-x_2^l)}{(x_3^l-x_1^l)(x_3^l-x_2^l)} = \frac{2(x-x_1^l)(x-x_2^l)}{\Delta x^2} \tag{2.50}$$

$$\tag{2.51}$$

eta hurbilketa funtzioak honela idatzi daitezke

$$\tilde{\phi}^l(x) = e_1^l\,\varphi_1^l(x) + e_2^l\,\varphi_2^l(x) + e_3^l\,\varphi_3^l(x). \tag{2.52}$$

Suposatuz, berriro ere $\alpha(x)$ eta $\beta(x)$ zatikako funtzio baten bidez hurbildu daitezkela, $\mathbb{K}$ matrizeko elementuak erraz kalkulatu daitezke

$$K_{11}^{(l)} = \frac{7\tilde{\alpha}_l}{3\Delta x} + \frac{2}{15}\tilde{\beta}_l\Delta x, \qquad K_{12}^{(l)} = -\frac{8\tilde{\alpha}_l}{3\Delta x} + \frac{1}{15}\tilde{\beta}_l\Delta x, \qquad K_{13}^{(l)} = -\frac{\tilde{\alpha}_l}{3\Delta x} + \frac{1}{30}\tilde{\beta}_l\Delta x, \tag{2.53}$$

$$K_{21}^{(l)} = K_{12}^{(l)}, \qquad K_{22}^{(l)} = \frac{16\tilde{\alpha}_l}{3\Delta x} + \frac{8}{15}\tilde{\beta}_l\Delta x, \qquad K_{23}^{(l)} = -\frac{8\tilde{\alpha}_l}{3\Delta x} + \frac{1}{15}\tilde{\beta}_l\Delta x, \tag{2.54}$$

$$K_{31}^{(l)} = K_{13}^{(l)}, \qquad K_{32}^{(l)} = K_{23}^{(l)}, \qquad K_{33}^{(l)} = \frac{7\tilde{\alpha}_l}{3\Delta x} + \frac{2}{15}\tilde{\beta}_l\Delta x. \tag{2.55}$$

$\alpha(x)$ eta $\beta(x)$-en hurbilketa egokia kalkulatu ez den sare-elementuetan, ezinbestekoa da zuzenean integralak numerikoki kalkulatzea. Kasu hauetan, ohikoa da Gaus–Legendre-ren kuadraturaren metodoa erabiltzea integral hauek ebaluatzeko, metodo hau zehatza bait da polinomioen integralen kasuetarako [69].

2.3.3 Koordenatu lokalak eta Lagrange-ren elementuak

Oinarrizko funtzioak normalean *koordenatu lokalak* erabiliz deskribatzen dira. Koordenatu hauek ohiko d-dimensioko simplex-en bitartez definitzen dira

$$\xi_1 \geq 0, \xi_2 \geq 0, \ldots, \xi_d \geq 0, \xi_1 + \xi_2 + \ldots + \xi_d \leq 1, \tag{2.56}$$

koordenatu lokalaren espazioan aurkitzen dira. Espazio hau $\xi_1, \ldots, \xi_d$ koordenatu lokalez parametrizatuta dago. Bitarte unitarioa $d = 1$ simplex-a da. $d = 2$ simplex-a 45°-ko bi angelu osatzen dituen triangelua da, eta $d = 3$ simplex-a tetraedro bat da. Sare-elementuak simplex estandar hauen transformaketa linealak direla esan genezake. Honela, espazio globalaren koordenatuak x_i koordenatu lokalen funtzio linealak izatera moldatuz, sarearen-elementuak sinplex estandarren irudietatik lortu daitezke. Oinarri funtzioak, koordenatu lokalen arabera deskribatzen direnean forma basikoetatik geometria bat hartzen dute. Forma hauek *forma-funtzioak* dira. Funtzio hauek erraz lortu daitezke 1D-an. Kasu honetan, koordenatu lokalak transformazio linealen bitartez definitzen dira

$$\xi = \frac{x - x_1^l}{\Delta x}, \tag{2.57}$$

sare-elementu bakoitzean. Koordenatu lokalen arabera, $K_{ij}^{(l)}$ elementuen integralaren tartea $[0, 1]$ da. (2.57) ordezkatuz (2.40)-ean, elementu linealentzat forma-funtzioak lor daitezke

$$\varphi_1^l(\xi) = 1 - \xi, \tag{2.58}$$

$$\varphi_2^l(\xi) = \xi. \tag{2.59}$$

Bigarren ordeneko elementuentzat, (2.57) ordezkatuz (2.48)-ean, lor daitezke forma-funtzioak

$$\varphi_1^l(\xi) = (2\xi - 1)(\xi - 1), \tag{2.60}$$

$$\varphi_2^l(\xi) = 4\xi(1 - \xi), \tag{2.61}$$

$$\varphi_3^l(\xi) = \xi(2\xi - 1). \tag{2.62}$$

Orain arte erabilitako onarri funtzio lineal edo kuadratikoak *Lagrange-ren interpolazio-polinomioen* kasu bereziak izan dira edo, elementu finitoen terminologian, *Lagrange elementuak*. Lagrange elementu bat bere ordena edo gradua kontuan izanik bereizten da, p zenbaki positiboaren bidez adierazten dena. Φ funtzioa, elementu finitoen espazioan zatietan definitutako p graduko polinomioak dira. Funtzio hau deskribatzeko bere baloreak p graduko *Lagrange puntuetan* definitu behar dira. Puntu hauen koordenatu lokalak $1/p$-ren multiplo

osoak dira. Adibidez, 2D-ko sare triangeluar batean, $p = 2$ izanik, nodoen puntuak sarearen triangelu bakoitzaren ertzetan eta triangeluaren albo bakoitzaren erdian kokatuta daute. P_i^l nodo-puntu bakoitzarentzat, DOF $e_i^l = \Phi(P_i^l)$ bat eta oinarrizko funtzio bat $\varphi_i^l(x)$ definitzen da. Sareko elementu batentzat, ϕ_i^l oinarrizko funtzioa polinomio bat da, eta bere gradua (gehienez) k da koordenatu lokaletan, horrela i nodoan, $\phi_i^l = 1$ bete daiten, eta aldi berean, beste nodo guztietan $\phi_i^l = 0$ beteko da. Beraz, oinarri funtzioak jarraiak dira eta hauetako bat da

$$\Phi(x) = \sum_l \sum_i e_i^l \varphi_i^l(x). \tag{2.63}$$

Lehenengo graduko Lagrange elementuak elementu linealak deitzen dira. Bigarren gradukoak ordea, Lagrange elementu laukizuzenak deitzen dira. Azken hauek dira bi dimentsioetan problema elektromagnetikoak ebazteko erabiltzen direnak, aitzitik, elementu linealak hiru dimentsioetako problemetan erabiltzen dira sarritan, metodoa efizienteago egiteko. Lagrange elementuak zorizko graduetaraino definitu daitezke baina ohiko integrazio formulazioan $k \leq 5$ gradurainoko elementuak erabiltzen ditu normalean.

2.4 Plane Wave Expansion (PWE) metodoa

Plane Wave Expansion metodoa, kristal fotonikoen ikerketan gehien erabiltzen diren metodo numerikoen artean dago (baliteke ere arlo honetan erabilera handiena duen metodoa izatea). Teknika honek geometria periodiko inhomogeneoetan formulatutako Maxwellen ekuazioetatik dispertsio-diagrama eta modu optikoen soluzioak kalkulatzea ahalbidetzen du. Horretarako, materialean hedatzen diren uhin elektromagnetikoen autobalioen dekonposaketa egiten du maiztasun finitu moduak erabiliz[85]. Izan ere, PWE metodoaren bidez eremu baten eta automaiztasunen distribuzioa kalkulatzeko, funtsean, funtzio dielektrikoa eta eremu bektorearen hiru konponenteak Fourier serietan berridazten dira.

Prosezu hau azaltzeko 1D kristal fotonikoaren eredua erabili dezakegu eta puntu horretatik abiatuz, teknika bera bi eta hiru dimetsioko kasu periodikoetarako garatu daiteke modu erraz batean. Har dezagun beraz 1D kristal fotoniko bat, 2.4 irudian erakusten den modukoa.

Egitura sinple hau dielektriko ezberdinez eta era periodikoan antolatutako material dielektrikoz osatuta dago. Kristal hau ez-magnetikoa dela suposatuko dugu, PWE metodoaren planteamendua errazagoa izan dadin. 2.1 ekuazioa beste lau ekuazioetan banatu daiteke, honela, ekuazio bakoitzak eremu bakar bat soilik izango du kontuan. Horretarako eremu elektriko eta magnetikoen dibergentzia kalkulatu eta ordezkapenak eginez, hurrengo ekuazio-



2.4. Irudia (a) Si materiala ($\varepsilon = 11.56$) eta airez ($\varepsilon = 1$) osaturiko guneak tartekatuz sortutako kristal fotonikoa. Eredu honetako egituraren gelaxka-unitatea bi material hauen artean berdin banatuta dago, hau da, $a = 2c$. (b) PWE metodoa erabiliz lortutako dispertsio diagrama. Diagrama honetan maiztasun ω eta uhin-luzeera k dimentsio gabeko unitateetan azaltzen dira. Diagrama honek 4 band gap erakusten ditu, kolore urdinez irudikatu direnak.

etara ailegatzen da:

$$\frac{1}{\varepsilon_r}\nabla\times\nabla\times\vec{E} = \frac{\omega^2}{c^2}\vec{E} \tag{2.64}$$

$$\nabla\times\nabla\times\frac{1}{\varepsilon_r}\vec{D} = \frac{\omega^2}{c^2}\vec{D} \tag{2.65}$$

$$\nabla\times\frac{1}{\varepsilon_r}\nabla\times\vec{H} = \frac{\omega^2}{c^2}\vec{H} \tag{2.66}$$

$$\nabla\times\frac{1}{\varepsilon_r}\nabla\times\vec{B} = \frac{\omega^2}{c^2}\vec{B}, \tag{2.67}$$

eremuak denborarekiko harmonikoak direla suposatuz. Gero, katearen erregela aplikatuz hiru dimentsioetako Maxwell-en ekuazioak ondorengo eran adierazi daitezke:

$$\frac{1}{\varepsilon_r}\left(-\frac{\partial^2 E_x}{\partial y^2} - \frac{\partial^2 E_x}{\partial z^2} + \frac{\partial^2 E_y}{\partial x\partial y} + \frac{\partial^2 E_z}{\partial x\partial z}\right) = \frac{\omega^2}{c^2}E_x \tag{2.68}$$

$$\frac{1}{\varepsilon_r}\left(-\frac{\partial^2 E_x}{\partial y^2} - \frac{\partial^2 E_x}{\partial z^2} + \frac{\partial^2 E_y}{\partial x\partial y} + \frac{\partial^2 E_z}{\partial x\partial z}\right) = \frac{\omega^2}{c^2}E_x \tag{2.69}$$

$$\frac{1}{\varepsilon_r}\left(-\frac{\partial^2 E_x}{\partial y^2} - \frac{\partial^2 E_x}{\partial z^2} + \frac{\partial^2 E_y}{\partial x\partial y} + \frac{\partial^2 E_z}{\partial x\partial z}\right) = \frac{\omega^2}{c^2}E_x, \tag{2.70}$$

$$\left(\frac{\partial}{\partial y}\frac{1}{\varepsilon_r}\right)\left(\frac{\partial H_y}{\partial x}-\frac{\partial H_x}{\partial y}\right)+\left(\frac{\partial}{\partial z}\frac{1}{\varepsilon_r}\right)\left(\frac{\partial H_z}{\partial x}-\frac{\partial H_x}{\partial z}\right)+\frac{1}{\varepsilon_r}\left(-\frac{\partial^2 H_x}{\partial y^2}-\frac{\partial^2 H_x}{\partial z^2}+\frac{\partial^2 H_y}{\partial x\partial y}+\frac{\partial^2 H_z}{\partial x\partial z}\right)=\frac{\omega^2}{c^2}H_x \tag{2.71}$$

$$\left(\frac{\partial}{\partial x}\frac{1}{\varepsilon_r}\right)\left(\frac{\partial H_x}{\partial y}-\frac{\partial H_y}{\partial x}\right)+\left(\frac{\partial}{\partial z}\frac{1}{\varepsilon_r}\right)\left(\frac{\partial H_z}{\partial y}-\frac{\partial H_y}{\partial z}\right)+\frac{1}{\varepsilon_r}\left(-\frac{\partial^2 H_y}{\partial x^2}-\frac{\partial^2 H_y}{\partial z^2}+\frac{\partial^2 H_z}{\partial y\partial z}+\frac{\partial^2 H_x}{\partial x\partial y}\right)=\frac{\omega^2}{c^2}H_y \tag{2.72}$$

$$\left(\frac{\partial}{\partial x}\frac{1}{\varepsilon_r}\right)\left(\frac{\partial H_x}{\partial z}-\frac{\partial H_z}{\partial x}\right)+\left(\frac{\partial}{\partial y}\frac{1}{\varepsilon_r}\right)\left(\frac{\partial H_y}{\partial z}-\frac{\partial H_z}{\partial y}\right)+\frac{1}{\varepsilon_r}\left(-\frac{\partial^2 H_z}{\partial x^2}-\frac{\partial^2 H_z}{\partial y^2}+\frac{\partial^2 H_x}{\partial x\partial z}+\frac{\partial^2 H_y}{\partial y\partial z}\right)=\frac{\omega^2}{c^2}H_z \tag{2.73}$$

$$-\frac{\partial^2}{\partial y^2}\frac{D_x}{\varepsilon_r}-\frac{\partial^2}{\partial z^2}\frac{D_x}{\varepsilon_r}+\frac{\partial^2}{\partial x\partial y}\frac{D_y}{\varepsilon_r}+\frac{\partial^2}{\partial x\partial z}\frac{D_z}{\varepsilon_r}=\frac{\omega^2}{c^2}D_x \tag{2.74}$$

$$-\frac{\partial^2}{\partial y^2}\frac{D_x}{\varepsilon_r}-\frac{\partial^2}{\partial z^2}\frac{D_y}{\varepsilon_r}+\frac{\partial^2}{\partial y\partial z}\frac{D_z}{\varepsilon_r}+\frac{\partial^2}{\partial x\partial y}\frac{D_x}{\varepsilon_r}=\frac{\omega^2}{c^2}D_y \tag{2.75}$$

$$-\frac{\partial^2}{\partial x^2}\frac{D_z}{\varepsilon_r}-\frac{\partial^2}{\partial y^2}\frac{D_z}{\varepsilon_r}+\frac{\partial^2}{\partial x\partial z}\frac{D_x}{\varepsilon_r}+\frac{\partial^2}{\partial y\partial z}\frac{D_y}{\varepsilon_r}=\frac{\omega^2}{c^2}D_z. \tag{2.76}$$

Ondoren, aurreko ekuazio hauetan deskribatzen diren eremuak Fourier serietan zabaldu ditzakegu sare periodikoen mugetan Bloch baldintzak ezarriz. 2.4 irudian aurkezten den 1D kristal fotonikoaren kasuan, materialaren konstante dielektrikoa, ε_r, x norabidean baino ez du aldakuntzarik jasotzen, eta beste norabideetan beraz, konstante izaten jarraitzen du. Arrrazoi hau dela eta, eremu elektriko eta magnetikoak ere konstante izango dira xy planoan zehar. Oro har, bi eremu hauen espazioarekiko deribatuak ezabatu egingo lirateke aurreko ekuazioetatik eta Maxwell-en ekuazioak ondorengo era sinplifikatuan adierazi ditzakegu:

$$\begin{gathered}
\frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial^2 E_y}{\partial x^2}+\frac{\omega^2}{c^2}E_y=0\\
\frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial^2 E_z}{\partial x^2}+\frac{\omega^2}{c^2}E_z=0\\
\frac{\partial}{\partial x}\left[\frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial H_y}{\partial x}\right]+\frac{\omega^2}{c^2}H_y=0\\
\frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial^2 H_z}{\partial x^2}+\frac{\omega^2}{c^2}H_z=0\\
\frac{\partial^2}{\partial x^2}\frac{D_y}{\varepsilon_r}+\frac{\omega^2}{c^2}D_y=0\\
\frac{\partial^2}{\partial x^2}\frac{D_z}{\varepsilon_r}+\frac{\omega^2}{c^2}D_z=0.
\end{gathered}$$

Bi ekuazio-sorta hauen simetria kontuan hartuz, eremuen ekuazioak lortzeko nahikoa da ekuazio hauetatik bakar bat ebaztea. Ekuazioen simetria, norabide normalean igortutako uhin bateko bi polarizazioen degenerazioak sortzen du, hori dela eta zoriz hautatutako E_z eta H_y osagaiak erabiliz jarraituko dugu azalpen hau.

$$\begin{aligned} \frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial^2 E_z}{\partial x^2} + \frac{\omega^2}{c^2}E_z = 0, \\ \frac{\partial}{\partial x}\left[\frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial H_y}{\partial x}\right] + \frac{\omega^2}{c^2}H_y = 0, \end{aligned} \tag{2.77}$$

Gainera, eremu magnetikoaren operadore diferentziala Hermitikoa da. Hau dela eta, ω^2/c^2 autobalioak errealak izango dira eta beraz, automaiztasuna bera duten eremuak ortogonalak izan beharko dira, operadore Hermitikoa erabiliz. Honela, kalkuloak are gehiago sinplifikatuko ditugu. H_y eremu hermitikoa duen ekuazioa erabiliz,

$$\frac{\partial}{\partial x}\left[\frac{1}{\varepsilon_r}\frac{\partial H_y}{\partial x}\right] + \frac{\omega^2}{c^2}H_y = 0, \tag{2.78}$$

Egitura periodikoaren dispertsio-erlazioa kalkulatzeko, 1D kristalaren plano periodikoa, hots x planoa, zeharkatuko duten uhin-zapal sorta bat kontsideratuko dugu. Kasu partikular honetan, ertzetako uhin-bektoreen osagaiak ezabatu daitezke, hau da $k_y = k_z = 0$, egitura honen periodizitatea dimentsio bakar batean soilik gertatzen bait da, eta beraz, k_x izango da ezabatzen ez den uhin-bektore bakarra. 1.2.2 atalean azaldu zan bezala, sarearen jatorrizko bektorea eta sare erreziprokoaren bektorea, a eta b, hurrengo eran adierazi daitezke, hurrenez hurren

$$\mathbf{a} = a\hat{i} \tag{2.79}$$

$$\mathbf{b} = b\hat{i} = \frac{2\pi}{a}\hat{i}. \tag{2.80}$$

Beste alde batetik, bektore erreziprokoaren lehenengo Brillouin gunea $[\frac{-\pi}{a}, \frac{\pi}{a}]$ tartera mugatuta dago eta 1BZ-ren zatiezina den gunea $[0, \frac{\pi}{a}]$ tartean definituta dago. 1D kristalaren simetria eta periodizitatea kontuan hartuz, x norabideko uhin-bektorearen konponentea Brillouin guneko gune zatiezinean definitu daiteke eta gero, ondorengo kalkuluak egindakoan, traslazio, rotazio eta islapen simetria operaketak aplikatuz, bektore reziprokoaren espazio osoan definituko ditugu ebaztutako eremuak [4, 85]. Banda diagramaren kalkuluekin jarraitzeko, espazio erreziprokoan definitutako konstate dielektrikoa, $1/\varepsilon_r$, zabalduko dugu, horretarako uhin plano sorta bat hedatuko dugu gelaxka-unitatean zehar [75]. Egituraren baldintza periodikoak adierazteko espazio osoan zehar, berriro ere Bloch baldintzak erabiliko ditugu. Horrela,

konstante dielektrikoa $\varepsilon_r = \varepsilon_r(x+a)$ moduan formulatuko dugu, eta beraz, eremuen ekuazioak ere funtzio dielektriko periodikoaren eta uhin-zapalen arabera formulatuko ditugu

$$\frac{1}{\varepsilon_r} = \sum_{n=-\infty}^{+\infty} \kappa(n) e^{jnbx} \tag{2.81}$$

$$H_y(k_x, x) = \sum_{m=-\infty}^{+\infty} h(k_x, m) e^{j(k_x+mb)x}, \tag{2.82}$$

non $h(k_x, m)$ uhin-zapal sortaren anplitudeak dira $e^{j(k_x+mb)x}$ adierazpenean. Hauek, m eta n zenbakiekin indizatuta daude, hurrenez hurren, eta b sare erreziprokoaren bektorearen modulua da, 2.79 ekuazioan definitutakoaren arabera. Funtzio dielektriko erreziprokoan zabaldutako Fourier koefizienteak $\kappa(n)$-ren bidez adierazten dira, eta hauek kalkulatzeko Fourier-ren alderantzizko transformatuen bidez kalkulatu daitezke

$$\kappa(n) = \frac{1}{a} \int_0^a \frac{1}{\varepsilon_r(x)} e^{-jnbx} dx \tag{2.83}$$

2.4 irudian erakusten den 1D kristal fotonikoaren kasu partikularrarekin jarraituz, konstate dielektriko periodikoa gelaxka-unitate sistema honen bidez berridatzi daiteke

$$\varepsilon(x) = \begin{cases} \varepsilon_1, & \text{for } 0 < x < c \\ \varepsilon_2, & \text{for } c < x < a \end{cases}$$

funtzio dielektriko hau erabiliz koefizienteak ondorengo moduan berridatziko ditugu

$$\kappa(n) = \frac{1}{a}\left(\int_0^c \frac{1}{\varepsilon_1} e^{jnbx} dx + \int_c^a \frac{1}{\varepsilon_2} e^{jnbx} dx \right) \tag{2.84}$$

(2.81) eta (2.82) ekuazioak (2.78) ekuazioan ordezkatuz eta uhin planoaren $e^{j(k_x+mb)x}$ faktoreari zero balioa aplikatuz $\ldots h_{-1}, h_0, h_1, h_2$ koefizienteen ekuazio linealak sortzen dira [76].

$$(k_x + bn)^2 h(k_x, m) - \sum_{m=-\infty}^{\infty} \left(\frac{\omega}{c}\right)^2 \kappa(n-m) h(k_x, m) = 0 \tag{2.85}$$

Hauen soluzioak aurkitzeko ω-k hurrengo baldintzak bete behar ditu

$$det\begin{bmatrix} \dots & \dots & \dots & \dots & \dots \\ \dots & (k-b)^2-\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_0 & -\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_{-1} & -\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_{-2} & \dots \\ \dots & -\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_1 & k^2-\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_0 & -\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_{-1} & \dots \\ \dots & -\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_2 & -\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_1 & (k-b)^2-\left(\frac{\omega}{c}\right)^2\kappa_0 & \dots \\ \dots & \dots & \dots & \dots & \dots \end{bmatrix} = 0. \tag{2.86}$$

Matrize honen tamainak k puntu bakoitzean lortuko diren autobalio kopurua finkatzen du. k aldatzen denean, autobalio bakoitza gradualki aldatzen da ere, $\omega_1(k)$, $\omega_2(k)$, $\omega_3(k)$, … funtzio jarraien arabera, 1D kristalaren sistemako banda-fotonikoen dispertsio-banden diagrama osatzeko. Horregaitik, $\omega_n(k)$ adierazpenean agertzen den n indizeari, banda-indizea ere esaten zaio [76].

2.4 irudiak Si materialez ($\varepsilon_1 = 11.56$) eta airez osaturiko hutsunez ($\varepsilon_2 = 1$) eta zabalera berdineko gerusez ($a = 2$) egindako *multilayer* baten banda diagrama aurkezten du. Dispertsio diagrama hau kalkulatzeko, 15 uhin lauak erabili izan dira, eta beraz, (2.86) ekuazioko matrizea n indizeko terminoak -12-tik 12-rako balioak ditu. Matrize sekularrean uhin lau gehiago erabiltzen direnean, maiztasun osagai gehiago kontuan hartuko dira eta dispertsio-diagraman uhin-luzeera laburragoeak ere adieraziko dira. Hortaz, dispertsio-diagraman maiztasun tarte handiagoa kalkulatu behar denean, matrize sekularraren tamaina handiagotu beharko da.

2.5 Denbora-domeinuko diferentzia finituen metodoa

Dembora-domeinuko diferentzia finituen metodoa (FDTD) uhin elektromagnetikoen inguruko problemak ebazteko erabiltzen diren metodoen artean gehien erabiltzen den metodo numerikoa da. FDTD metodoa Yee-k proposatu zuen 1996an [79] eta azken hamarkadan teknika honen ospeak gora egin du, gaur egungo ordenagailuetako baliabide konputazionalak handitu egin bait dira. FDTD metodoak nabarmenki frogatu du metodo boteretsu eta gaitasun anitzeko tresna dela, nahiz eta problema konkretu baten memoria baliabideen eskaera, simulatutako egituren bolumenarekin proportzionala den. FDTD metodoak handiak eta irregularrak diren egiturak, nahiz kristal fotonikoen kasuetan aurkitzen diren sistema periodikoen analisiak egitea ahalbidetzen du. Metodo hau Maxwell-en errotazionalen ekuazioetan oinarritzen da eta bereziki, ekuazio espazial eta denbora-ekuazioak bigarren ordeneko diferentzia finitoen bidez hurbiltzean datza. Abiapuntu hau jarraituz, domeinu konputazionala diskretizatu egiten da, problemak aztertzen dituen uhin-luzeerak baino txikiagoak diren tarteak osatzen dituen

sare bat erabiliz, eta bertako puntu guztietan materialaren propietateak zehazten dira. Jarraian, eremu elektrikoa, denboran eta espazioan desplazatutako eremu magnetikoarekin kalkulatzen da simulazio eskualdearen puntu guztietan [78].

FDTD metodoan eremuen iturriak zehaztu behar dira, gero eremu hauek eskualde konputazional osoa betetzen duen sare konputazionalaren denbora-espazio puntu guztietara hedatzeko. Horretarako, FDTD metodoan, denbora domeinuko iturri jarraiak, sinusoidalak eta monokromatikoak erabiltzen dira, gehien bat dispertsio-diagramak kalkulatzeko, nahiz iragankorrak diren iturriak, izpi gaussianoak edota dipolo itxurako iturriak erabiltzeko aukera dago, azken hauek sistemaren aspektu fisikoak aztertzeko erabilzen dira, esaterako, kristal fotoniko baten konfinatutako energia kalkulatzeko.

Metodoaren oinarri matematikoak aurkezteko, lehenbizi Maxwell-en ekuazioen diferentzia zentralaren adierazpenak deskribatuko ditugu, hauek bait dira FDTD formulazioaren ardatzak. Oinarri hauetatik abiatuz, PWE metodoan bezala, 1D kristal fotoniko baten Maxwell-en ekuazio diferentzialen kasua aztertuko dugu. Azkenik, atal honen bukaeran, 2D kristal fotoniko periodiko baten ekuazioetara helduko gara.

2.5.1 Maxwellen ekuazioen diferentzia zentralen adierazpenak

Lineala, isotropikoa eta kanpo iturririk ez duen sistema batean, Maxwell-en denboraren menpeko ekuazioak honela idatzi daitezke

$$\mu \frac{\partial \vec{H}}{\partial t} = -\nabla \times \vec{E}, \tag{2.87}$$

$$\varepsilon \frac{\partial \vec{E}}{\partial t} = \nabla \times \vec{H} - \sigma \vec{E}, \tag{2.88}$$

non μ, ε, σ, $\vec{E}$ eta $\vec{H}$ permeabilitatea, konduktibitatea, permitibitatea eta denboraren menpeko eremu elektriko eta magnetikoak diren, hurrenez hurren. Erabili dezagun horain f funtzio bat denbora eta espazioaren araberako eremu-osagaiak izendatzeko, hau da $f = f(u, v, w, t)$. Espazioaren araberako diferentzia koordinatu sistema honetan Δu, Δv, eta Δw diferentziak erabiliz adierazi daitezke, eta bitartean, denboraren araberako diferentziak Δt aldakuntzarekin izendatuko dira. Beraz, espazioaren eta denboraren araberako deribatuen hurbilketa puntu diskretuetan, bi puntu tarteen arteko diferentzia finituen bidez egin daiteke, bigarren ordeneko zehaztasunarekin

$$f(u, v, w, t) = f(i\Delta u, j\Delta v, k\Delta w, n\Delta t) = f^n_{i,j,k}. \tag{2.89}$$

Hemen, diferentzia zentralaren adierazpenean n azpi-indizearen notazioa erabili da denboraren indizea zehazteko eta i, j, k azpi-indizeak erabili ditugu espazioaren indizeak adierazteko.

Soilik f-ren lehenengo deribatuak kontsideratu ezkero, u espazioko indize eta $n\Delta t$ denbora tarte zehatzan aztertu ezkero [75, 79],

$$\frac{\partial f(i\Delta u, j\Delta v, k\Delta w, n\Delta t)}{\partial u} = \frac{f^n_{i+1/2,j,k} - f^n_{i-1/2,j,k}}{\Delta u} + O[(\Delta u)^2], \tag{2.90}$$

non $\pm(1/2)$ gehikuntzak f funtzioaren diferentzia finitua adierazten du $\pm(1/2)\Delta u$ tartean, u koordinatuaren i indizean, eta bitartean, azken terminoa, bigarren ordeneko eta orden handiagoko terminoak batzeko erabiltzen da Δu-n. Notazio honek, eremu elektriko eta magnetikoak espazioan banatzen ahalbidetzen du, eremu hauek tartekatuz espazioaren sarean, $\Delta u/2$-ko tarteetan. Ondorioz, E eremu elektrikoa ondoz ondoko H eremu puntuen tarteen arteko diferentizaren bidez kalkulatu daiteke eta banatze distantzia hau Δu izango da beti ere. Beste alde batetik, f-ren denboraren araberako lehenengo deribatu partziala, sarearen (i, j, k) puntuan

$$\frac{\partial f(i\Delta u, j\Delta v, k\Delta w, n\Delta t)}{\partial t} = \frac{f^{n+1/2}_{i,j,k} - f^{n-1/2}_{i,j,k}}{\Delta t} + O[(\Delta t)^2], \tag{2.91}$$

izango da. Kasu honetan, aldakuntzaren erdiak n denbora-indizeetan ematen dira. Algoritmoak beraz, eremu elektrikoak eta magnetikoak kalkulatzen ditu, denbora-pausuak txandakatuz, denbora tarteak $\Delta t/2$ izanik.

2.5.2 Dimentsio bakarreko kasua: TEM modua

Algoritmoaren formulaketa hau eredu sinple batez azaltzeko, espazioaren indize kopurua bakar batera mugatuko dugu eta arbitrarioki eremuen hedakuntzan galerarik ez dagoela suposatuko dugu ($\sigma = 0$), eta demagun iturri hau z norabidean hedatzen dela x ardatzeko polarizazioarekin. Beraz, berezitasun hauen arabera, Maxwell-en ekuazioak eremu elektriko eta magnetikoentzat ondokoak lirateke

$$\frac{\partial E_x}{\partial t} = \frac{-1}{\varepsilon}\frac{\partial H_y}{\partial z} \tag{2.92}$$

$$\frac{\partial H_y}{\partial t} = \frac{-1}{\mu}\frac{\partial E_z}{\partial z}. \tag{2.93}$$

Jarraian, diferentzia finitoen hurbilketa zentrala aplikatuz ekuazio hauetan, eta Δx eta Δt espazio eta denbora diskretuen tarteetan:

$$\frac{E_x^{n+1/2}(k) - E_x^{n-1/2}(k)}{\Delta t} = \frac{-1}{\varepsilon}\frac{H_y^n(k+1/2) - H_y^n(k-1/2)}{\Delta z}, \tag{2.94}$$

$$\frac{H_y^{n+1/2}(k) - H_y^n(k+1/2)}{\Delta t} = \frac{-1}{\mu}\frac{E_x^{n+1/2}(k+1) - E_x^{n+1/2}(k)}{\Delta z} \tag{2.95}$$

(2.94) eta (2.95) ekuazioetatik eta 1D kasuaren 2.5 irudian erakusten den Yee-ren eskemaren arabera, E eremuaren deribatuak $n\Delta t$ denboran, diferentzia zentralaren bidez adierazi daitezke E eremuaren balioak $\left(n+\frac{1}{2}\right)\Delta t$ denboretan erabiliz. Bereziki, (2.94) ekuazioaren ezkerreko



2.5. Irudia Dimentsio bakar bat aztertzerako orduan, Yee-ren eskemak hemen adierazi den eskema sinplearen itxura hartzen du. E eta H eremuak espazioan eta denboran konfigurazio hau jarraituz kalkulatuko dira.

terminoak, $\frac{\partial E_x}{\partial t}$ ekuazio zatiak E eremuaren diferentzia zentralaren hurbilketaren bidez ordezkatu daitekeela adierazten du, $\frac{\left(n+\frac{1}{2}\right)}{\Delta t}$ eta $\frac{\left(n-\frac{1}{2}\right)}{\Delta t}$ denbora tarteetan, hurrenez hurren. Ekuazioaren eskumako terminoak, H eremuari aplikatzen dio diferentzia zentralaren hurbilketa espazioko $\frac{\left(k+\frac{1}{2}\right)}{\Delta x}$ eta $\frac{\left(k-\frac{1}{2}\right)}{\Delta x}$ puntuetan, hurrenez hurren. Prozesu hau salto edo *leap frog* algoritmo izenez ere ezagutzen da, Maxwell-en ekuazioen espazio eta denborako hurbilketak egiteko lehenbizi H eremu magnetikoaren ekuazioak ebatzi behar diralako, jarraian E eremuko balio guztiak kalkulatzeko, E eta H eremuak espazioan $\frac{\Delta x}{2}$ tartez banatuta daudela jakinda. 2.5 irudiak *leap frog* algoritmoaren eskema aurkezten du. Hemendik abiatuz, (2.94) eta (2.95) FDTD ekuazio esplizituak erabiliz lortu daitezke

$$E_x^{n+1/2}(k) = E_x^{n-1/2}(k) + \frac{\Delta t}{\varepsilon \Delta z}(H_y^n(k-1/2) - H_y^n(k+1/2)) \tag{2.96}$$

$$H_y^{n+1}(k) = H_y^n(k+1/2) + \frac{\Delta t}{\mu \Delta z}(E_x^{n+1/2}(k) - E_n^{n+1/2}(k+1)). \tag{2.97}$$

E eta H eremuen anplitude ezberdinak sortzen dituzten errore numerikoak murrizteko, A.-Taflove-k normalizazio faktore bat proposatu zuen, E eremuak maila berdineko magnitudea

izan dezan [86]:

$$\tilde{E} = \sqrt{\frac{\varepsilon_0}{\mu_0}} E, \tag{2.98}$$

Beraz, normalizazio faktore hau erabiliz (2.94) eta (2.95) ekuazioetan, eta $\sim E$ baztertuz

$$E_x^{n+1/2}(k) = E_x^{n-1/2}(k) + \frac{1}{\sqrt{\varepsilon\mu}} \frac{\Delta t}{\Delta z} (H_y^n(k-1/2) - H_y^n(k+1/2)) \tag{2.99}$$

$$H_y^{n+1}(k) = H_y^n(k+1/2) + \frac{1}{\sqrt{\varepsilon\mu}} \frac{\Delta t}{\Delta z} (E_x^{n+1/2}(k) - E_n^{n+1/2}(k+1)) \tag{2.100}$$

2.5.3 Bi dimentsioko FDTD metodoa

Bi dimensioko FDTD metodoaren oinarriak erakusteko, atal honetan, z norabidean aldaezina den koordenatu sistema baten kasu partikularra aurkezten da. Beraz, z norabideko deribatu partzialak ezabatu daitezke Maxwell-en ekuazioetatik

$$-\frac{\partial E_z}{\partial y} = \mu_0 \frac{\partial H_x}{\partial t} \tag{2.101}$$

$$\frac{\partial E_z}{\partial x} = \mu_0 \frac{\partial H_y}{\partial t} \tag{2.102}$$

$$\frac{\partial H_y}{\partial x} - \frac{\partial H_x}{\partial y} = \varepsilon \frac{\partial E_z}{\partial t} + \sigma E_z \tag{2.103}$$

$$\frac{\partial H_z}{\partial y} = \varepsilon \frac{\partial E_x}{\partial t} + \sigma E_x \tag{2.104}$$

$$-\frac{\partial H_z}{\partial x} = \varepsilon \frac{\partial E_y}{\partial t} + \sigma E_y \tag{2.105}$$

$$\frac{\partial E_x}{\partial y} - \frac{\partial E_y}{\partial x} = \mu_0 \frac{\partial H_z}{\partial t}. \tag{2.106}$$

Berriro ere material ez magnetikoak, hau da $\mu = \mu_0$, hausnartzen ditugu, kristal fotoniko gehienetan ontzat hartu dezakegun sinplifikazio bat bait da, hain zuzen ere, uhin-luzeera optikoak aztertzen ditugunean. Aurreko bi ekuazio multzoetan, (2.101) eta (2.104) ekuazioak, eremu elektriko eta magnetikoen osagai bertikalak eta planoan hedatzen diren osagaiarekin erlazionatzen dituzte. (2.101) ekuazioetako kasu partikularrerako, E_z eremua da z norabideko osagai bakarra. Eremu magnetikoen kasurako, H_x eta H_y, xy planuko osagaiak dira. Beraz, osagai hauek TM polarizazioko moduak direla esango dugu. Beste alde batetik, (2.104) ekuazioetan TE polarizazioko osagaiak aurkituko ditugu. TM moduaren ekuazio diferentzialak



2.6. Irudia Yee-ren sarea bi dimentsioko (a) TM eta (b) TE moduen kasuetarako, hurrenez hurren. Geziek planoan hedatzen diren eremuen osagaiak adierazten dituzte, aldiz, zirkuluek planotik kanpoko norantzako konponenteak bereizten dituzte. Eremuen puntuak tartekatuta daude, $\frac{\Delta_x}{2}$ eta $\frac{\Delta_y}{2}$ banaketa erabiliz, TM eta TE sareetarako, hurrenez hurren.

diferentzia zentralaren adierazpenak erabiliz lortu daitezke

$$H_x|_{i,j}^{n+1/2} = H_x|_{i,j}^{n-1/2} - \frac{1}{\mu_0}\frac{\Delta t}{\Delta y}(E_z|_{i,j+1/2}^{n} - E_z|_{i,j-1/2}^{n}) \tag{2.107}$$

$$H_y|_{i,j}^{n+1/2} = H_y|_{i,j}^{n-1/2} - \frac{1}{\mu_0}\frac{\Delta t}{\Delta x}(E_z|_{i,j+1/2}^{n} - E_z|_{i,j-1/2}^{n}) \tag{2.108}$$

$$E_z|_{i,j}^{n+1} = \frac{\varepsilon_{i,j} - \sigma_{i,j}\Delta t/2}{\varepsilon_{i,j} + \sigma_{i,j}\Delta t/2} E_z|_{i,j}^{n} + \frac{\Delta t}{\varepsilon_{i,j} + \sigma_{i,j}\Delta t/2}\left(\frac{H_y|_{i+1/2,j}^{n+1/2} - H_y|_{i-1/2,j}^{n+1/2}}{\Delta x} - \frac{H_x|_{i,j+1/2}^{n+1/2} - H_x|_{i,j-1/2}^{n+1/2}}{\Delta y}\right) \tag{2.109}$$

non eremu elektrikoaren osagaiak $t = \frac{n}{\Delta t}$ denbora-tarteetan eta eremu magnetikoaren konponenteak $t = \frac{n+\left(\frac{1}{2}\right)}{\Delta t}$ tarteetan ebaluatzen bait dira. Jarraian, TE modurako, diferentzia

zentralaren formulazioa aplikatuz, ondorengo adierazpen diferentzialak lortuko dira

$$E_x|_{i,j}^{n+1} = \frac{\varepsilon_{i,j} - \sigma_{i,j}\Delta t/2}{\varepsilon_{i,j} + \sigma_{i,j}\Delta t/2} E_x|_{i,j}^{n} + \frac{\Delta t}{\varepsilon_{i,j} + \sigma_{i,j}\Delta t/2} \left(\frac{H_z|_{i,j+1/2}^{n+1/2} - H_z|_{i,j-1/2}^{n+1/2}}{\Delta y} \right) \tag{2.110}$$

$$E_y|_{i,j}^{n+1} = \frac{\varepsilon_{i,j} - \sigma_{i,j}\Delta t/2}{\varepsilon_{i,j} + \sigma_{i,j}\Delta t/2} E_y|_{i,j}^{n} + \frac{\Delta t}{\varepsilon_{i,j} + \sigma_{i,j}\Delta t/2} \left(\frac{H_z|_{i+1/2,j}^{n+1/2} - H_z|_{i-1/2,j}^{n+1/2}}{\Delta y} \right) \tag{2.111}$$

$$H_z|_{i,j}^{n+1/2} = H_z|_{i,j}^{n-1/2} + \frac{\Delta t}{\mu_0} \left(\frac{E_x|_{i,j+1/2}^{n} - E_x|_{i,j-1/2}^{n}}{\Delta y} - \frac{E_y|_{i+1/2,j}^{n} - E_y|_{i-1/2,j}^{n}}{\Delta x} \right) \tag{2.112}$$

Kapitulua 3

Sare infinitu eta finituen simulazio numerikoa

Orain arte, aurreko kapituluaetan kristal fotonikoen fisikan murgildu gara eta material bitxi hauen ezaugarriak simulatzeko metodo numerikoak deskribatu ditugu. Atal honek ordea, bi dimentsioko kristal fotonikoen azterketarako elementu finituen metodoaren azterketa kritiko bat jorratzen du. FE, PWE eta FDTD metodoen bitartez, banda-egitura fotonikoak, transmisio koefizienteak eta kalitate faktoreak kalkulatzen dira bi dimentsioko egitura periodiko eta aperiodikoentzat. Atal honetan aurkezten denez, FE metodoa, orain arte pentsatu denaren kontra, *Plane Wave* metodoaren autobalioen bitartez lortu daitezkeen emaitzen heineko emaitzak erreproduzitzeko gai den teknika da; izan ere, hemen aurkezten diren emaitzei begiratuz, banda-egiturak edota estatu fotonikoen dentsitateak kalkulatzeko tresna egokia dela ondorioztatu daiteke. Gainera konplexutasun arbitrarioko kluster finitoetan, eremu elektromagnetikoen denbora-harmonikoen hedapena ikertzeko baliabide erosoa da eta transmisio koefizienteak era erraz batean kalkulatzea ahalbidetzen du.

Gainera, espazio errealeko metodo hau, puntu-akatsen kalitate faktorearen kalkulurako ere erabil genezake. Azken hauek FDTD metodoarekin lortutako emaitzekin konparatzen dira. Ondorioz, FE metodo numerikoa, material konplexuetan hedatzen den argiaren azterketarako metodo numeriko fidagarria, sendoa eta zorrotza dela aurkitu dugu, egitura periodiko eta aperiodikoetan aplikatzen denean.

3.0.1 Lan honetan erabilitako FE metodoaren inplementazioa

Elementu finitoen metodoaren inplementazio libre ugari daude gaur egun [80–82], hala eta guztiz ere, gehienak elektromagnetismora, magnetoestatikara, antenen diseinura eta elektroestatikara bideratuak. Hau dela eta, kapitu honetan deskribatzen diren kalkuluak aurrera

erameteko, FE metodoaren inplementazio komertzial bat erabiltzea erabaki dugu, bereziki COMSOL multiphysics paketea [83] erabili dugu. Software hau erabiltzaearen arrazoien artean, bere CAD inguruneak egitura konplexuak sortzeko bide ezin hobea ematen duelako da. Bertan, simulatuko den egitura sortzeko tresnak ematen dira, uhin elektromagnetikoen hedapena kalkulatzeko ebazpen moduloa gehitzen du (2D eta baita 3D sistemetarako), post-prosezaketa eta eratze moduluak ditu eta MATLAB softwarrarekin lotu daiteke modu erraz batean.

Bi dimentsioetan, COMSOL-ek sare ez-egituratuak (sareko elementu triangeluarrak erabiliz) sortzeko sare eragile bat erabiltzen du Delaunnay algoritmoetan oinarritzen dena. Sarea sortu eta gero, aldagai dependienteak funtzio baten bidez (forma funtzioak) hurbiltzen dira. Hauek parametro kopuru finitu batzuen bidez deskribatu daitezke, *degrees of freedom/ askatasun graduak* deitutakoak. Hurbilketa hauek ekuazio originaletan sartuz, askatasun gradu hauentzat ekuazio sistema bat sortzen du eta ekuazio hauek *solver* edo ebazle egokiarekin ebatzi daitezke. Bereziki, hemen aurkeztuko den lehenengo problemarako, forma-funtzioak bigarren graduko Lagrange elementuak dira eta problema linealaren ebazketarako UMFPACK [84] ebazlea erabiltzen da, sistema ez simetrikoetan etekin haundiko ebazlea bait da.

Aldi berean, *Plane Wave* metodoarekin konparatzeko, MIT Photonic-Bands (MPB) softwarra erabili da, kristal fotonikoen ikerketan ohikoa [85]. Software hau guztiz bektoriala da, egitura dielektriko anisotropikoekin lan egin dezake eta gelaxka-unitate ez-ortogonalak erabiltzeko aukera aurkezten du. Gainera, konputazio paraleloa erabili daiteke, MPI-ren bitartez eta erabiltzaileak egitura dielektrikoaren ezaugarriak deskriba ditzake *script* lengoai baten bidez idatzitako kodeak sortuz. Azkenik, FE metodoaren bitartez egitura finito eta aperiodikoetan lorturiko kalitate faktoreak baieztatzeko, *harmonic inversion* metodoarekin eta FDTD [68] metodoarekin konparatu dira, azken software hauek ere MIT-en garatutakoak.

3.1 Sare karratuan oinarrituriko kristal fotonikoen simulazioen emaitzak

Lan honetan aztertutako lehenengo egitura sare karratu baten kokatutako elementu dielektriko zirkularrez osatuta dago, 3.1 irudian erakusten den modukoa. Material dielektrikoa lineala, isotropikoa eta ez-magnetikoa dela suposatzen da[1]. Zutabe zirkular hauen konstante dielektrikoaren balioa 9 da. $\frac{r}{a}$ erlazioa 0.38-koa da, non r zilindroaren erradioa bait da eta a sare parametroa. Guztiz ezaguna den egitura hau McCall-ek [94] aztertu zuen lehenengoz. Bertan,

[1] Hemendik aurrera erakusten diren materialetan ere kontsiderazio hauek inposatu dira

argiaren lokalizazioaren predikzio teorikoen eta emaitz esperimentalen arteko konparaketa zorrotza aurkeztu zuen.

Gure kasuan, topologia hau FE metodoaren eraginkortasuna frogatzeko hautatu dugu eta horretarako PWE metodoarekin konparatuko dugu, azken hau banda fotonikoen egitura kalkulatzeko metodoa bait da. Lehenengo bederatzi banda fotonikoak polarizazio transbertzal elektrikoarentzat (TE) kalkulatu ditugu, lehenengo Brillouin guneko (1BZ) ertzak delimitatzen dituzten mugetan zehar. FE kalkuluetarako, gelaxka-unitate karratua 3720 sare-elementuetan zatitu da eta Bloch-en teoremaren araberako muga-baldintza periodikoak inposatu dira gelaxka-unitatearen mugetan. MPB bidezko kalkuluetarako, 64×64 (= 4096) zatietan banatutako erresoluzioa duen sare bat osatu dugu, eta konstate dielektrikoa 9 sare-elementuetan zatitu da. Kalkulatutako banda fotonikoen egitura 3.1. irudian erakusten da. Ohikoa denez, $\omega a/2\pi c = a/\lambda$ dimentsiorik gabeko kantitatea erabili da igortutako uhin eleketromagnetikoaren maiztasuna karakterizatzeko; ω igorritako uhin elektromagnetikoaren maiztasuna eta λ uhin-luzeera direlarik.

Eremu elektrikoaren z norabidean, E_z, autobalioak kalkulatu dira 1BZ-ko simetria puntuetan, batik bat, Γ, M, eta K puntuetan eta 3.1 irudian adierazten dira. Irudi hau aztertuz, FE metodoaren bidez kalkulatutako banda fotonikoen egitura modu zehatz baten MPB-ren bidez lortutako diagrama bera aurkezten duela ondorioztatzen da. Hiru gap fotoniko zabaltzen dira egitura honetan eta hauen zabaleraren definizioan ere bi metodo numerikoak bat datoz. Gainera, FE metodoa erabiliz lortutako moduak eta MPB-ren bidez lortutakoak guztiz pareko eremuak aurkezten dituzte, soilik simetria operaketa tribial batez edota modu degeneratuen konbinaketa linealez ezberdintzen direnak.

Nahiz eta bi metodo hauen zehaztasuna eta arintasuna konparatzea ez den lan honen helburu nagusia, ezinbestekoa da honelako konparaketa bat burutzea FE metodoaren etekinaren erreferentzia bat edukiteko. MPB metodoarekiko zehaztasun erlatiboa kalkulatzeko, X simetria puntuaren bederatzigarren bandako autobalorearen errorea kalkulatu dugu, sare karratuko gelaxka-unitatearen diskretizazioaren elementu kopurua handitzen genuen bitartean. FE metodoaren kasuan, 254, 414, 928, eta 1502 elementu dituzten sare ezberdinak erabili dira eta MPB kalkuluetarako, 16×16 (= 256), 32×32 (= 1024), 48×48 (= 2304), eta 64×64 (= 4096) elementuetako sareak erabili dira. MPB-ren bidez 256×256-eko erresoluzioaz eta 25-eko sarearekin kalkulatutako autobalioak hartu ditugu erreferentzia zehatz moduan.

Konparaketaren emaitzak 3.2.a irudian erakusten dira. Azpimarragarria da FE metodoaren bidez lortutako emaitzak zehaztasun handiagoa eskuratzen duela konputazio MPB-ko metodoan erabilitako sare trinkoagoa aplikatzen denean. Emaitz hau bigarren ordeneko Lagrange elementuak erabiltzean lortzen da. Hala eta guztiz ere, bi metodoen arteko diferentziak arbuiagarriak dira aplikazio gehienetarako. Noski, FE metodoak lortutako zehaztasun honek



3.1. Irudia Ezkerrean: MPB (zirkulu urdinak) erabiliz eta COMSOL (zuzen gorriak) erabiliz kalkulatutako banda-egitura TE polarizatutako uhin elektromagnetikoentzat. Eskuman: MPB-ren bidez kalkulatutako E_z moduen patroiak gelaxka-unitatean (laukizuzen bakoitzeko goiko errenkadan) eta COMSOL-en bidez lortutakoak, simetria puntu berezietarako, hau da, Γ, *X*, eta *M* puntuetarako.



3.2. Irudia (a) Sarearen diskretizazioa egiteko erbilitako sare-elementu kopuruen araberako errore erlatiboaren eboluzioa. (b) Sarearen diskretizazioa egiteko erebilitako sare-elementu kopuruen araberako beharrezkoa izan den simulazio denboraren eboluzioa.

konputazio denbora gehiago eskatzen du, MPB metodoarekin konparatuz, 3.2.b irudian ikusi daitekeen bezala. Bertan, sarearen elementu kopuruaren araberako simulazio-denboraren garapena aurkezten da FE eta MPB metodoentzat, hurrenez hurren.

FE metodoaren bidez kristal fotoniko finituaren transmitantzia kalkulatu daiteke baita ere. Horretarako 9×9 tamainako airez inguratutako material dielektrikoko zilindroz osatutako kluster bat eraiki da. Bertan, TE polarizatutako argia hedatzen da ΓX norabidean. Kalkulu hau egiteko, 9×9-ko material dielektrikoen zilindroak 19140 sare-elementuetan diskretizatu dira[2]. Honek esan gura du konputazio honen eremu elektromagnetikoaren uhin-luzeera txikienarentzat ere ($\lambda_{\min} \approx a$) 15 sare-elementu inguru ($\omega a/2\pi c = a/\lambda = 0.25$-rentzat ≈ 35 elementu) egongo dira.

Kluster honen transmitantzia kalkulatzeko adierazpena

$$T = \frac{1}{L_y}\int_0^{L_y} E_z(L_x,y)\times E_z^*(L_x,y)\,dy, \tag{3.1}$$

eta L_α, norabidearen luzeera da α. kanpo mugan($\alpha = x,y$) norabidean. Simulazio-domeinu honen muga baldintzak honela ezarri dira: sarrera eta irteerako mugetan (ezkerreko eta eskumako mugetan, hurrenez hurren) *perfectly matched layers* baldintzak ezarri dira fisikoak ez diren erreflekzio espurioak ekiditzeko. Eremu elektrikoaren z konponenteak 1 eta 0 balioa hartzen du, simulazioaren hasierako baldintzetan, sarrera-mugan eta irteera-mugetan, hurrenez hurren.

[2]Izan ere 27644, 30392, eta 44876 sare-elementuz osatutako simulazio domeinuak ere erabili dira baina transmitatziaren ebazpenean ez da aldakuntza nabaririk aurkitu

Beste alde batetik, eroankortasun magnetiko perfektuko muga-baldintzak ezarri dira goiko eta beheko simulazio-mugetan, eremu magnetikoaren osagai tangentziala deusezteko [3], honela norabide hauetan klusterra infinituraino luzatzen dela egokitzeko.

3.3 irudiak transmitantziaren kalkulua erakusten du, kluster honetan 3.1 ekuazioa aplikatuz lortutako $[0,0.8]$ maiztasunen tartean. ΓX norabidean kalkulatutako banda-egitura ere erakusten da bertan, transmitantziak iruditutako espektroaren konparaketa egiteko. Modu honetan, transmitantziaren espektroak gap fotonikoak argi errepikatzen dituela nabaritzen da. Beste alde batetik, $\frac{\omega a}{2\pi c} = 0.4$ eta 0.7 maiztasun-tarteen inguruan soilik modu antisimetrikoak existitzen dira eta beraz, ezin dira igorritako uhin elektromagnetikoen bitartez sustatu eta beraz, banda-diagramako maiztasun tarte opakoetan aurkitzen dira. Gertaera hau sakonki aztertzen du Sakodak [5]. Zoritxarrez, MPB-ren bidez ezin daiteke transmitantzia-kalkulurik egin eta hortaz, ezinizezkoa da bi metodoen konparaketa zehatzago bat egitea aspektu honetan. 3.3 irudiko eskumaldean E_z moduaren hiru patroi aurkezten dira, a/λ maiztasun ezberdinetarako. Behekaldean irudikatutako modua $a/\lambda = 0.1$ maiztasunaren patroia aurkezten du. λ honetan, dispertsio linealaren inguruan aurkitzen denez, eremuaren patroiak ingurune homogeneo baten zehar hedatzen den uhin lau baten itxura bera du. Erdiko aldean dagoen eremuaren patroiak ordea, $a/\lambda = 0.45$ maiztasunerako kalkulatu da eta gap fotonikoan murgildutako eremuaren itxura karakteristikoa aurkezten du: eremua esponentzialki murrizten da argia kristalan zehar hedatzen den heinean, eta beraz, transmitantziaren balioa bertan zero da. Azkenik, $a/\lambda = 0.75$-eko patroi konplexuak egituraren izaera inhomogeneoaren irudi karakteristikoa aurkezten du.

3.2 Sare triangeluarran oinarritutako kristal fotonikoen simulazioen emaitzak

Kristal fotonikoen egituretan, ohikoa den beste egitura bat sare triangeluarraz osaturikoa da, sare hau aplikazio praktiko gehienetan erabiltzen bait da [4]. Arrazoi hau dela eta, garrantzitsua da FE metodoak emaitz zehatzak lortzen dituen jakitea ez-ortogonala den sare honetan. Horretarako, banda fotonikoen egitura eta transmizio-koefizienteak kalkulatu ditugu sare triangeluarran oinarritutako kristal fotoniko sorta batentzat. Kalkulu hauek ere MPB-ren bidez lortutako emaitzekin konparatu dira, metodoaren zehaztasuna frogatzeko. Konparaketa hori ez denez posiblea egitea transmitantzia emaitzetarako, lehenengo atalean deskribatutako pauso berdinak jarraitu ditugu, gap fotonikoen eta transmitantziaren espektroaren arteko zuzenezko erlazioak bilatuz. Ondorengo simulazio guztietan 12 balioa duen konstante

[3] Beste muga baldintza batzuk ere frogatu izan dira goiko eta beheko mugetan eta transmisio espektroan ez da aldaketa nabaririk sumatu



3.3. Irudia Sare karratuan antolatutako eta airez inguratutako zutabez osatutako kristal fotonikoaren dispertsio-diagramaren (ezkerraldean) eta transmitantzia-diagramaren (erdikaldean) arteko konparaketa. Diagrama hauetan TE-polarizatutako uhin elektromagnetikoak ΓX norabidean kontsideratu dira. Banda-egituran agertzen diren zuzen etenak akoplatu ezin diren moduak adierazten dituzte. Irudiaren xehetasunean transmitantzia kalkulatzeko erabili den kristal fotonikoaren klusterra erakusten da. Zirkulu urdinak material dielektrikoa adierazten dute eta karratuak simulazio-eskualdearen mugak erakusten ditu. Eskumaldean E_z eremuaren hiru patroi erakusten dira, $\omega a/2\pi$-ren hiru baliorentzat, 0.1, 0.45, eta 0.75, azpitik gora, hurrenez hurren.

dielektrikoko materiala erabili da. Atal honetan aztertu den lehenengo egitura fotonikoa, sare hexagonal baten antolatutako eta airez inguratutako zilindro dielektrikoz osatutako sistema da (ikusi 3.4 irudiko xehetasuna). Zilindro hauen erradioa $0.12a$ da. Simulazioaren konfigurazioa sare karratuan erabilitakoaren oso antzekoa da: FE banda fotonikoen kalkulurako, gelaxka-unitate 1086 elementuetan zatitu da eta muga-baldintza periodikoak ezarri dira simulazioaren ertzetan. ΓM norabidean kalkulatutako transmitantziaren emaitzak lortzeko, 12×8-ko gelaxka-unitate dituen kluster bat sortu da eta hau 60748 sare-elementuetan zatitu da. ΓK norabidean kalkulatutako transmitantzia lortzeko, 11×10-ko gelaxka-unitate dituen klusterra erabili da 67282 sare-elementuetan banandua izan dena. Sare karratuan erabilitako muga-baldintza berak erabili ditugu kasu honetan ere. 3.4 irudian banda fotonikoen egitura, ΓM eta ΓK norabideetan transmitantzia espektroa eta baita TE polarizatutako uhin elektromagnetikoen eremu patroiak erakusten dira. FE metodoaren bidez kalkulatutako banda-egiturak era oso fidagarri baten erreproduzitzen ditu MPB-ren bidez lortutako emaitzak. Egitura honek, TE polarizazioarentzat, lehenengo eta bigarren banden artean gap bat aurkezten du eta gap hau argi ikus daiteke ere transmizio espektroa aztertuz gero, bai ΓM, eta baita ere ΓK norabideetan marrazten bait ditu opakoak diren maiztasun tarte hauek.

Gainera, badaude beste gap partzial batzuk ere, bigarren eta hirugarren banden artean, nahiz laugarren eta bostgarren banden artean agertzen diren modukoak. Hauek ΓM norabidean ikus daitezke, baina ΓK norabidean aldiz, desagertzen dira. Beste alde batetik, gap hauekin erlaziorik ez duten gune opakoak ere badaude. Banda-egituran agertzen diren gune opako hauek akoplatu ezin diren moduekin erlazionatzen dira, bostgarren bandan agertzen denaren modukoa, ΓK norabidean desakoplatuta dagoena.

Sare hexagonalean aztertutako bigarren egitura $r = 0.25a$ erradioko zilindro dielektrikoz osaturiko sistema da (ikusi 3.5-an adierazten den egituraren xehetasunak) eta kasu honetan TM polarizatutako uhin elektromagnetikoaz irradiatutako fenomenoak aztertu ditugu. Banda fotonikoen egitura kalkulatzeko, 942 sare-elementu erabili dira. Nahiz eta sare-elementu kopuru hau baxua den, konputazioaren zehaztasun-maila harrigarria da, MPB-rekin konparatu ezkero, 3.5 irudian ikus daitekeen moduan. Gainera, FEM-en bidez kalkulatutako H_z modu-patroiak eta MPB-ren bidez kalkulatutakoak guztiz bat datoz.

Transmitantziaren kalkuluetarako orain arte jarraitutako pausu berdinak errepikatu ditugu, baina kasu honetan PEC muga baldintzak erabili dira goiko eta beheko mugetan, kristalaren muga fisikoak infinituraino luzatzearen efektu bera sortzeko. Horretaz aparte, transmitantzia kasu honetan honela definitu dugu

$$T = \frac{1}{L_y} \int_0^{L_y} H_z(L_x, y) \times H_z^*(L_x, y)\, dy. \tag{3.2}$$



3.4. Irudia Ezkerrean: Xehetasunean agertzen den kristal fotonikoaren klusterrean burututako TE-polarizazio duten uhinen transmitantzia diagrama Γ*M* norabidean. Erdiko partean: COMSOL (zuzen gorriak) eta MPB (zirkulu urdinak) erabiliz lortutako banda-egituraren arteko konparaketa TE polarizatutako uhin elektromagnetikoentzat 1BZren mugettan zehar. Irudiaren barneko xehetasunean kalkulu hauek burutzeko erabili dan gelaxka-unitatea aurkesten du. Eskuman: Γ*K* norabidean kalkulatutako transmitantzia TE polarizazio duten uhin elektromanetikoentzat, xehetasunean agertzen den kluster hexagonalean kalkulatu da. Rektangulo berdearen barruan: MPB (ezkerrean) eta FE (eskuman) metodoak erabiliz, *M* puntuan kalkulatutako E_z eremu patroien arteko konparaketa, lehenengo zortzi bandetarako (banda indizeak azpitik gora ordenatuta daude).

ΓM eta ΓK norabideetan erabilitako sare-elementu kopuruak, 37760 eta 42270 izan dira, hurrenez hurren. Aztertutako egitura honek ez du gap osorik aurkezten maiztasun tarte honetarako behintzat. Aitzitik, gap partzial batzuk aurkezten ditu, 3.5 irudiko transmisio espektroak adierazten duen bezala.

Sare hexagonalean oinarritutako hirugarren egiturak, dielektriko xafla baten zulotutako eta airez betetako zilindroz osatzen da. Zulo zilindriko hauen erradioa $r = 0.34a$ da. Sistema honen diagrama 3.6 irudian ikusi daiteke. Kasu honetan TE polarizatutako uhinak kontsideratu ditugu. FE metodoaren bidez banda fotonikoen egitura lortzeko, gelaxka-unitatea 896 sare-elementuetan zatitu da eta muga baldintza periodikoak ezarri dira hexagonoaren simulazioaren mugetan. Aurreko kasuetan bezala, FE metodoa erabiliz lortutako emaitzak eta MPB-ren bidez lortutakoak konparatuz ez da kontraesanik aurkitzen. Transmitantzia kalkulatzeko ere ohiko konfigurazioa erabili dugu simulazioa egiteko. Kasu honetan, 26528 eta 29984 sare-elementu erabili dira ΓM eta ΓK norabideetan transmisio koefizienteak kalkulatzeko, hurrenez hurren.

Aurreko kasuetan bezala, bi norabide hauetan zehar transmitantziaren kalkuluak dispertsio-diagraman lortutako gap-ekin erlazionatzen dira, modu ezinobean. Nolanahi ere, maiztasun tarte batzuetarako modu batzuk ezin dira akoplatu, bostgarren eta zazpigarren bandetan gertatzen den moduan, ΓM eta ΓK norabideetarako).

Bukatzeko, laugarren egitura bat ere aztertu da. Sare hexagonala jarraitzen duen sistema hau, $r = 0.23a$ erradioko airezko zulo zilindrikoz osatzen da eta 3.7 irudian bereizten da egitura hau. Kasu honetan TM polarizatutako uhin elektromagnetikoak erabili dira. FE metodoa erabiliz banda fotonikoen egitura kalkulatzeko, gelaxka-unitatea 620 sare-elementuetan zatitu da eta muga baldintza periodikoak erabili dira hexagonoaren mugetan. Transmitantziaren espektroa kalkulatzeko, aurreko konfigurazio bera erabili izan dugu, bereziki, TM argiaz irradiatutako dielektriko zilindroz osaturiko sisteman erabilitakoa. Transmitantian erabilitako sare-elementu kopurua, kasu honetan, 40690 eta 45488 da, ΓM eta ΓK norabideetan, hurrenez hurren. Aurreko kasuetan bezala, FE metodoa erabiliz lortutako banda fotonikoen egitura eta MPB bidez lortutakoa bat datoz. Gainera, transmitantziak bi norabide hauetan argi adierazten ditu banda-egituraren xehetasunak.



3.5. Irudia 3.4 irudiaren antzeko simulazioa, baina kasu honetan TM-polarizatutako uhin elektromagnetikoak erabili dira. Gainera, zilindroen erradioak $0.25a$-ko neurria du horain eta H_z eremuaren patroiak M puntuan kalkulatu dira.



3.6. Irudia 3.4 irudiaren antzeko simulazioa, baina kasu honetan airez betetako zuloz osatu da kristal fotonikoa, material dielektriko baten xafla baten gainean (beraz, alderantzizko egitura da hau). Gainera, airea duten zuloen erradioa $0.34a$-ko neurria du horain eta E_z eremuaren patroiak Γ puntuan kalkulatu dira.



3.7. Irudia 3.6 irudiaren antzeko diagrama, baina kasu honetan TM-polarizatutako uhin elektromagnetikoak erabili dira. Zilindroen erradioa horain $0.23a$-koa da eta eremuaren patroiak H_z konponentearenak dira Γ puntuan.

3.3 2D kristal fotonikoen supersareetan egindako akatsak

Orain arte ikusi dugunez, kristal fotonikoen propietate fisikoak oso interesgarriak dira eta aplikazio berrien iturri izateko potentzial haundia dute. Hala eta guztiz ere, semieroaleetan gertatzen den bezala, desordenatutako kristal fotonikoen fisikak aplikazio berrien eta interesgarriagoen oinarria da. Kristal fotoniko hauen artean, akats puntualen bitartez argiaren lokalizazioa sustatzen duten egiturak bereziki interesgarriak dira telekomunikazio arloko aplikazioetan. Akats hauen egitura garrantzitsuak eraikikiteko sistema bikainak dira, argia akatsan lokalizatzeko egitura aproposak bait dira. Hauen bitartez faktore kalitate haundiko mikro–kabitate optikoak egin daitezke, gaur egundo beste kabitateak baino askoz ere dimentsio txikiagotan eta intentsitate handiagotan lokalizatzen bait dute argia. Gainera, akats hauek lerro batean irudikatuz gero, uhin elektromagnetikoen gidaketa bikaina lortzeko egiturak era erraz batean lortzeko aukera ematen dute, zuntz optikoen bidez lortzen den gidaketan baino galera baxuagoak eragiten dituztenak. Egitura hauek sortzen dituzten argiaren lokalizazioaren propietate fisikoak oso ulergarriak dira.

Prozesua errazteko, sortu dezagun lehenengo puntu akats bat egitura guztiz periodiko baten oinarrituz. Akats gabeko egitura periodiko baten, aurreko kasuetan ikusi dugun bezala, gap fotonikoak agertzen dira hau da modu optikoak desagertzen diren maiztasun tarte bat zabaltzen da. Bertan, agertaratzen diren modu optikoak uhin bektore konplexuak dituzte, eta beraz esponentzialki murrizten da haien anplitudea gune hauetan. Horrelako egituretan akats puntual bat sortzerakoan, modu zehatz baten agerpena baimentzen da gap honen barruan. Akats honetatik kanpo berriro ere moduaren anplitudea esponentsialki galtzen da. Sistema erreal batean ordea, modu hauen galera esponentsialak kristalaren mugetara helduko dira eta denborarekin, Akatsean lokalizatuta dagoen argiak ihes egingo du. Arrazoi hau dela eta, ohikoa denez, puntu akatsetanf kokatutako modu optikoak modu erresonante deitzen dira, denboran mugatutako existentzia bait dute modu hauek. Puntu akatsak sortzeko, normalean, kristal fotonikoaren elementuetan aldaketa batzuk sortarazten dira, esaterako, elementu baten edo batzuren konstante dielektrikoa nahiz hauen tamaina aldatzen da, edota bi aukera hauek konbinatuz egiten da.

Lerro akats bat sortzeko prozesu berdina aplikatu daiteke, jarraian dauden elementu sorta batzuk hautatuz. Gap honen barruko argia lerro akatseko norabidean hedatu daiteke soilik eta lerro honen albo mugetan argia konfinatuta egongo da. Ondorioz, argiaren gidaketa bikaina sortzen da, eta indizearen gidaketa-mekanismoaren limitazioz kanpo dagoen argiaren kontrol osoa eskuratu daiteke. Guzti hau dela eta ulergarria da egitura hauen eaugarri fisikoak antzemateko tresna numerikoen garapenak duen garrantzia azpimarratzea. Orain arte, akatsak dituzten kristal fotonikoen azterketa egiteko gehien erabilitako teknika numerikoen artean

supergelaxka baten aplikatutako maiztasun metodoak izan dira, aurreko kapituluan azaldu diren modukoak. Jokaera hau oso ezaguna da akatsak dituzten beste material batzuetan tradizionalki aplikatzen bait da, esaterako semieroaleen elektronikan edo ez-purutasun ez-magnetikoen azterketarako magnetismoko esparruan.

Puntu akats bat duten kristal fotonikoen azterketaren hildoa asko eta luze landu da dagoeneko, beste aplikazioen artean, puntu kuantikoen eta erresonantzia kabitateen arteko bateratzea sustatzeko modu aproposa bait da, eta sistema honen bitartez puntu kuantikoen argi igorleak sortu daitezkelako [87]. Gainera, laser igorleen atalasea murrizteko ere proposatu dira egitura hauek [88]. Beste alde batetik, fisikaren beste atal eta aplikazioetarako ere proposatu dira puntu defektodun kristal fotonikoak. Beste akoren artean, antenen direkzionalitatea sustatzeko [89], memoria optikoak sortzeko [90, 91], PC-VCSEL laser berriak sortzeko [92] eta bio-sentsore [93] gailuak sortzeko erabili daitezke.

Atal honetan erabili izan diran simulazioetan, egituraren periodizitate ohia apurtu egin dugu, akats puntual bat sortzeko eta band gap gunearen bitartean estatu lokalizatu bat sortzeko asmoarekin. Argi hau kaiolatuta geratuko da band gap efektuaren eraginez, behintzat, galera dakarren beste mekanismorik egongo ez balitz. Kristal fotoniko hau oraindik gelaxka-unitatearen metodologia erabiliz aztertu genezake, baina horretarako, gure gelaxka-unitatean kokatzen diren dielektriko zutabe kopuruaren hautaketa egokia egin behar da. Kopuru hau nahikoa denean, ggelaxka-unitatearen errrepikamen prozesuan, ondoko akatsen eragina arbuiagarria izan behar da, hau da muga baldintza periodikoek sorturiko defektruen gainazarmena ekiditzeko gai izan behar da. Beste alde batetik, zutabe bakarra aldatuarazi den kristal hauetan, simetria rotazionala mantendu egiten da. Hortaz, nahiz eta ondorengo kristal fotonikoetan sarearen periodizitatea hautsi dugun, oraindik, posiblea da hauen banda fotonikoen egiturak kalkulatzea eta hauek aurreko kristal fotonikoekin konparatzea, 1BZ-ren ertzeko estatuak ahusnartuz.

3.3.1 Sare karratuan antolatutako zutabeetan egindako akatsa-puntua: McCall-en esperimentua

Zutabe dielektrikoz osaturiko sare periodiko baten barruan lortutako argiaren lokalizazioa McCall-ek [94] aurkeztu zuen, bertan saiakera esperimentalen bidez emaitzak jakinaraziz. Gure lan honetan, McCallek aztertutako kasutik abiatu gara. Egitura horren ezaugarriak FE eta PWE [85] metodoen ikuspegitik aztertu ditugu eta emaitzen konparaketa aurkezten dugu. 3.8 irudian McCallen esperimentuan erabilitako konfigurazioari dagokion dispertsio-diagrama erakusten da. Bertan, sare karratua duen kristalaren erdian kokatutako dielektriko zutabe zilindriko bakar bat kendu da. Sare horretako zilindroen erradioa $0.38a$-koa da

eta konstante dielektrikoak 9 balioa hartzen du, McCallen konfigurazioan adierazten dan bezala. FE metodoaren bidezko kalkuluetarako 5×5 tamainako super-gelaxka bat osatu da. Simulazio-eskualde hori 95903 sare-elementuetan zatitu da. MPB-ri dagokion super-gelaxkarako 3096 sare-elementu dituen sare bat sortu da. Eremu elektrikoaren z-osagarriaren zati erreala kalkulatu da, $a/\lambda = 0.4686$ maiztasunean 1BZ-ko Γ simetria puntuan.

Super-gelaxka bat erabiltzearen eragozpen nagusia *band-folding* efektuaren agerpena da. Efektu horren eraginez gelaxka-unitatearen banda-fotonikoak N biderrez dolezten dira dispertsio-diagraman (N super-gelaxkaren dimentsio lineala delarik). Efektu hau dela eta, beharrezko konputazio-denborak gora egiten du, kalkulatutako autobalioen kopurua $\sim N$ biderrez handitzen bait da. Hortaz, K-espazioan 211 puntuetarako 100 banda kalkulatu ditugu, bi metodoen bitartez.

3.8 eta 3.9 irudietan aurkezten den moduan, McCall-en emaitzatarako MPB-ren bidez lortutakoak eta FE metodoa erabiliz jasotako emaitzak guztiz bat datoz.



3.8. Irudia (a) Ezkerrean: 5×5 sare karratuan antolatutako super-gelaxkaren banda-diagrama, MPB-ren bidez kalkulatu izan dana (zirkulu urdinak) eta baita FE metodoa erabiliz (zuzen gorriak) simulatutakoa. Egitura honek modu defektu bat dauka $\frac{\omega a}{2\pi c} = 0.466 \pm 0.002$ inguruan. Eskuman: FE metodoa erabiliz lortutako estatu fotonikoen dentsitatea (DOS). Grafiko honetan erraz antzeman daiteke kristalak sortutako gap tartea, baita akats-modua ere. Irudi honen barruko xehetasunak 5×5-eko super-gelaxkan FE eta MPB erabilita lortutako E_z eremuen patroiak, M simetria puntuarentzat, erakusten dira. (b) Ezkerrean: 5×5-eko sare triangeluarran antolatutako super-gelaxkaren banda-diagrama, MPB-ren bidez kalkulatuta (zirkulu urdinak) eta baita FE metodoaren bidez (zuzen gorriak) lortutakoa. Berriro ere defektu bakar bat agertzen da, kasu honetan $\frac{\omega a}{2\pi c} = 0.285 \pm 0.003$ inguruan. Eskuman: FE metodoa erabiliz lortutako estatu fotonikoen dentsitate diagrama. Irudi honen barruko xehetasunak 5×5-eko super-gelaxkan FE eta MPB erabilita lortutako E_z eremuen patroiak, Γ simetria puntuarentzat, erakusten dira. FE metodoaren kalkulu hauek egiteko super-gelaxka hexagonal bat erabili da.

Egitura honek bi band-gap ingurune azaltzen ditu, $\frac{a}{\lambda} = 0$ eta $\frac{a}{\lambda} = 0.5$, dimentsio gabeko maiztasunetan, ($\tilde{\omega} = \frac{a}{\lambda}$), hurrenez hurren. Band gap tartea zeharkatzen duten bi modu ikusi daitezke 3.8.a irudian, baina soilik akats-moduak kontzentratzen du energia geometriaren hutsunearen inguruan. Estatuen dentsitate diagramak (DOS) zutabe bakar baten aldaketaren eragina aurkezten du ere. Hain zuzen ere, estatu defektuaren maiztasunean kokatutako Dirac motatako perturbazioak sortzen direla erakusten du. DOS kalkulu horiek ere FE metodoa erabiliz lortu izan dira, 1IBZ gunean k-puntu aleatorioen energiak erabiliz, sare bakoitzean. Uhin-luzera altuen limitean, kantitate honek bi dimentsioko material dielektriko homogeneoetan ohikoa den hedapen egoera aurkezten du.

3.3.2 Zutabez osatutako sare triangeluar baten sorturiko akats puntuala

Antzeko egoera sortu daiteke sare triangeluar baten zutabe bat ezabatzen denean. 3.8.b irudiak Smith et al.-ek [95] sare karratuetan eta triangeluarretan sortutako akatsen propietateak ikertzeko erabilitako parametroen araberako kristal fotonikoen simulazioen emaitzak adierazten dira. Super-gelaxka triangeluar horretako kristal fotonikoaren konstante dielektrikoen parametroak eta zutabeen erradioak, lehen, 3.8a irudiko sare ortogonalean erabilitakoen berdinak dira, eta berriro ere FEM kalkuluak eta PWE metodoaren bidez lortutako emaitzak guztiz bat datoz.

Simulazio-eskualdearen ezaugarriak, lehen sare karratuan erabilitakoaren berdinak dira, salbuespen batekin, orain super-gelaxkaren diskretizazioan 71376 sare-elementu erabili dira. Gainera, super-gelaxka hexagonal bat erabili da FEM kalkuluetarako, geometria horrek sare triangeluarraren sare erreziprokoarekin bat datorrelako. Bi kasuetan, sare karratu eta triangeluarrean egindako akats puntuala duten super-gelaxketan, eremu elektrikoaren z–osagarria akatsaren inguruan lokalizatuta dago, eta hortik kanpo, hutsunetik kanpo, bildutako energia esponentzialki galtzen da.

Gainera, sarearen ingurunetik kanpo, auto-funtzioak berezko simetria bat aurkezten du, konkretuki, bi sare hauetan modu defektuak monopolo patroi baten itxura du, zutabe dielektrikoaren erdian plano nodal bat bait du [4]. Akats-puntu horren simetriaren ezaugarrietaz xehetasun gehiago irakurteko irakurleak [96]-n aurkituko du informazio gehiago.



3.9. Irudia (a) Ezkerrean: 5×5 sare karratuan antolatutako super-gelaxkaren banda-diagrama, MPB-ren bidez kalkulatu izan dana (zirkulu urdinak) eta baita FE metodoa erabiliz (zuzen gorriak) simulatutakoa. Kasu horretan, zutabeen erradioa $0.17a$-ra aldatu da, honela lokalizazio hobeagoa lortzen bait da. Eskuman: FE metodoa erabiliz lortutako estatu fotonikoen dentsitatea (DOS). Grafiko horretan erraz antzeman daiteke kristalak sortutako gap tartea, baita modu defektua ere. Irudi honen barruko xehetasunak 5×5-eko super-gelaxkan FE eta MPB erabilita lortutako E_z eremuen patroiak, M simetria puntuarentzat, erakusten dira. Eremu patroi horiek bat datoz 3.8.a irudian aurkeztutakoekin, baina $0.17a$ erradioko zutabez osatutako egitura honetan, bolumen modala nabarmenki murrizten da. (b) $0.17a$ erradiodun zutabez osaturiko sare triangeluarreko kristala. Kristal horren erdian hutsune bat sortu da. Egitura horren band-gap-aren zabalera handiagoa da, eta hortaz, akatsaren argi lokalizazioak ere gora egiten du.

Egituraren hutsuneak eragiten duen eremu elektrikoaren konfinamendua sarearen band-gap indarrarekin erlazionatuta dago. Hau da, band-gap zabalagoa duten egiturak moduaren lokalizazioa sustatzen dute. Efektu hau oso aproposa da aplikazio praktikoen jardueretarako, *gap-mid-gap* erlazioa modu erraz baten aldatu daitekeelako, alegia zutabeen erradioa edota konstante dielektrikoa aldatuz. Aurreko kasuan bezalako materiala erabiliz, hau da 9-ko konstante dielektrikoa duten zilindroz osaturiko kristaletan, hauen erradioa $0.17a$-ra aldatu ezkero, TE polarizazioan gap-mid-gap erlazioa areagotzen da. 3.9a eta 3.9b. irudietan sare karratuan eta sare triangeluarrean ordenatutako $0.17a$-ko erradiodun zilindroz osaturiko kristalen banda eta DOS diagramak aurkezten dira, hurrenez hurren. Irudi horietan ikusi daitekeenez, band-gap handiagoa duten egitura horietan, banda-akatsen lokalizazioa maximizatzen da. Gainera, akats-modu horiek maiztasunean mugituarazi daitezke, sarearen eta defektuaren arteko konstante dielektrikoaren erlazioa egokitu ezkero [4].

Modu horren egokitzapen gaitasunaz baliatuz, kristal fotonikoen propietate batzuk sustatu daitezke. Hain zuzen ere, algoritmoen bitartez gidatutako diseinu prozedura inkrementalak sarritan erabili izan dira defektuen funtzio dielektrikoak egokitzeko, diseinuaren beharren arabera [97–99].

3.4 2D kristal fotonikoen klusterretan sortutako akats-moduak

Orain arte aztertutako akatsak dituzten egitura guztiak, infinitura luzatzen dira, espazioko norabide guztietan. Aitzitik, errealitate fisikoan, kristal fotonikoak luzera jakin bat dute eta beraz, defektuan kokatutako moduaren lokalizazioa ere mugatuta egongo da. Defektu horietan barreiatutako energia hutsunetik kanpo irradiatuko da. Egoera hori kuantifikatzeko kristal fotonikoaren erresonadorearen kalitate faktoreaz, Q, hitz egin beharra dago. Kalitate faktoreak denbora ziklo bakoitzeko, kristal fotonikoan gordetako energiaren eta irradiaturik galdutako energiaren arteko erlazioa kuantifikatzen du. Aztertzen ari garen egitura horietan, ez dugu zertan norabide transbertsalean irradiatzen den eremua kontuan hartu behar, kristala norabide horretan infinituraino luzatzen bait da. Dena den, planoaren norabide tangentzialean egitura N periodoetako luzera du, eta beraz eremu elektromagnetikoak kristalaren kanpo mugetaraino irradiatuko dira denbora zikloak aurrera egin ahala. Ikuspegi kuantitatibo batetik, bi galera mekanismo horiek ez dute inolako korrelaziorik eta hortaz, bereziki aztertu daitezke.

Beste alde batetik, gure kontestu honetan, absortzioak sortutako galerak arbuiatu dira eta baita sare kristalinoak eduki ditzakeen inperfekzioak sortutakoak. Beraz, kalitate faktorearen muga bakarra hutsuneak jasandako modu erradiatiboak eragindakoan datza. Transmitantzia diagramak FE metodoa erabiliz lortu dira. 3.8 eta 3.9 irudietan sare karratuan eta

triangeluarran sortutako kristalen transmitantzia erakusten dira, hurrenez hurren. Aurreko kasuetan ez bezala, atal honetan aztertutako transmitantzien kalkuluetarako luzera finitudun sare kristalinoak erabili dira. Hau dela eta, PMC eta PEC muga baldintzen ordez, PML muga baldintzak erabili dira, uhin igorlearekiko perpendikularrak diren mugetan eta uhin elektromagnetikoa sartu eta irteten den ertzetan *Transparent influx conditions* baldintzak inposatu dira, eta TE polarizatutako uhina hedatu da $\Gamma - X$ norabidean.

Muga baldintza horiekin islapen espurioak ekidin dira. Muga baldintza horiek ondorengo ekuazioz deskribatzen dira

$$\vec{z}\cdot\hat{n}\times(\nabla\times E_z\hat{z}) - ik_0E_z = -ik_0(1-\vec{k}_0\cdot\hat{n})E_{0z}e^{-i\vec{k}_0\cdot\vec{r}} \tag{3.3}$$

$$\vec{z}\cdot\hat{n}\times(\nabla\times H_z\hat{z}) - ik_0H_z = -ik_0(1-\vec{k}_0\cdot\hat{n})H_{0z}e^{-i\vec{k}_0\cdot\vec{r}}, \tag{3.4}$$

E_{0z} eta H_{0z} eremu eletriko eta magnetikoaren hasierako anplitudeak dira, sarrerako mugetan, hurrenez hurren eta $\vec{k}_0$ hedapen konstantea da.

Kristal fotonikoaren egitura luzatu egiten bada, alegia periodo gehiago jarriz, transmitantziaren espektroak argi azaltzen du modu defektuaren maiztasunean kokatutako erpin zorrotz bat. Simulazioan erabilitako klusterra handitzen denean, modu defektua estutzen da eta limitean Dirac delta baten itxura hartuko du. Aldi berean, akats-moduaren maiztasunean aldakuntza bat emoten da, egituraren batazbesteko konstante dielektrikoa aldatu egiten bat da. Gainera, aldaketa honek modu lokalizatu berriak agertarazi ditzake, goiko nahiz beheko banda fotonikoetatik.

$0.38a$-ko erradioa eta 9-ko konstante dielektrikoa duen sare karratuko kristal batean, kristala luzatzen den heinean, $\frac{a}{\lambda} = 0.4686$ maitasunean aurkitzen den hutsunean bildutako energia $\frac{a}{\lambda} = 0.49$ bandaren energiarekin parteiatzen da. Kalitate faktorea kristalaren transmitantzia espektroari begira kalkulatu da, definizioz

$$Q = \frac{f_c}{FWHM}, \tag{3.5}$$

f_c akats-moduaren maiztasun zentrala da eta FWHM akatsaren anplitudearen maximoaren erdiko balioa duten anplitudeen distantzia da. Kalitate faktorearen kalkulo bakoitzarentzat, FWHM balioa zehaztasunez lortu da Brent-en metodoa erabiliz [100]. Metodo honek erdibideketa, regula–falsi eta interpolazio kuadratikoa erabiltzen ditu FWHM-ko bi puntuen balioa zehazteko. Q faktorea transmitantzia espektrotik zuzenki kalkulatzeko metodoa sarritan eztabaidan jarri da [106, 107], denboraren domeinuko tekniketan metodo honek dituen efizientzia eta zehaztasun gabetasunak direla eta. Aldiz, FE metodoa transmitantziaren kalkulua lortzeko teknika bizkorra da eta beraz, Q-ren balioak zuzenean lortu daitezke



3.10. Irudia Goian: itxura Lorentzianoa duten erresonantzien FWHM kopurua erabiliz lortutako kalitate faktoreen estimazioa tamaina ezberdineko (a) 0.38a eta (b) 0.17a erradioko zutabeetako kluster karratueetarako. FWHM kopurua a/λ dimentsio gabeko unitateetan emoten da. Eskala logaritmitkoa erabili da bi ardatzetan. Behean: sare triangeluarretan egindako kalkulu analogoak (c) 0.38a eta (d) 0.17a erradioetarako.

3.5 ekuazioa aplikatuz. Hurrengo atalean, FEM, FDTD eta denbora eremuko seinaleen inbertsio harmonikoaren tekniken bitartez lorturiko Q balioak eztabaidatzen dira, eta hauen arteko konparaketa bat egiten da. Akatsa inguratzen duten periodo kopurua handitzean, akatsean bildutako energia galerak esponentzialki murrizten dira. 3.10 irudian, sare karratu eta triangeluarran, sarearen periodoak handitu ahala, sortutako akatsen kalitate faktoreen garapena adierazten da. Irudi honen arabera, akats-moduaren banda zabalera esponentzialki murrizten da, band gapa zabaltzen den heinean, eta beraz hau litzateke kalitate faktorearen sustatzaile fisiko nagusia. Beste talde batetik, akats-nodutik kanpo emoten den energiaren irradiazaioak transmitantzi espektroan forma Lorentzianoa duen erpin bat irudikatzen du beti. Efektu hau argiago ikusten da akatsa mid-gap maiztasunera mugituarazten denean eta FWHM estutzen denean N handitzean.

3.5 Denboraren domeinuko metodoa: FDTD

FDTD metodoa argiaren hedapena irudikatzeko metodorik ezagunena denez, FE metodoaren bidez kalkulatutako Q-ko faktoreak baieztatzeko erabili dugu. Atal honetan egindako FDTD simulazioak MEEP [107], softwarraren bitartez egin dira. FDTD metodoaren ospea eta baliagarritasuna, bere malgutasunari eta geometria aperiodiko eta irregularretara moldatzeko trabetasunari atxikitu daiteke. Orokorrean, FDTD metodoa maiztasun multzo bat konputazio beran ebazteko gai da eta espektro honetatik moduak lortu ditzake. Horrexegaitik metodo hau kristal fotonikoen egituretan Q faktore handiak kalkulatzeko metodorik erabiliena da. Hala eta guztiz ere, 3.5 ekuazioa aplikatuz Q faktoreak kalkulatzea zaila izan daiteke. FDTD metodoan transmitantzia, simulazio-eskualdearen amaieran kalkulatzen da, PML muga baldintzak baino nonbait lehenago. Gainera, transmitantzia hau kalkulatzeko eremuak denboran eboluzionatu eta gero, era nabariki galtzen hasten direnerarte martxan jarraitu behar du simulazioak, ($|E_z|^2$ edo $|H_z|^2$ eremuak gutxienez $\frac{1}{1000}$ faktoreko murrizketara ahilegatu arte, egoera estazionarioa dela suposatzeko). Gero, lortutako fluxua normalizatu beharra dago eta horretarako simulazioa berriz egin behar da, baina kasu honetan hutsune gabeko egitura bat simulatuz.

Beste alde batetik, transmizioaren simulazio zuzena kalkulatzeko beharrezkoa den denborak gora egiten du erresonantzia kabitateko kalitate faktoreak balio altuak hartzen dituenean, Fourier-en teoremaren arabera, simulazioan definitzen diren denbora tarteak maiztasunaren erresoluzioaren alderantzizkoarekin eskalatzen bait du [107]. Hortaz, transmitantziaren espektroa erabiliz, FDTD metodoarekin Q faktoreak kalkulatzea ez da aukera azkarra, ezta fidagarria ere ez. Bestela ere, Q faktoreak kalkulatzeko, denboraren domeinuan hedapen transitoriaren analisi zuzenaren bidez lortu daiteke. Hala ere, FDTD-ren bidezko

beste prozedimentu honek baditu nahiko eragozpen ere. Izan ere, FDTD metodoan espazioa eta denbora sare erregular baten zatitzen dira, aurreko kapituluan azaltzen den moduan. Gero, eremuak garatzen dira aurrerapauso diskretuak erabiliz.

FDTD metodoaren simulazio domeinuaren ertzak muga baldintza aproposak behar ditu, mugetako islapen efektu ez-fisikoak ekiditzeko, FE metodoak beharrezko dituen baldintzen antzera. Gainera, FDTD metodoan *split-field* PML baldintzak ezartzen dira simulazioaren kanpo azalera baten, mugetara heltzen diren huinak zurgatzeko, Berengerrek proposatutakoak esaterako [104]. Zoritxarrez, kalitate faktoreari dagozkion konputazioak simulazio-eskualdearen diskretizazio mailarekiko oso aldakorrak dira, eta beraz, igortutako uhin elektromagnetikok islapen espurioak sortuarazten baditu simulazio mugetan, norabide normalean irradiatutako uhinak islatutako uhinekin nahastuko lirateke eta simulazioaren konbergentzia ezegonkorra izango litzateke. FDTD metodoan banda zabaleko uhin iturria edo izaera monokromatikodun uhinak erabili daitezke, banda zabaleko iturria delarik erresonantzia bat sustatzeko gehien erabiltzen den iturria. Lan honetan erabilitako FE metodoak ordea, soilik uhin monokromatikoak erabili ditzake, erregimen harmoniko estazionarioan. Hortaz, aurreko atalean azaldutako FE metodoko emaitzak eta FDTD-ren bidez kalkulatutakoak konparatzeko, aurretik FDTD kalkuluetan zer nolako uhin iturri erabili behar den zehaztu behar dugu. Puntu hau aztertzerakoan, kontuan izan behar da denboraren domeinuan transmitantzia era iteratibo baten kalkulatzea (hau da, maiztasun bakoitzari dagokion uhin plano bat hedatzea, simulazio bakoitzean) etekin oso baxua duela eta konputazio arazoak sor ditzakela. Hau dela eta, honelako uhin iturri bat aukeratu ezkero, FDTD eta FEM arteko konparaketa ez litzateke pareko baldintzetan ezarriko; FDTD metodoa desabantaila nabarian egongo litzateke. Horregaitik, bidezko konparaketa bat egiteko, Q faktoreak kalkulatzetko, FDTD-ren kasuan banda zabaleko uhin iturri bat erabili da eta FE metodoaren kasuan uhin monokromatiko sorta bat erabilida, aurreko ataletan erabilitakoen modukoa.

Bereziki, FDTD konputazioak egiteko puntu formako iturri Gaussiano bat erabili da, akats hutsunean kokatuta dagoena. Pultso hau denboran laburra izan behar du (beraz maiztasunean zabala izateko) akats modua sustattu dezan kuster bakoitzean. Iturri Gaussiano hau pizterakoan, eremua hasi egiten da eta denbora tarte txiki bat igaro eta gero, uhin iturria amatatu egiten da.

Uhin iturriaren eraginez, erresonantzia efektua emoten da kristalaren akatsean, hau da, argia akatsean konfinatuta egongo da ziklo optiko kopuru zehatz batzuetan zehar. Bitartean, harrapatuta dagoen energia hori denboran esponentzialki murrizten da (begiratu 3.11 irudia). FDTD-ren prozesuan puntu honetaraino heldutakoan, kalkulatutako eremuaren aldakuntza txikia aurkezten duen konponentea, hau da eremu elektrikoaren portadoraren norma erabiliz,

kalitate faktorea kalkulatu daiteke, t denbora zehatz baten bildutako energia eta T periodo baten ostean galdutako energiaren arteko erlazioa erabiliz.

$$Q = 2\pi \frac{|E(t)|^2}{|E(t)|^2 - |E(t+T)|^2}. \tag{3.6}$$

Lan honetan, FDTD kalkuluak burutzeko *Uniaxial Perfectly Matched Layers* (UPML) [105, 106] motatako PML baldintzak erabili dira, hain zuzen ere MEEP jatorriz, islatutako uhinak desagertarazteko erabiltzen dituen kanpo muga baldintzak direnak. Ingurune artifizial honetan zehar, PML-a ε eta ν efektibo anisotropikoen arabera adierazten da [107]. Puntu honetan, garrantzitsua da azpimarratzea UPML eta kristal fotonikoaren klusterra banatzen duen distantzia guztiz kritikoa dela kalitate faktorearen kalkuluan. Hau da, UPML-a oso gertu kokatzen bada, baliteke hedatzen den eremuaren konponente ugari ezeztatzea edo, UPML-ren zabalera txikiegia bada, agian UPML-ak ez ditu behar beste konponente deusezten. Gustira, UPML-aren konfigurazioak erresonantziaren galera faktorean efektu zuzena dauka. 3.1-ko taulan jasotzen diran FDTD kalkuluen bitartez lorturiko emaitzetan, $2a$ lodierako UPML-a erabili da egitura inguratzeko. Gainera, UPML eta kristal fotonikoaren arteko distantzia, kasu hauetan $0.8 \leq d \leq 1.1$ izan da. Kalkulatutako eremu elektrikoa muestreatzen bada, erresonantziaren periodoaren arabera, funtzio kuasi-periodiko bat lortzen da eta bertatik Q faktorea kalkulatu daiteke 3.6 ekuazioa aplikatuz, baina prozedura hau oso aldakorra da. Baliteke, ezegonkortasun hauek klusterraren translazio simetriaren apurketan izatea jatorria. Dena dela, ziklo optikoak aurrera egin ahala, eremu elektrikoaren murrizketa esponentzialaren joera filtratu eta interpolatu egin dugu. Beraz, lortutako eremu diskretuaren interpolazioan, 3.6 ekuazioa modu iteratiboan aplikatu ezkero, bataz besteko Q faktorea eta honi lotutako errore teorikoa kalkulatu daitezke, hurrenez hurren.

Gainera, FE eta FDTD metodoen bitartez lortutako Q faktoreen kalkuluen konparaketaz gain, eremu seinaleen inbertsio harmonikoen bidez (`Harminv`) [108] lortu daiteke Q-ren estimazio bat. Software honek diagonalizazio filtraketa metodoa (FDM) erabiltzen du maiztasun tarte bateko sinusoide funtzioaren dekonboluzioa aurkitzeko. Simulazio ingurunea FDTD kalkuluetarako erabili dan berdina da: akatsean kokatutako pultsu Gaussiano zabal bat hedatuz kabitatearen TE moduak sustatzen dira eta PML muga baldintzak simulazio-eskualde osoa inguratzen dute. Bereziki, $\frac{a}{\lambda} = 0.02$ zabalera duen pultsu Gaussianoko argi iturri bat erabili da, egitura guztietan, eta pultsu hauen maiztasun zentrala kabitatearen erresonantzia maiztasunera ajustatu da. Argi iturria amatatu eta gero, PML-en eraginez eremua ezabatzen denean, `Harminv`-ek kabitatean geratzen diren eremuen seinale prozesamendua egiten du. Modu honetan, ezabatzear dauden modu erresonanteen maiztasuna eta gainbehera ratioa kalkulatuko ditu. Egoera hau emoten denean, metodo honek Q faktoreak era bizkor eta fidagarrian kalkulatu ditzake, baina oraindik eremuen hedapen osoa eta hauen ahulketa



3.11. Irudia (a) 0.38a erradioko zutabeen egituran sortutako akatsaren barneko eremu elektromagnetikoaren eboluzioa eta honen aldakuntza klusterraren tamainaren arabera. Argi iturri puntual bat kokatu da kluster hauen erdian eta periodo gutxi batzuk pasatu eta gero, argi iturria itzali egiten da. Hutsuneak sorturiko erresonantziak argi iturriaren galera esponentziala sortzen du. (b) Antzeko simulazioak kluster triangeluar baten simulatuta.

gertatzen den unerarte itxarotea eskatzen du. Konputazio denbora gainera, asko luzatzen da simulazio-eskualde handiago bat erabiltzerakoan. Hau paliatzeko ordea, egituraren simetria ardatzak erabili ditzakegu, konputazio eskualdea murrizteko.

Beste alde batetik, pultsu Gaussiano zabal bat erabiltzeak ebazpen espurioen agerpena bultzatzen du, baina, aldi berean, pultsuak zabalera nahikoa izan behar du nolabait ezezaguna den maiztasun erresonanteak sustatzeko. Dena den, azpimarragarria da FE, FDTD eta Harminv metodoen bidez lortutako Q faktoreen balioen adospena. 3.1 Taulan kapitulu honetan erabilitako egituretan, hiru metodoen bidez lortutako emaitzak biltzen dira. Bi dimentsioetan kalkulatutako FE metodoaz lortutako Q faktoreak FDTD eta Hamrminv bidez lortutako emaitzekin bat datoz, baina FEM-ek modu azkar eta efizientean lor ditzake balio hauek. FDTD metodoak ordea, Q faktorean kalkulatzeko, bitarteko simulazio ziklo ugari egin behar ditu egoera estazionariora heldu baino lehen eta bitarteko simulazio ziklo hauek deuseztu egiten dira, ez bait dute interesik Q kopuruaren kalkuluan. Beste alde batetik, FDTD metodoaren, eta beraz Harminv metodoaren kalkuluan, hainbat faktore heurisitikok hartzen dute parte, alegia UPML-en zabalerak, iturriaren kokapenak, maiztasun zentralak eta zabalerak, dira Q balioaren emaitzan aldakortasuna ezartzen duten faktore batzuk, beste askoren artean. Faktore hauetaz gain, kabitatearen modu erresonanteak kalkulatzerako orduan, FDTD metodoa erabili ezkero, argi iturriaren karakteristikak hautatzean kontuz ibili behar da. Argi iturri hau modu erresonantearekiko ortogonalitasunik aurkezten badu, metodoak ez bait du modu erresonantea aurkituko. Honen inguruan, FE metodoak abantail ugari aurkezten ditu, ez bait du aurreko berezitasunen zehazpenik egin behar. Beraz, abantail haeui dagokionez, FE metodoa kalitate faktoreen kalkuluak egiteko modu fidagarria, sendoa eta efiziente dela argudiatzen dugu, material dielektriko konplexuen kasurako.

3.6 Kristal fotonikoen bidez egindako argi-uhinen gida

Puntu defektodun sareetan sortutako perturbazioean antzera, sare kristalinoetan perturbazioak lerro oso baten zehar sortu daitezke. Honelako egituretan, geldikorrak, desagerkorrak edo hedagarriak diren uhin monomodoak edo multimodoak agertu daitezke band gap fotonikoaren bitartean. Egoera honetan, argia uhin luzeera baino txikiagoko eskaladun espazioan hedatzzen da hedapen galera oso baxuekin. Uhin-gida hauek sortzeko ohiko bidea kristal fotoniko periodiko baten zulo edo dielektriko zutabe bakar bat kentzean datza. Orain arteko ikerketa teoriko gehienak kristal fotonikoen klusterretan honelako uhin-gidak hartu dituzte abiapuntutzat, eta orokorrean, airez inguratutako dielektrikoko zutabez osaturiko kristal fotonikoak erabili izan dituzte. Egitura hauetan sorturiko uhin-gida mekanismoak modu bakar bat gidatzeko duintasuna dute, kasu gehienetan. Kasu hauetan, bide zuzena deskribatzen

Taula 3.1 Sare karratu eta triangeluar ezberdinetako zutabe-motatako kristal fotonikoetan egindako puntu-akatsen kalitate faktorearen kalkulua, kluster tamainaren arabera, FEM, FDTD eta inbertsio harmonikoaren metodoak erabiliz.

	Sare karratua r=0.38a			Sare karratua r=0.17a		
Kluster tamaina	FEM	FDTD	Harminv	FEM	FDTD	Harminv
5	73	80±1	88	108	113±13	107
7	376	350±3	347	722	727±6	723
9	1800	1773±24	1765	4310	4312±31	4308
11	8350	7677±83	7674	24500	24561±74	24559
	Sare triangeluarra r=0.38a			Sare triangeluarra r=0.17a		
5	97	107±2	103	134	130±1	126
7	358	320±1	316	1280	1171±8	1166
9	1240	1211±5	1209	11100	11241±42	11238
11	5270	5656±74	5650	90200	83903±84	83892

duen uhin-gidaz beste, edozein norabide hartzen duen uhin-gida bat sortzea tribiala da. Beste alde batetik, dielektrikoz osaturiko zilindro zutabedun sare periodikoan egindako uhin-gidapenak galera erradiatibo ugari aurkezten ditu 3D-xafla bat erabiltzen denean. Aldiz, dielektriko material baten egindako zuloz osaturiko kristal fotonikoetan, uhin-gidak guztiz kontrako jokaera aurkezten du: 3D-xafla batean argiaren konfinamenduak ez du hainbesteko galera erradiatiborik sortzen, baina bertan sorturiko uhin-gidetan kurbaturaren bat sortzean, ezberdintasun geometrikoak direla eta, hedapen galera garrantzitsuak sortuarazten ditu. Beraz, honelako egituretan kurbaturak edota argiaren banaketa bat egiterako orduan, konfigurazio konplexuak diseinatzea beharrezkoa da.

3.12 irudian silizio materialean 0.35a erradioko aire zuloz osaturiko sare triangeluarra jarraitzen duen kristal fotonikoaren dispertsio-diagrama aurkezten da; a sarearen periodoa da eta Si materialaren errefrakzio-indize lineala, isotropikoa eta ez-magnetikoa 3.46 da. Kasu honetarako, bi dimentsioko sistema bat osatu dugu. Bertan, Bloch muga baldintzak ezarri dira, planoko periodizitatea formultzeko, eta bitartean, egitura hau z norabidean infinitu luzatzen dela suposatu dugu. Si materialaren eta zuloetako airearen arteko indizeen kontrasteak band gap fotoniko baten agerpena ziurtatzen du, [0.22 – 0.31] maiztasun tartean zabaltzen dena. Kristal honetan uhin-gida bat sortzerakoan, akats-moduak agertarazten dira band gap honen barruan. Berriro ere PWE metodoa erabili dugu dispertsio-diagrama hau lortzeko 1BZ-ko $\Gamma - K$ proiekzioan zehar, bertan traslazio simetria mantendu egten bait da. 3.12 irudiaren xehetasunean, lerro akatsaren eskema kontzeptual bat adierazten da, kristal fotonikoaren $\Gamma - M$ norabide kristalinoan ezabatutako aire zuloak adierazten dituena. W sinboloak uhin-gidaren zabalera zehazten du. Zabalera hau, lerro bakar bat ezabatutako uhin-gidaren



3.12. Irudia (a) Ezkerrean: Si materialan (n=3.46) egindako (0.35a erradioko zuloz osatutako 2D kristal fotonikoan zulo lerro bakar bat ezabatuz sortutako uhin-gidaren dispertsio-diagrama. Irudiaren barneko xehetasunak dispertsio-diagrama hau sortzeko erabili den gelaxka-unitatea erakusten du. (b) H_z eremuaren modua Γ, M eta anti-crossing puntuetarako. Azken hauek moduaren profilaren aldaketa nabarmena antzematen dute.

arabera neurtzen da, alegia, sare triangeluarran, $W = a\sqrt{3}$ zabalera duen uhin-gidaren arabera. Simulazio honetarako, zortzi zulo dituen kluster bat erabili da, baina konputazio baliabideetan eskaera murrizteko, kristal fotoniko uhin-gida (PCWG) hau simetria-planoarekiko banatu da. Beraz, simetria hau kontuan izanda, bakarrik simulazio domeinuaren erdia kontsideratu da. Egituraren ispilu simetria erabiltzeko, PEC muga baldintzak erabili dira simetria-planoan zehar. Modu honetan, mugarekiko tangenteak diren eremu elektrikoaren konponenteak eta mugaz kanpo dauden eremu elektrikoaren konponenteak ezabatzen dira. Gainera, PML muga baldintzak erabili dira simulazioa inguratzen gainerako mugetan, krusterraren luzeera finitoak sortutako islapen ez-fisikoak ekiditzeko.

Banda-diagrama hau kalkulatzeko 32×32 (=1304) sare-elementuko erresoluziodun diskretizazioa erabilida eta konstante dielektrikoa 9 sare puntuen bitarteko bataz bestekoa eginez osatzen da. Eremu magnetikoaren, z–konponentearen, H_z, automoduak ere kalkulatu ditugu $k = 0$, $k = 0.5$ eta *anti-crossing* puntutik hurbil dagoen posizioetarako. Beste alde batetik, 3.12.a irudian W1 PCWG klusterrari dagokion transmitantzi espektroa ere erakusten da, $[0, 0.5]$ maiztasun tartean. Hemen ere transmitantzia grafikoak argi adierazten ditu egituraren propietate optikoak, esaterako $[0.216, 0.224]$ maiztasun bitartean dagoen gap partziala argi ikus daiteke bai banda-diagraman, bai transmitantzia espektroan ere. Beste alde

batetik, espero genuen moduan, akats lineala sortzean, gap fotonikoaren barruan hiru modu gidatu sustatzen ditu. Modu hauek kolorez adierazi dira, gainerako bandetatik bereizteko. Hiru modu gidatu hauek simetria patroi ezberdinak dituzte. Automodu hauen simetria, eremu magnetikoaren z–konponenteak definitzen du, uhin-gidaren ispilu simetriaren planoaren arabera. Kolore gorridun moduak, aire banda eta gidatutako banda lotzen ditu. Ondorioz, bien arteko energia transferentzia sortzen du. Banda gap bitartean dagoenean, simetria bikoitia aurkezten du. Beste bi moduak interesgarriak dira ere, $\Gamma - M$ norabidean guztiz gidatuta bait daude. Gainera, bi moduen arteko interakzioa emoten da *anti-crossing* puntuan. *Anti-crossing* puntura heldu baino lehen, bi modu hauek modu fundamentalaren patroia aurkezten dute. *Anti-crossing* puntua eta gero ordea, haien arteko simetria eraldatu egiten da eta hauen arteko patroiak trukatu egiten dituzte eta bigarren ordeneko moduen patroia jasotzen dute. Fenomeno hau argi ikus daiteke 3.12 irudian. 3.12 irudian aurkezten dan W1 uhin-gidan, *anti-crossing* puntua 0.188-tik gertu aurkitzen da. Bertan, simetria bikoitia eta bakoitia duten modu gidatuen arteko interakzioa emoten da. Interakzio honek bi supermodu sortzen ditu, gap bidez sorturiko eta indizearen bitartez gidatutako moduen arteko nahasketa, fasean eta anti-fasean sortzen dituena.

Hemen aurkeztutakoak bezalako uhin-gida periodikoak oso interesgarriak dira beste hainbat aspektu direla eta. Bereziki adierazgarria denez, modu honetan sorturiko uhin-gidatuak *slow-light* erregimenaren barruko moduak sortuarazten ditu, banden ertzetan gehienbat. Modu hauek talde abiadura oso baxua dute eta aldi berean argi-materiaren interakzioa sustatzen duen erregimenan kokatzen dira eta honek efektu ez-linealak sustatzeko tresna ezinobea bihurtzen ditu.

3.6.1 Kristal fotoniko xafla baten egindako argi-uhin gida

Orain arte planteatutako 2D kristal fotonikoak z–norabidean infinitura luzatzen dira eta beraz, egitura irreal hauetan kristalen propietate teorikoak baino ez ditugu aurreikusten. Bitartean, aplikazio praktikoetan aurkitu daitezkeen egiturak 3 dimentsioetan mugatuta daude. 3D kristal fotoniko ugari aztertu dira jadanik, esaterako [110, 111], baina orain arte behintzat 3D PC praktikoak eraikitzeak fabrikazio prozesua asko konplikatzen du [112]. Askoz ere praktikoak diren PC xafla egiturak sarritan erabiltzen dira 3D kristal fotonikoen ordez, hauek litografia metodo arrunten bitartez sortzeko aukera ematen bait dute.

PC xafla egiturak bi dimentsioetan izaera periodikoa mantentzen dute eta, planoz kanpoko norabidean, indizearen bidezko gidaketa-mekanismoa erabiltzen dute argia materialan zehar konfinatzeko. Horrela, 2D-PC-ren propietate asko aurkizen dira 2D PC xafla egituretan. 3.12 irudian ikus daitekeen moduan, 2D eta 2D xafla egituretako propietateak erlazio zuzena

aurkezten dute. Noski, z–planoan xafla egiturak mugatuta daudenez, planoaz kanpo hedatzen diren moduetarako ez dago band-gap bat sortzerik [26].

PC xafla egituretan modu guztietako akatsak sortu daitezke ere, orain arte azaldutakoen modukoak. Egitura hauek gainera, erraz fabrikatu daitezke, eta horren froga, orain arte litografia metodoaren bitartez sortutako PC xafla experimental sorta haundiak osatzen du. Planoz kanpoko norabideko luzeera mugatua denez argi-kono bat definitzen da banda-diagraman. Argi-konora lotutako modu gidatuen energia airera erradiatuko da, eta beraz, uhin-gidaren diseinu egokitzen ez bada, uhin-gidako argi guztia mekanismo honen eraginez galdu egin daiteke. Atal honetan, Si materialan osatutako eta airez inguratutako PC xafla bat konsideratu dugu. Sistema hau $z = 0$ planoarekiko islapenei dagokionez aldagaitza da. Simetria honek modu optikoak *TE-like* (bikoitiak) eta *TM-like* (bakoitiak) bezala bereizteko aukera ematen digu. Era honetan osaturiko kristal fotonikoak *air bridge* izenez esagutzen dira. Air bridge PC xafla egiturak modu bertikalen argi konfinaketa oso ona lortzeko aukera ematen dabe eta gidatutako uhinen galera erradiatiboak murrizteko eta zuloen difrakzioari lotutako galerak ekiditzeko egitura apartak dira. 3.13 irudian W1 PCWG xafla baten 1BZ-ko Γ-M proiekzioan kalkulatutako banda-egitura aurkezten da. Ikus daitekenez, 3.12 irudian kalkulatutako 2D kristal fotonikoaren antzeko banda fotonikoak lortzen dira hemen. Kasu honetan, banda-diagramaren $\omega \geq c|k|$ argi-konoaren kurbak, gainetik limitatzen du dispertsio-diagrama. Kono honen gaineko moduak airean hedatzen bait dira. Gainera, z norabidean egiturak zabalera finitoa duenez, indize dielektriko efektiboa 2D kasuan baino txikiagoa da eta honen eraginez bandak maiztasun ardatzan desplazatuta aukitzen dira. Egituraren periodizitatea planoan baino agertzen ez denez, band-gap fenomenoa ere bertan bakarrik aurkituko da. Hau dela eta, gidatutako moduak beheko eta goiko mugetatik argia irradiatuko dute.

W1 PCWG xafla honen dispertsio-diagramak hiru modu gidatu aurkezten ditu. Hauek ere 3D FE metodoarekin lortutako transmitantzia kalkuluen bitartez antzeman daitezke, 3.13 irudian erakusten den bezala. Simulazio hauek egiteko $2a$ zabalera duen aire guneak definitu dira W1 xaflaren goikaldean eta azpikaldean. Egituraren simetria kontutan hartuz, simulazio-eskualdea 3.13 irudian xehetzen dan egiturara murriztu da. PMC muga baldintzak erabili ditugu z= 0 ebakuntza planoan. Simulazio-eskualdea 236.399 sare-elementuetan zatitu dugu eta *Generalized Minimal Residual method* (GMRES) solver bat erabiliz ebatzi dugu problema.

Xafla baten lodieraren hautapena ez da tribiala. Xafla honen dielektrikoaren lodiera finegia bada, orduan uhinen gidapena lerro akatsean zehar oso ahula izango da, hots, argi-konotik kanpo irradiatuko dira eta baliteke, inolako gidapenerik ez lortzea ere. Beste alde batetik, xafla honen lodiera zabalegia bada, orduan aireko moduak band-gap-aren barruan



3.13. Irudia Ezkerrean: TM-like (z-odd) estatuen banda-diagramaren proiekzioa W1 akatsa duen eta zuloz osatutako xafla kristal fotonikoarentzat. Kristal honetan zulo lerro bat ezabatu da y–norabidean. Kristalaren altuera d=0.8a-koa da eta airez inguratuta dago. Eskualde urdinak argi-konotik kanpo dauden moduak estaltzen ditu, $\omega \geq c|k|$. Kolore gorri argiak *bulk* moduen gunea adierazten du. Gidatutako moduak gap tartearen barruan eta kristalaren *extended* moduen azpikaldean daude (eskualde berdean). Gune berdearen barruko modu gehieneak indizearen mekanismoaren bitartez gidatutako moduak dira eta z–bikoiti edo z–bakoiti moduan sailkatzen dira $z = 0$ simetria-planoaren eta uhin-gidaren ebakuntza planoaren arabera. Eskuman: W1 PCWG honen transmitantzia diagrama.

jausiko lirateke. Orokorrean, 0.6a lodiera hautatzen da [4] PC xafla egituretan, edo beste askotan, fabrikazio-metodoak berak ezartzen du xafla hauen lodieraren limitazioa. Kasu honetan, eta aurrerantzean aurkeztuko diren 3D PC xafla egituretan 0.8a lodiera duten egiturak proposatu dira.

Kapitulua 4

Baldintzatutako metodo heuristiko eta genetikoak egitura nanofotonikoen diseinuan

Algoritmo heuristikoak eta genetikoak ohiko optimizazio-teknikak erabiltzen dituzten metodo zuzenez kanpoko hautabideek eskaintzen dituzte problema konplexuetan ebazpen optimoak bilatzeko. Partzialki desordenatuta dauden osagarrien bidez egindako gailu nanofotonikoetan, kristal fotonikoetan esaterako, sare periodikoaren maiztasunaren apurketak onura garrantzitsuak sortarazi ditzake, esaterako, argiaren lokalizazioa sustatuz eta argia ez-ohizko era batean gidatuz. Desorden honek aldiz, honelako egituren diseinua bortizki konplikatzen du. Hau dela eta, kapitulu honetan, egitura fotonikoen alderantzizko diseinua garatzeko erabilitako algoritmo heuristiko eta genetikoak deskribatzen ditugu.

4.1 Konplexutasun konputazionala

Konplexutasun konputazionalaren teoriaren esparruan, NP (non-deterministic polynomial-time) moduan sailkatutako problemak [114], soilik ez-determinitistikoa den Turing-en makina baten bitartez ebatzi daitezke denbora-tarte polinomiko batean. Horrelako makinak aldiz, gailu kontzeptual bat baino ez dira eta funtsean, horrelako problema baten ebazpena lortzeko, problemaren egoera bakoitzarentzat, aukera anitzen artetik jarraitu behar diren erregelak definitzen dituzte. Beraz, aurreko definizioaren arabera, NP motatako problema bat ebazteko ez dago gaur egun ezagutzen diren metodo deterministikoak erabiliz ebazterik, horretarako beharrezkoa litzatekeen konputazio-denbora probleman planteatutako ezezagun kopuruekin esponentzialki handitzen bait da. Hala ere, Turing-en makinaren pareko funtzionalitateak

eskaintzen dituen algoritmo batek ebazpen *egokia* lortzeko aukera eskaini dezake, denbora-tarte onargarri batean. Beste alde batetik, NP problemen artean, NP-osoak deritzogun problemak ere aurkitzen dira eta hauek NP problemak baino konplexutasun maila handiagoan sailkatzen dira. Izan ere, orain arte inork ez du NP-osoak diren problemak denbora-tarte polinomikoan ebatzi daitezkeenik frogatu, eta berez, matematika arloan ebaztear dauden problemarik garrantzitsuenen artean dagoen erronka bat da.

Dena dela, problemaren ebazpen espazioaren hausnarketa zorrotz bat egiteko konputazio-denbora oso luzeak beharko lirateke eta are gehiago, kasu batzuetan, konputazio-denbora horiek esponentzialki luzatzen dira N aldagaien arabera, eta beste hainbat kasuetan egoera hau are larriagoa bihurtu daiteke [115]. Problema mota hauek sarritan aurkitu daitezke aplikazio esparru ugarietan, errepideen trafikoaren kudeaketan [116–118], edota bestelako produktu salmenta eta garraioen plangintzan [119, 120], nahiz multi-prozesadoreen eginkizunen bideraketan [121, 122] eta programazioan [123, 124], beste arlo askoren artean. NP motatako problemetan bi ezaugarri hartu behar dira kontuan: ebazpen optimoa lortzeko helburua era adierabakarrean zehaztea eta helburu horretara ailegatzeko beharrezkoa den konputazio-denboraren mugaketa, hurrenez hurren. Honen ildoan, orain arte, hurbilketa-metodo asko proposatu izan dira, problema hauetan egokiak diren ebazpenak ahalik eta modu bizkorrenean (beti ere denbora super-polinomialean) aurkitzeko gai diren algoritmoak garatzeko. Ikuspuntu praktiko batetik, baliabide konputazionalak ebazpen optimo baten bilaketan erabiltzean baino, ebazpen egoki (baina potentzialki optimoaren azpitik dagoena) bilatzea posiblea da, ondorengo hurbilketa-metodoak erabiliz:

- Zorizkotasuna: aldagaien balio optimoen bilaketa egiteko, behin eta berriro aldagaiei zorizko balioak ezarriz ebazpen numeriko hobeagoak aurkitzean datza. Zorizkotasun irizpide honen bidez, Monte Carlo [125–127] metodoak, nahiz Markov katean oinarritutako Monte Carlo metodoak ebazpen optimoaren hurbilpen bat eskaintzen dute. Metodo hau sarritan erabiltzen da, gehien bat zerrenda honetan aipatzen diren beste metodoekin konbinatuta, askatasun-gradu ugari maneiatu behar direnen kasuetan.

- Hurbilketa-metodoak: algoritmo hauek problemaren aurre ezagutza batetik abiatzen dira, aldagai batzuen balioa xehetuz problemaren askatasun-graduak murrizten du era bizkorrago batean ebazpen egoki bat aurkitzeko. Aitzitik, bilaketa-espazioaren mugaketa hori, intuizioan oinarritzen bada soilik (ohikoa denez) baliteke ebazpen optimoak bilaketa-esparru horretatik kanpo geratzea.

- Metodo Heuristikoak: mota honetako metodoak ebazpen optimoa aurkitzeko beste biderik ezagutzen ez denean, edota soluzio optimoaren bilaketan beharrezkoa den konputazio-denbora tartearen mugaketak garrantzia handia duenean erabiltzen dira

normalean. Nahiz eta algoritmo hauek problemaren soluzio optimoa bilatzeko helburua duten, ez dago ebazpen optimo hori lortuko dutenen ziurtasunik eta horren ordez, egokitzat hartzen den ebazpena aurkitzeko baliabideak inplementatzen dituzte. Orokorrean, metodo hauek NP-osoak diren problemetan aplikatzean, emaitza egokiak edo behar adina egokiak diren emaitzak ahalbidetzen dituzte. Bilaketa-prozesu iteratiboa kontrolatzeko operadore probabilistiko batzuk erabiltzen dituzte. Metodo hauen erabilera asko zabaldu da, gehien bat bi arrazoi direla eta. Alde batetik, algoritmo heuristikoak era errazean aldatu eta moldatu daitezke problema berrietara eta beste alde batetik, konputazio-denboraren eta lortutako ebazpenaren kalitatearen arteko oreka egoki bat eskaintzen dute.

4.2 Metodo Heuristikoak

Algoritmo heuristikoak, funtsean, optimizazio-konbinatorioan oinarritzen dira eta berez, optimizazio-konbinatorioaren esparruko problemak dagoeneko konputazio zientziaren ildoan nabarmenki landu dira, batez ere azken hamarkada honetan. Gai honetan egindako ikerketak NP nahiz NP-osoko problemetako aldagaiek osatzen duten formulatutako funtzioen minimo edo maximoak aurkitzeko teknika efizienteak aurkitzean ardaztu dira batez ere. Orohar, tesi honetan zehar, horrelako funtzioa sarritan kostu-funtzioa edota helburu-funtzio bezala izendatuko dugu eta optimizazio-prozesuaren iterazioetan, kostu-funtzioan aldagai zehatz batzuk erabiltzean lortzen den neurketa kuantitatiboa, *fitness* terminoa erabiliz izendatuko dugu, orain arteko literaturaren terminologia erabiliz [128]. Optimizazio-konbinatorioaren eredu sinple eta klasiko bat saltzaile bidaiariaren problema da. Demagun saltzaile honek N hiri guztietatik behin bakarrik igaro behar dela, hasierako hirira itzuli baino lehen, bere salmentak egiteko. Hiri guzti hauen artean guztira egin behar duen ibilbidea saltzailearen bidaiaren kostu-funtzioa definitzen du eta beraz, saltzailearen ibilbide optimoa planteatzean datza problema hau, edo beste era batean esanda, kostu-funtzioaren minimo globala edota fitness balio onena lortzeko ibilbidea definitzen duten aldagaiak asmatu beharra dago. Saltzaile bidaiariaren probleman eta berez NP-osoak diren azpimultzo guztietako problemetan, hurbilpen deterministiko bat erabiltzen denean, ebazpena aurkitzeko beharrezkoa den kostu-konputazionala probleman kontuan izandako aldagai kopuruaren arabera era esponentzialean handitzen da (N hiriak kasu honetan). Beraz, ebazpen determinista eta zehatza aurkitzeko, probleman planteatutako aldagai kopurua oso mugatuta egon behar da. Are gehiago, NP-osoak diren problemak ebazteko, N potentziara mugatutako konputazio baliabideak erabili ezkero ez dago ebazpen zehatzik lortzeko biderik, hala ere, noizbait honelako problema bat ebazteko bide bat lortuko balitz, orduan baliteke mota honetako problema guztiak

ebazteko prozedura bat izatea. Hala eta guztiz ere, oraingoz ez dago honelako ebazpenak egiterik eta gainera ez dago ezta argi NP-ososko problema baten zailtasuna definitzen dituzten ezaugarriak ezberdintzerik. Gainera, NP-osoak diren problemak ezaugarri praktiko garrantzitsuak dituzten problematika anitzetan aurkitu daitezke. Horregatik, metodo heuristikoak garatu dira, hain zuzen ere, horrelako problemen aurrean N ordenaren adinako baliabide konputazionalen bidez problemaren ebazpen *egokiak* aurkitzeko asmoz [128].

Algoritmo heuristikoak normalean bi estrategia ezberdin erabiltzen dituzte optimo globala aurkitzeko: *divide and conquer* deritzoguna, hau da, problemaren bilaketa-espazioa azpi-problema mugatuagoetan zatitzea, eta gero, bigarren pauso baten hobekuntza iteratiboak egiten dira. Jatorrizko problema, azpi-problema txikiago eta sinpleagoetan zatitu daiteke, baldin eta azpi-problemak ez-korrelatuak badira, bestela, azpi problemen ebazketa egindakoan, berriro ere azpi-multzo hauek batzen direnean, ez genuke inolako abantailarik lortuko honelako irizpide bat erabilita. Bestalde, hobekuntza iteratiboak egiteko, algoritmoak hasierako konfigurazioaren kostu-funtzioa ebaluatzen du. Gero, prozesu iteratiboan, algoritmoak aldagaiak aldaraziko ditu, kostu-funtzioan hobekuntza bat lortzen duen konfigurazio bat lortzen duen arte. Jarraian, algoritmoak *downhill/uphill* mugimenduak sortuko ditu eta prozesua errepikatzen da inolako hobekuntzarik aurkitzen ez den arte, edota aldez aurretik ezarritako iterazio-kopuru batera heldu arte. Noski, ez dago inongo ziurtasunik algoritmoak bi mekanismo hauen bitartez optimo globala lortuko duela ziurtatzeko. Hain zuzen ere, bi mekanismo hauek ez dute optimo-lokaletatik ihes egiteko baliabide eraginkorrik hornitzen. Horretarako, optimizazio-prozesua behin baino gehiagotan burutu daiteke, hasiera puntu ezberdinak hautatuz, eta bertatik emaitza egokiena hautatu daiteke. Metodo heuristiko gehienak ez dute honen beharrik, dagoeneko optimo-lokaletatik ihes egiteko baliabideak inplementatzen dituztelako. Tresna hauek operadore probabilistikoak dira eta haietan kontrolpenean dagoen zorizkotasun maila batek eragiten du. Operadore probabilistiko hauek direla eta, algoritmo heuristiko baten saiakera bakoitzean lortutako emaitzak ez dute zertan bat etorri eta baliteke algoritmoak konbergentziarik ez lortzea ere, edota arinegi konbergentzia puntura iristea, bitartean optimo globala aurkitu gabe. Beraz, algoritmo heuristikoak erabiliz kristal fotonikoen esparruko problemak ebazteko orduan, ezin daitekeenez aldez aurretik jakin zein algoritmok jasoko dituen emaitzarik onenak, hiru algoritmo heuristiko erabili ditugu, Fast Simulated Annealing (FSA) [129], Improved Harmoy Search metodoa (IHS) [130] eta Non Sorting Genetic Algorithm II (NSGA-II)[132], azken hau helburu anitzetako problemak ebazteko.

FSA algoritmo heuristiko klasiko bat da, aspaldi garatu izan zena eta gaur egun bere erabilera nabarmenki murriztu da, algoritmo berriak agertu diren heinean. Hala ere metodo hau oso eraginkorra dela frogatu da, aplikazio ezberdin ugarietan [133–139] , baina kristal

fotonikoen kasuan ez dagoenez aldez aurretik egindako frogaketarik, algoritmo honek eskainitako emaitzen etekina aztertuko dugu tesi honetan eta horretarako, gaur egun ospe handia jaso duen IHS algoritmoaren emaitzekin konparatuko dugu. Beste alde batetik, NSGA-II metodoa algoritmo konplexuago bat da, aldi berean helburu bat baino gehiagoren gaineko optimizazioa egitea ahalbidetzen duena.

4.2.1 Fast Simulated Annealing metodoa

Simulated annealing (SA) optimizazio-teknika meta-heuristikoen artean oso ezaguna den teknika bat da eta dagoeneko optimizazio-konbinatorio motatako problema anitzetan frogatu da [140–145]. Simulated annealing terminoak metalurgian erabiltzen den *annealing* prozesutik dator. Prozesu honetan, materialak tenperatura altuetaraino berotzen dira eta gero era kontrolatu batez astiro hozten dira, materialen egitura kristalinoaren akatsak minimizatzeko. Beroak, atomoak hasierako posizioetatik (barne-energiaren minimo lokala) mugituarazten ditu, eta zorizko ibilbideak jarraituz energia altuagoko estatuetara ailegatzeko aukera dute. Jarraian, hozketa prozesu leun baten bidez, hasierako konfigurazioak baino barne energia baxuagoa duten konfigurazio berriak aurkitzeko aukerak handitzen ditu edo beste era batera esanda, minimo global bat aurkitzeko aukerak sustatzen ditu prozesu honek. Bilaketak espazioko optimo-lokalak ekiditeko aukera eskaintzen du, *Hill Climbing* (HC) bezalako beste hainbat optimizazio-teknika sinpleagoak aurkezten duten ahultasunak gainditzeko. Horretarako, energia altuagoetara salto egiteko probabilitate ez-nuluko mekanismoa erabiltzen du, hau da, sistemaren energia minimizatzeko joera hausten duten soluzioak esleitzen ditu operadore probabilistiko batzuen arabera. SA-ren oinarri teorikoak Kirkpatrick et al.-ek ezarri zituzten 1983an [128]. Lehenbiziko SA-ren inplementazio horretan, Metropolis Monte Carlo algoritmoa [146] erabiltzea proposatu zuten tenperaturaren parametro artifiziala kudeatzeko, eta horren bidez energia altuagoetara mugiarazteko onarpen-probabilitatea kontrolatzeko[1]. Simulated annealing metodoa erlazionatutako hiru baliagarri erabiltzen ditu, batik bat [149]:

1. $g_T(x)$: D parametroen energia estatu-espazioko probabilitate dentsitatea $x = x^i; i = 1, \ldots, D$, non T azpi-indizeak tenperatura parametroa adierazten du.

2. $h(\Delta E)$: Kostu-funtzio berria onartzeko probabilitatea, soilik aurreko kasuaren balioa kontuan hartuz.

3. $T(k)$: T tenperatura parametroaren annealing prozesuaren planifikazioa, k annealing denbora-tarteen araberakoa dena.

[1] Hala eta guztiz ere, metodo honen oinarrien lehenbiziko proposamenak ere beste hainbat egileei esleitzen zaizkie, era independientean eta aldi berean antzeko lanak aurkeztu bait zituzten, [147, 148] esaterako.

Konfigurazio berri bat onartzeko probabilitatea, aurreko E_k energia estatutik, E_{k+1} energia duen estatu berri bat lortzeko aukeren araberakoa da. Kostu-funtzio berri bat onartzeko probabilitateak Boltzman-en distribuzioa jarraitzen du eta ondorengo eran idatzi daiteke [150]:

$$h(\Delta E) = \frac{e^{\frac{-E_{k+1}}{T}}}{e^{\frac{-E_{k+1}}{T}} + e^{\frac{-E_k}{T}}} = \frac{1}{1 + e^{\frac{-\Delta E}{T}}} = e^{\frac{-\Delta E}{T}}, \tag{4.1}$$

non ΔE kostu-funtzioaren gaitasun maila edo fitness-aren eta aurreko kostu-funtzioaren fitness-aren arteko energia diferentzia da, funtsean, ΔE = fitness$_{k+1}$ - fitness$_k$. Hasieran, T tenperatura parametroari balio altu bat ezartzen zaio. Tenperatura altu honek, optimizazio-prozesuaren hasierako pausoetan fitness balio txarrago bat ematen duten parametroak onartzeko probabilitate handia eskaintzen du. Prozesuaren fase honi dibertsifikazio fasea deitzen zaio. Bertan algoritmoak bilaketa-espazioan zehar araketa zabal bat egiten saiatzen da, optimo-lokal batzuk alde batera ustearen truke. Gero, hozketa prozesuan, energia altuagoetarantz egindako mugimenduak gero eta gutxiago izango dira, eta beraz, algoritmoak kostu-funtzioaren fitness-a hobetzen saiatuko da batez ere, minimo lokalen inguruan bideratuz bilaketa. Dagoeneko SA algoritmoarentzat hainbat metodo alternatibo proposatu izan dira [151, 152], baina honelako algoritmo gehienak SA inplementazioan aldaketa garrantzitsuak inposatzen dituzte. Aldiz, Fast Simulated Annealing (FSA) algoritmoak [129], SA algoritmo originalak normalean behar duen konputazio-denbora murriztea lortzen du, bilaketa semi-lokal bat erabiliz eta optimizazio-prozesuaren eraginkortasuna sustatzen du, energia altuagoetarantz egindako saltoen kontrola hobetuz, beraz minimo lokalen inguruko bilaketa sakonduz. Hau guztia, jatorrizko SA algoritmoaren oinarriak mantenduz egitea lortzen du. Izan ere, kostu-funtzioak minimo bakar bat duenean, jatorrizko SA algoritmoak modu bizkor batean aurkitu dezake oinarrizko estatu hori, gradienteaz baliatutako minimizazio metodoak egiten duten bezala jokatuz. Baina, kostu-funtzioak minimo ugari dituen kasuetan, ez-konbexua den optimizazio-teknika bat behar da, metodoak minimo lokaletatik ihes egiteko tresnak izan behar dituelako. Szu et al.–ek SA metodoa birformulatu zuten, FSA metodoan [129] D-dimentsioetako espazioko kostu-funtzio berrien onarpen-probabilitatea, $g(\Delta x)$, Cauchy-Lorentz probabilitate distribuzio bat jarraituz antolatzea proposatu zuten:

$$g(\Delta x) = \frac{T}{((\Delta x)^2 + T^2)^{\frac{D+1}{2}}}. \tag{4.2}$$

Cauchy distribuzioak distribuzio normalak edo Gaussianoak (Boltzman) baino emaitza hobeagoak lortzen ditu, izan ere, funtzioaren muturrak zapalagoak direnez minimo lokalak era intentsiboago baten hausnartzeko aukera ematen bait du [129]. Ondorioz, FSA metodoak duen annealing prozesua jatorrizko SA algoritmoarena baino esponentzialki bizkorragoa

da. Optimo-lokal bat aurkitu orduko, FSA algoritmoak SA algoritmoaren ohiko prozesua jarraitzen du, funtsean, tenperatura parametroaren araberako energia altuagoko konfigurazioak onartzeko aukeraz gidatutako optimizazio zikloa jarraituko du. Gero, tenperatura parametro hau txikiagotzen da, hozketa prozesu leun bat jarraitzeko. Bereziki, algoritmoak tenperatura parametro hau sistematikoki txikiagotuko du, k annealing parametroaren balio bakoitzerako. k parametroa algoritmoaren ziklo kopuruaren bestelakoa izango da, re-annealing prozesu bat inplementatzen ez bada behintzat. Tenperatura parametroa orduan, honela berridazten da:

$$T = \frac{T_0}{k}, \tag{4.3}$$

non T_0, i—aldagaiaren hasierako tenperatura balio da, eta k, i—aldagaiaren annealing parametroa da. Tenperatura baxuagoak onarpen-probabilitate baxuagoak suertatzen dituzte. Era berean, Δ handiago batek ere onarpen-probabilitate baxuak suertatzen ditu. Pauso ez-intuitibo honek, batzuetan bilaketa eremu berri bat aurkitzeko gaitasuna ematen du, funtsean, kostu-funtzioaren balioa txikiagotzen ez duten konfigurazioak ere noizbehinka onartuz, hasierako iterazioetan aurkitutako minimo lokal batetik ihes egiteko aukera dago, minimo global baten bila jarraitzeko.

Gainera, gure FSA algoritmoaren inplementazioan re-annealing eskema bat ere erabili da. Re-annealing-ak bilaketa-espazioaren inguruko parametroen artean, emandako aldaketen sumagaitz diren efektuak aurkitzeko erabiltzen da, eta bestetik, kostu-funtzioan efektu gehien duten parametroetan ardazteko gaitasuna eskaintzen du. Re-annealing-ak annealing parametroak iterazio zenbakia baino balio txikiagora ezartzen ditu eta tenperatura parametroa handitu egiten du dimentsio bakoitzean, funtzio objetiboaren gradientearen arabera, dimentsio bakoitzean. i, k_i osagarriaren annealing parametroa hurrengo formularekin kalkulatzen da:

$$k_i = \log\left(\frac{T_0}{T_i}\frac{max(s_j)}{s_i}\right), \tag{4.4}$$

non T_i, i aldagaiaren tenperatura parametroa da, eta s_i helburu-funtzioaren gradientea da i norabidean, i norabideko tarteen arteko diferentziaz biderkatuta dagoena. Azkenik, aldez aurretik zehaztutako iterazio-kopurua betetzean edota fitness helburutik gertu dagoen balioa, Δx, lortu denean algoritmoa gelditukoa da. 4.1 irudian lan honetan erabilitako FSA algoritmoaren pseudo-kodigoa eta diagrama erakusten dira.

4.2.2 Improved Harmony Search (IHS) algoritmoa

Harmony Search (HS) algoritmoa, musikaren inprobisazio prosezuan inspiratutako optimizazio-algoritmo meta-heuristiko bat da. HS algoritmoa Geem et al.-ek proposatu zuten 2001. urtean



4.1. Irudia Testu honetan erabilitako FSA algoritmoaren fluxu-diagrama.

[153]. Ordutik hona algoritmo hori optimizazio-konbinatoriozko problema ugarietan aplikatu da [154–156]. HS algoritmoa, izaera jarraiko aldagaiak maneiatzeko asmoz proposatu zen eta funtzio objetiboaren deribatuak erabili beharrean, bilaketa-prozesu estokastiko aleatorioan oinarritzen da. Kontzeptualki, HS algoritmoak jazz musika talde batek melodia baten harmonia hobetzearren egiten duen ekintzak imitatzen ditu, melodien parekoak diren funtzio berriak sortzeko prozesuan, optimizazio helbururantz hurreratuz. Hau egiteko, musikariak egiten dituen ekintzak hautaketa aldagai multzo batez adierazten dira, une baten inprobisatutako harmonia iterazio konkretu baten sortutako soluzio-bektoreaz osatzen da eta harmoniaren musikalitatea kostu-funtzioaren fitness-aren balioarekin parekatzen da analogia horretan. Beraz, musika taldeak batera jotzean melodia bat hobetzeko jarraitzen dituzten ekintzak imitatuz, batik bat, nota edo akorde berriak sortuz, edota nota hauek aldatuz, Harmony Search algoritmoak ere antzerako eredua jarraituko du fitness balioak problemaren

optimo globalarekin bat egiteko [157]. Gainera, musika berri baten inprobisazio prozesuan hiru egoera ematen dira: musikari batek doinu bat aurrez aurretik ikasi duen modu berean jo dezake, edo antzerako doinu bat jo dezake, bertako nota edo horien tonuren bat aldatuz; bestela ere, nota aleatorio berriak sartu ditzake doinuan, betiere, melodiaren musikalitatea hobetzearren. Hiru egoera horiek kontuan hartuz Geem et al.-ek optimizazio-prozesu berri bat proposatu zuten. Optimizazio-algoritmo honek hiru tresna erabiltzen ditu: harmonia ezberdinen memoria bat, tonuaren aldaketa eta zorizkotasuna. Bapatean sortutako musikaren analogiarekin jarraituz, HS algoritmoak musikak erabiltzen duen terminologia bera erabiltzen du, esaterako, hautagai den soluzio-bektore bakoitza harmonia bat da eta harmonia bakoitza notaz osatuta dago, algoritmoan berez aldagaien balio multzoz osatuta daudenak. Beste alde batetik, Improved Harmony Search (IHS) algoritmoa [130] jatorrizko HS algoritmotik sortutako beste bertsio bat da.

IHS algoritmoak, jatorrizko HS algoritmoaren soluzio-bektoreak sortutako zehaztasuna eta konbergentzia-denborak hobetzeko helburua duen metodoa da. IHS algoritmoaren prozedura hurrengo puntuetan laburbiltzen da:

- Hasi optimizazio-problema eta algoritmoaren parametroak- Optimizazio-problema orokorrean minimisazio funtzio eran formulatzen da

$$\text{Minimize}, f(x): \quad \text{s.t.}: x_i \in X_i, \quad i = 1, 2, ..., N, \tag{4.5}$$

  non $f(x)$ helburu-funtzioa bait da; x aldagai multzoa x_i optimizazio-problemaren aldagai bakoitzarentzat, non ${}_L x_i \leq X_i \leq_U x_i$ (domeinu jarrai baten formulatutako problemarentzat), eta ${}_L x_i$ eta ${}_U x_i$, i aldagaiaren azpi eta goiko mugak bait dira, hurrenez hurren. Pauso honetan ere HS algoritmoak erabiltzen dituen parametroak ere zehazten dira:

  - Harmonien memoria (HM): hautagai diren soluzio-bektore guztiak biltzen dituen matrize bat da. Hasierako pauso honetan matrizeko aldagai guztiak balio aleatorioak hartuko dituzte, betiere ${}_L x_i$ eta ${}_U x_i$, baldintzen artekoak izango direnak.
  - Harmonien memoriaren tamaina (HMS): harmonien memoriaren barnean egokituko diren soluzio-bektore kopurua definitzen du.
  - Harmonien memoriaren kontsiderazio-indizea (HMCR): HM-tik nota bat aukeratu eta harmonia berri bat sortzeko probabilitatea definitzen duen operadore estokastikoa da.
  - Tonua ajustatzeko indizea (PAR): HM-n gordetako harmoniatik hautatutako nota baten tonua aldatzeko probabilitatea definitzen duen operadorea da.

– Hautaketa aleatorioaren indizea (RSR)[131]: HM-ko nota baterako balio aleatorio berri bat ezartzeko probabilitatea definitzen du. Operadore hau ez da HS algoritmo originalean, ezta IHS algoritmoan proposatzen. Hala eta guztiz ere, operadore berri hau gure inplementazioan sartzea erabaki genuen, zorizkotasun iturri osagarri bat izan dadin.

– Algoritmoa gelditzeko irizpidea: normalean iterazio-kopuru (NI) bat betetzean prozesua gelditzeko irizpidea hartzen da.

HMCR, PAR, RSR operadore estokastikoak xehetasun gehiagoz deskribatzen dira ondorengo 4.2.3 atalean:

- Sortu balio aleatorioak HM harmonia matrizean goiko eta beheko limiteen barneko balioekin. Gero, aldagai bektore bakoitza ebaluatu egiten da eta matrizeko bektoreak fitness balioaren arabera sailkatzen dira,

$$HM = \begin{bmatrix} x_1^1 & \cdots & x_n^1 & | & f(\mathbf{x}^1) \\ \vdots & \ddots & \vdots & | & \vdots \\ x_1^{HMS} & \cdots & x_n^{HMS} & | & f(\mathbf{x}^{HMS}) \end{bmatrix}. \tag{4.6}$$

- Harmonia berri bat inprobisatu. Harmonia berria HM-ko harmoniak erabiliz sortzen da, $x' = (x'_1, x'_1, \ldots, x'_N)$. Diseinuaren aldagai baten, x'_i, balioa, harmonia berria sortzeko erabili dadin, modu arbitrarioan. Nota berriak sortzeko, HMCR parametroa erabili daiteke. HMCR-k 0 eta 1 bitarteko balioa hartu dezake:

$$x' = \begin{cases} x'_i \in x_i^1, x_i^1, \cdots, x_i^{HMS} \\ x'_i \in X_i \quad \text{with probability} \quad (1 - HMCR) \end{cases} \tag{4.7}$$

Oro har, x'_1 nota berri bat sortzeko, HM-tik balio zehatz bat aukeratzeko probabilitatea HMCR probabilitate operadoreak zehazten du; bestela $(1 - HMCR)$ probabilitateaz, nota berri horrek balio aleatorio bat hartuko luke, HM memoriako notaz beste dagoena. Hurrengo pausoan, harmonia berriaren nota bakoitza aztertzen da, nota hauen tonua aldatu behar den erabakitzeko. Prozesu honek PAR parametroa erabiltzen du, HM-ko noten tonua aldatuko du PAR probabilitateaz, edo bestela ez du aldaketarik egingo $(1 - PAR)$ probabilitatearekin. Oro har, nota baten tonua aldaketa egitea esleitzen bada, x'_1 nota horrek aldameneko tonu balioa hartuko du, tonuaren aldakuntza banda-zabaleraren tarte arbitrario bat (bw) erabiliz. Gure IHS algoritmoaren inplementazio partikularrean, zorizkotasun tresna gehigarri bat erabili izan dugu, Hautaketa Aleatorioaren indizea (RSR), [158]-ean proposatu zena. Operadore probabilistiko honek SA algoritmoan

annealing-a edota algoritmo genetikoen (GA) mutazio operadoreak [159] (ikusi geroago azaltzen den algoritmo genetikoaren azalpena, 4.2.4-ean) bezalako funtzioak egiten ditu; funtsean, nota aleatorioak sor ditzake harmonia berrian RSR probabilitatearekin.

- HM eguneratu. Harmonia bektore berria, HM-n gordetako harmonien kostu-funtzio baliorik txarrena duen harmonia baino hobeagoa bada, orduan, harmonia berriak HM memorian gordetako harmonia ordezkatzen du. Jarraian, HM matrizea berriz sailkatzen da helburu-funtzioaren fitness balioaren arabera.

- Aurreko pausoak ziklikoki errepikatzen dira, algoritmoa gelditzeko irizpidea betetzen den unea ailegatzen den arte.

IHS algoritmoak ohiko algoritmo heuristikoen osagaiak biltzen ditu. Izan ere, Tabu-search metodoarekin [160] parekotasun ugari ditu, adibidez, aurreko soluzio-bektoreak gorde egiten ditu harmonia-memorian. Gainera, HMCR parametroaren erabilerak, SA algoritmoaren moldagarritasuna ekartzen du IHS algoritmora. Beste alde batetik, IHS algoritmoak, algoritmo genetikoek egiten duten moduan, aldi berean soluzio ugari kudeatzeko gai da. Gaitasun hau oso komenigarria da, arkitektura paraleloko konputazioa erabiliz iterazio bakoitzean kalkulatzen diren soluzio-bektoreak aldi berean ebazteko aukera ematen bait du. Aldiz, IHS algoritmoaren inprobisazio operadoreak beste algoritmoetatik bereizten du eta azken finean, hauek dira metodoaren optimo globalaren bilaketa gidatzen duten tresnak. Ondorengo atalean, operadore hauek sakonki aztertuko ditugu.

4.2.3 IHS: inprobisazio-operadoreak

- **Harmonien-memoriaren kontsiderazio-indizea, (HMCR)**: HM-n dauden noten arteko nahasketa indizea definitzen du. Parametro honek, bapatekotasun prozesuan, nota zehatz batek HM memorian geratzen diren beste nota baten balioa hartzeko probabilitatea ezartzen du.

  Harmonia-memoriaren erabilerak garrantzia handia du, algoritmo genetikoetan ere (ikusi 4.2.4 atala) hoberen moldatzen diren banakoen jarraipena ziurtatzen du. HMCR parametroak balio baxua hartzen duenean, problemaren aldagaietan bilaketa zabal bat egingo da, eta aurreko soluzioen erabilera urria egingo da. Aldiz, HMCR operadoreak balio altua hartzen badu, soluzioen sakabanaketa galdu egiten da eta algoritmoa era azkarregi batean konbergentziara heldu daiteke. Beraz, HMCR operadorea problema bakoitzaren menpeko balioa hartu behar du, gure kasu partikularrean, 0.9-ko balioa izango du.

- **Tonua ajustatzeko indizea, (PAR)**: tonuaren banda-zabalera, bw_{range}, parametroaren bidez tonu-aldaketa kontrolatzen duen operadorea da. Musikan, nota baten tonua ajustatzean, bere soinuaren maiztasuna apur bat aldatzen ariko ginateke. IHS algoritmoan, tonua aldatzeak HM-n gordetako aldagai baten balioan, notaren alfabetoko aldameneko balio berri bat egokitzen zaio nota horri.[2]. Notaren tonuaren aldaketa hau gauzatu dadin, PAR operadoreak honako aldakuntza zehazten du

$$x_i' = x_i + bw \times \epsilon, \tag{4.8}$$

non x_i HM memorian gordetako nota bait da, bw banda–zabalera da, ε distribuzio uniforme batetik aleatorioki sortutako balio bat da, $[-1, 1]$ bitartean dagoena, eta x_i'-k tonu berria duen nota izendatzen du. Egile askoren iritziz parametro honen erabilerak dibertsifikazioa eta intentsifikazioa orekatuz egindako bilaketa lokal bat egitearekin parekatu daiteke [130]. PAR balio baxu batek IHS algoritmoaren konbergentzia-tartea luzatu dezake, bilaketa-espazioa azpiespazio estu batera mugatuko litzatekeelako. Beraz, PAR operadorearentzat, ohiko balioak $0.1 \leq 0.5$ ingurukoak dira, aplikazio gehienetan. Tonuaren ajusteak algoritmo genetikoetan ematen den mutazio-operadorearen pareko rola betetzen du.

Geem-ek [153] proposatutako jatorrizko HS algoritmoan, PAR eta banda-zabaleraren balioak finko mantentzen dira eta ez dute aldaketarik sufritzen optimizazio-prozesuan zehar. Beraz, operadore hauen hautaketa kritikoa izaten da, emaitzaren konbergentzia eta kalitatearen ikuspuntutik. Hau dela eta, jatorrizko HS algoritmoak iterazio asko behar izaten ditu optimo globala aurkitzeko. Aldiz, IHS algoritmoak [130], *PAR* eta *bw* parametroen balioak ziklikoki aldatzen ditu, bilaketa-prozesuaren konbergentzia leuna izan dadin. FSA algoritmoarekin analogia eginez gero, operadore hauen moldaketak, FSA-an erabiltzen den Cauchy-Lorentz probabilitate distribuzioaren pareko eragina sortzen du. Beraz, IHS algoritmoan *bw* parametroak balio altu bat hartzen du algoritmoaren hasierako zikloetan, honela soluzioen dibertsifikazio lortzen bait du. Gero, zikloak aurrera egin ahala, *bw*-ari balio baxuak ezartzen zaizkio, dibertsifikazioaren ordez, bilaketa lokalak burutu ditzan. Hau dela eta, IHS algoritmoan, PAR operadorea n zikloan honela kalkulatzen da:

$$PAR(n) = PAR_{min} + \frac{PAR_{max} - PAR_{min}}{N} \times n, \tag{4.9}$$

[2]Kasu honetan, *alfabeto* terminoak, nota batek izan dezakeen eta muga balio konkretu batzuen bitartean dauden balio diskretu edo jarraiei deritzogu.



Initialize variables (x*1*,...x*n*, HM, HMCR, PAR, bw, RSR).
Fill HM with random harmonies and resolve cost functions.
LOOP until **stop criteria**
Readjust PAR and bw parameters
if HMCR>rand **then**
  x'$_i$=HM(rand(1...HM), rand(1...n))
  if PAR>rand **then**
    if 0.5>rand **then**
      x'$_i$=x'$_i$+rand*bw
    else
      x'$_i$=x'$_i$+rand*bw
    end if
  if RSR>rand **then**
    x'$_i$=random value within variable bounds
    return x'$_i$
  else
    return x'$_i$
  end if
else
  x'$_i$=random value within variable bounds.
end if

Solve harmony.
sort HM according to f_1...f_{HM}
end **LOOP**

4.2. Irudia Tesi honetan inplementatutako IHS algoritmoaren fluxu-diagrama eta pseudo-kodea

non N guztira egingo diren iterazio edo ziklo kopurua bait da (algoritmoa gelditzeko irizpidea). Beste alde batetik, banda-zabalera n iterazioan ondoko era ez-linealan kalkulatzen da:

$$bw(n) = bw_{max} \times e^{c \times n}, \tag{4.10}$$

eta c koefizientea iterazio bakoitzean berriro kalkulatzen da,

$$c(n) = \frac{\ln \frac{bw_{min}}{bw_{max}}}{N}. \tag{4.11}$$

Soluzioen aniztasuna mantentzeko eta bilaketa-espazioa larregi mugatu ez dadin, PAR_{min} parametroari 0.4 balioa ezarri diogu lan honetan, eta $(PAR)_{max}$-ari 0.9 balioa eman zaio. Banda-zabalera minimoa eta maximoari, BW_{min} eta BW_{max}, 0.0001 eta 1 balioak ezarri dizkiegu, hurrenez hurren.

- **Hautaketa aleatorioaren indizea, (RSR):** zorizkotasunak algoritmoak proposatutako soluzioen aniztasuna sustatzen du eta beraz, optimo globala lortzeko soluzio ezberdinak hausnartzea bideratzen du. Nahiz eta PAR operadoreak antzeko eginkizuna duen, PAR-a alfabeto batez mugatutako eremu batera mugatuta dago eta beraz, bilaketa-prozesu lokal batean aritzen da. RSR $\in [0, 1]$ erlazioak, aldagaien domeinutik nota berri bat aleatorioki hautatzeko probabilitatea zehazten du. Operadore honek, SA algoritmoan energia altuagoetara salto egiteko probabilitatearen pareko eginkizuna betezen du, baina, kasu honetan, HM harmonien memorian sortutako perturbazioa, harmoniaren fitness baliorekiko modu independientean egiten da, RSR probabilitatea jarraituz soilik. Lan honetan RSR parametroari balio baxu bat, 0.1 ezarri diogu, algoritmoaren konbergentzia ziurtatzeko.

HS algoritmoak baldintza matematiko gutxi eskatzen ditu eta ez du hasierako baldintzen balio konkretuen ezarpenik behar. HS algoritmoak bilaketa-prozesu aleatorio estokastikoa erabiltzen duenez, deribatuen bidezko informaziorik ere ez du behar.

4.2.4 Helburu ugarien optimizazioa

Helburu-anitzetako optimizazioak kontraposizioan egon litezkeen helburuak, aldi berean optimizatzea ahalbidetzen duten algoritmoak dira. Orokorrean, helburu-anitzetako optimizazio-algoritmoak helburu bakarreko algoritmoak baino askoz ere konplexuagoak izaten dira. Soluzio optimo bakarraren ordez n helburu dituen optimizazio-problema baten ekuazioa honela adierazi daiteke:

$$c(n) = \frac{\ln \frac{bw_{min}}{bw_{max}}}{N}. \tag{4.12}$$

Izan ere, helburu-anitzen optimizazio-problema batean, helburu ezberdinentzat egoera optimo baten orekara daraman ebazpena aurkitzeko, helburu ezberdinen kostu-funtzioan era onenean egokitu daitezkeen aldagai ezberdinen balioak aurkitzean datza. Honelako problemak ebazteko, hasierako hurbilpen bat eginez, helburu-ugariren optimizazio-problemaren ekuazioa,

(4.12), helburu ezberdinen kostu-funtzioen haztatutako batuketa formara pasatzen da:

$$\min_{\mathbf{X}\in\mathcal{X}} f(\mathbf{X} = \sum_{i=1}^{n} \omega_i f_i(x)) \tag{4.13}$$
$$\text{subject to } g_i(\mathbf{X}) \leq c_i, \quad i = 0, \ldots, m.$$

eta beraz, (4.13)-ko helburu-anitzen problemaren ekuazioa, helburu bakarreko optimizazio-problema erara bihurtu da. Haztatutako batuketaren metodoak ω_i pisuak ezartzen dizkio helburu bakoitzaren kostu-funtzioari $f_i(x)$. Horretarako, $f_i(x)$ kostu-funtzioaren garrantzia estimatzen da, probleman kontsideratutako beste kostu-funtzioen eragin orokorrarekin konparatuz. Hala eta guztiz ere, pisu horientzat balio aproposenak bilatzea, orokorrean, zeregin ez-tribial bat da, eta optimizazio-problemaren naturaren ezagutza sakonean oinarritzen da. Beraz, helburu-anitzen optimizazio-problema bat modu honetan formulatzea sinplea dirudien arren, ebazpen-prozesua asko konplikatu dezake, $f_i(x)$ kostu-funtzioen ω_i pisuen ezarpenaren arbitrarietatea ez bait da batere argia. Beste alde batetik, Pareto-optimoen fronteak erabiltzea askoz ere hurbilpen xeheagoa da. Metodo honek, helburu-anitzen problemaren hautagaiak diren soluzio-bektoreen ($X = \{X_1, X_1, \ldots, X_N\}$), bilaketa, $X_n \in \mathcal{X} \forall n \in \{1, \ldots, N\}$ moduan adierazten du, $f(X) = \{f_1(X), f_2(X), \ldots, f_L(X)\}$ ebazpenak optimizatzeko [157]. Beste modu batean esanda, ebazpen bat Pareto-optimoa, edo ez-gainditutako Pareto-optimoa dela esaten da, baldin eta helburu batekiko hobekuntza batek beste edozein helburu batekiko degradapen bat sortzen ez duen beste inongo ebazpenik ez badago. 4.3 irudian Pareto-optimo fronte baten eredua aurkezten da. Bertan, agertzen den karratuaren barruko puntuak, helburu-anitzen optimizazio-problema bateko minimizazio prozesu baten aurkitutako hautagai ebazpenak lirateke. Problema honek bi helburu kontuan hartzen ditu aldi berean, f_1 and f_2 kostu-funtzioak kuantifikatzen dituzten helburuak, hurrenez hurren. Kasu honetan, C puntua ez lirateke Pareto-frontearen barruan egongo, A eta B puntuez gaindituta dagoen puntua bait da. Aldiz, A eta B puntuak ez daude domeinatuta beste edozein puntuz, eta beraz Pareto frontean kokatutako puntuak dira. Kasu idealean, Pareto-puntuak modu uniformean sakabanatuko lirateke frontean zehar, baina praktikan, hau ez da beti betetzen optimizazio-problema guztietarako.

Pareto-fronte zehatz baten baliagarritasuna estimatzeko modu konkreturik ez dago. Horretarako, ziklikoki Pareto-fronte ezberdinak lortuz, Pareto-fronteen arteko konparaketa egin daiteke. Beste alde batetik, optimizazio metodo klasikoak (*multicriterion decision-making methods* barne) helburu-anitzen optimizazio-problemak, helburu bakarreko optimizazio-problema eran formulatzea proposatzen dute, horretarako, soilik Pareto-optimoko frontearen ebazpen bakar bat kontuan hartuz. Ebazpen multzo bat hausnartzeko, horrelako metodo bat



4.3. Irudia Pareto-fronte baten eredua, hau da, bestelako soluzioz menperaturik ez dauden soluzio-puntuen multzoa.

erabiltzean, prozesua behin eta berriro errepikatzea beharrezkoa da, ebazpen ezberdin bat lortzeko asmoarekin simulazio aldi bakoitzean [161].

4.2.5 Algoritmo Genetikoak (GA)

Algoritmo ebolutiboak natura eta genetikan inspiratutako algoritmo heuristiko moldakorrak dira, mutazio eta hautaketa bezalako, bio-inspiratutako operadoreak erabiltzen dituztenak optimizazio-prozesuan. Bereziki, algoritmo genetikoak, algoritmo ebolutiboen azpimultzo bat dira, eta hauen jatorria John Henry Holland-ek 70.hamarkadan aurkeztutako lana da [162]. Algoritmo hauek *machine learning* eta adimen artifizialean gehien erabiltzen diren algoritmo motak dira [163–167]. Normalean, algoritmo genetiko baten hasierako biztanleriaren (soluzio-bektoreen multzoa, algoritmo genetikoen terminologian) aleatorioki sortutako aldagaiez betetzen dira [3]. Soluzio-bektore hauek, gizabanakoak edo fenotipoak deitzen dira, GA-en terminologian. Fenotipo bakoitzak parametro sorta bat biltzen du, parametro

[3]Bilaketa-espazioaren inguruko informazioren bat izan ezkero ere erabili daitezke hasiera pauso horretan.

hauek kromosoma izena hartzen dute eta optimizazio-problemaren baldintzez mugatuta daude. Belaunaldi (iterazio) bakoitzean, algoritmoak fenotipoen fitness balioa ebaluatzen du, helburu-funtzioen arabera. Gero, algoritmoak hurrengo belaunaldian iraungo duten fenotipoak hautatzen ditu, hau da, bizirik iraungo duen biztanleria zein den erabakiko du. Hurrengo pausoan, algoritmoak belaunaldi horren fenotipoen genomak (optimizazio-problemaren aldagai bakoitzari deritzo) aldatuko ditu konbinaketa eta mutazio aleatorioak erabiliz, ondorengo belaunaldiko gizabanakoak sortzeko. Belaunaldi-kopuru maximo bat sortutakoan, biztanleriak konbergentzia lortzen duenean edota onargarria den fitness balio bat lortutakoan, algoritmoak bilaketa-prozesua amaitzen du. Algoritmo genetikoak hiru operadore estokastiko erabiltzen dituzte orokorrean optimo globalaren bilaketako bidean.

Operadore hauetatik bik hautagai soluzioetan aldakuntzak eginez soluzio berriak sortzen dituzte eta hirugarren operadoreak aldiz sortutako soluzioen artetik zeintzuk izango diren hurrengo belaunaldiak sortzeko erabiliko diren arbasoak hautatzen ditu. Algoritmo ebolutibo (EA) estandarren eta GA kanonikoen arteko desberdintasun garrantzitsuenetako bat, algoritmo ebolutiboetako biztanleria ordezkatzeko estrategiaren gabezia da. Genetikoetan ordean, biztanleria hutsik hasten bada ere, betez joaten da gurasoetan *crossover* eta mutazioa aplikatuz. Hain zuzen ere, guraso-bikote bakoitzeko bi haur berri sortzen dira, eta hauek biztanleriaren memorian sartuko dira [157]. Operadore hauek era sekuentzialean aplikatzen dira biztanleriaren fenotipoetan iterazio bakoitzean ondoren azaltzen den eran:

- **Hautaketa-estrategia**. Hurrengo belaunaldian bizirik jarraituko duen fenotipoak hautatzeko prozedura zehazten du. Nahiz eta hautaketa hau egiteko estrategia ugari dauden, ondokoak dira sarritan erabiltzen diren estrategiak algoritmo genetikoetan:

  a) Fitness balioaren araberako hautaketa (FPS), erruletaren hautaketa metodoa ere deitutakoa. Hautaketa-estrategia hau Holand-ek proposatu zuen [162] eta proposatutako fenotipoen artean soluzio bat hautatzeko probabilitatea ezartzen du, gizabanako bakoitzaren fitness balioarekiko proportzionaltasuna ezarriz egiten du. Kromosoma biztanleriaren barruan dagoen i kromosoma baten f_i fitness balioarentzat, metodo honek p_i hautaketa-probabilitate bat esleitzen dio i kromosomari, horretarako p_i kalkulatuz $p_i = \frac{f_i}{\sum_{j=1}^{N} f_j}$, non N biztanleriaren gizabanako kopurua da. Prozesu hau, kontzeptualki kasino baten erruleta batekin parekatzen da. Erruleta hori biztanlerian dauden gizabanako kopuruaren adineko zatietan banatzen da eta zati bakoitzaren zabalera gizabanako bakoitzaren fitness balioarekiko proportzionala da. Beraz, hurrengo belaunaldian bizirik iraungo duten gizabanakoak hautatzeko, erruleta biratu egiten da eta saritutako gizabanakoa hautatutzat hartuko da. Prozesu hau N aldiz errepikatzen da N gizabanako

hautatzeko, bide batez biztanlerian zeuden gizabanako kopurua mantentzeko optimizazio-prozesuan zehar. Metodo honetan, fitness balio onena duten hautagai soluzioak baztertuta izateko probabilitate gutxi badute ere, badago hauek hurrengo belaunaldiko haurrak sortzeko hautatuta ez izateko probabilitatea. Beste alde batetik, estrategia honek soluzio ahulei ere hurrengo hautaketa-prozesura pasatzeko probabilitateak eskaintzen die. Hau, berez, abantaila bat izan daiteke, soluzio ahulen osagarri (gen) batzuk ere interesgarriak izan daitezkeelako hurrengo birkonbinaketa prozesuetan. Beste hautaketa teknika batzuk erruleta metodoaren teknika garatzen dute, James Baker-ek [168]-en proposatutako *stochastic universal sampling* metodoa esaterako.



4.4. Irudia (a) Fitness-aren araberako hautaketa metodoaren ilustrazioa. Hautagaiak diren soluzioak erruletan kokatzen dira, bakoitzaren fitness balioaren araberako zabalera duen lekua hartuz. Gero, erruleta biratu egiten da eta hautatuta izango den kromosoma suertatzen da. (b) *Stochastic universal sampling* teknika. Metodo honek modu berdinean sakabanatutako N selektore erabiltzen ditu (kasu honetan N=8) eta hortaz, erruletaren bira bakar batean hautatuak izango diren guraso guztiak aurkitzen dira. Metodo honetan fitness balio onena duten soluzioak hautagai espazioa asetzea ekiditzen du. Irudi hau [169]-tik moldatu da.

b)*Stochastic universal sampling* (SUS): Erruletaren metodoaren hobekuntza bat da. Soluzio onenen hautaketa egiten du metodo honek, baina aldi berean, soluzio onak hautatutako soluzioen multzoa betetzea ekiditzen du. FPS metodoak errendimendu eskasa aurkeztu dezake biztanleriaren memorian gordetako gizabanakoen artean zenbait kromosomek fitness balio oso handia dutenean, gizabanako ahulei hautagai izateko aukera gutxi uzten dizkio, alegia azken horiei hautaketa-probabilitate oso baxuak esleitzen bait dizkio. Stochastic universal sampling metodoan, hautatutako gizabanakoa adierazten duen identifikadore

bakar bat erabili beharrean, berdin tartekatutako N identifikadore erabiltzen dira, eta beraz, erruletaren bira bakar batean hurrengo belaunaldia sortzeko erabiliko diren guraso guztiak hautatzen ditu. Horrela, hautaketa-prozesua eraginkorragoa eta doia egiteko aukera eskaintzen du.

c)Torneoa: *torneo* hautaketa-prozesuak behin eta berriro aleatorioki hautatutako biztanleriaren azpimultzo batetik fitness onena duten gizabanakoak hautatzean datza. Jarduera hau gizabanako hauen arteko torneo lehiaketa bat egitearekin irudikatzen da. Lehenengo, k gizabanakoak hautatzen dira biztanleriaren multzo artetik aleatorioki, non $k \leq N$ aldez haurretik ezarritako balio osoa da. Gero, p probabilitatearekin torneoaren multzoko gizabanakorik onena hautatzen da. Hurrengo pausoan, torneoaren multzo horretatik bigarren gizabanakorik onena hautatzen da $p \times (1-p)$ probabilitatearekin, eta hirugarren hautagai bat balego torneo multzo horretan, $p * (1-p)^2$ probabilitatearekin hautatuko da. Hautaketa-prozesuak beraz, irizpidea hori jarraituko du hurrengoko hautagaientzat. Hautaketa hori modu errez batean moldatu daiteke torneo hautaketa metodoan. Horretarako k torneoaren multzoko hautagai kopurua xehetu daiteke, p hautaketa-probabilitatearekin batera. k kopuruak balio baxua hartzen badu, bakarrik fitness balio altua duten gizabanakoak hautatuko dira; balio altua hartzen badu ordea, beste hainbat gizabanako kontuan hartuko ditu, beti ere hauentzat hautaketa-probabilitatea baxuago bat erabiliz. GA algoritmoan, torneoaren tamainak 2 balioa hartzen du. [157].

- **Gurutzaketa**. Gurutzaketa kromosomen birkonbinaketa prozesua kontrolatzen duen operadore genetikoa da algoritmo genetikoetan. Operadore honek kromosoma berriak sortzen ditu (umeak), gurasoen kromosomen genak nahastuz fitness balio hobeagoa duten soluzioak sortuz, hain zuzen ere. Gurutzaketa hau egiteko teknika ugari daude, bakoitzak birkonbinaketa modu ezberdinetan egiten dutenak:

  b) Puntu-bakarreko gurutzaketa: metodo honek gurutzaketa egiteko erreferentzia-puntu bakar bat hartzen du aintzakotzat. Puntu hori aleatorioki hautatzen da, kromosoma baten gen kopuru totalaren artean. Gero, puntu horretatik aurrera dauden kromosoma zatiak bi kromosomen artean trukatzen dira, bi soluzio berri sortuz.

  c) Bi-puntuen bidezko gurutzaketa: Kasu honetan bi puntu erabiltzen dira, aleatorioki hautatutakoak, trukaketa egiteko. Beraz, bi puntuen artean dauden gen guztiak gurasoen artean trukatzen dira, hurrengo belaunaldirako bi soluzio berri sortuz.

d) Gurutzaketa uniformea: Puntu bakarreko eta bi puntuen arteko gurutzaketako tekniketan ez bezala, gurutzaketa uniformean ez da inongo punturik hautatu behar genen trukaketa aurrera eramateko. Horren ordez, teknika honek gen bakoitza ebaluatu egiten du eta trukatu egiten ditu p probabilitatearekin.



4.5. Irudia (a) Puntu bakarreko gurutzaketaren metodoa. Marra etenak aleatorioki hautatutako gurutzapen puntua adierazten du. Bertatik osatuko dira soluzio berriak.(b) Bi-puntuen bidezko gurutzaketaren metodoaren eskema. (c) Gurutzaketa uniformeak ez du ebasketa punturen beharrik, horren ordez, genak trukatuko ditu p_c probabilitate baten arabera. Irudi hau [170]-tik moldatuta dago.

- **Mutazioa**. Operadore genetiko hau aniztasun genetikoa sustatzeko erabiltzen da. 4.2.2 atalean azaldutako RSR operadorearen eta 4.2.1 atalean azaldutako energia altuenganantz ematen diren jausien pareko eginkizuna du operadore honek algoritmo genetikoen kasuan. Mutazio operadorearen eredu klasikoan mutazioak bit batek kontrako egoera bitarraren balioa hartzeko probabilitatea zehazten du. Mutazioaren bitartez, algoritmo genetikoak minimo lokaletatik ihes egiteko eta aukera berriak hausnartzeko ahalmena jasotzen du eta aldi berean, algoritmoak konbergentziara iristeko behar duen denbora murrizten du. Beste era batean esanda, operadore honek genen arteko permutazioa sustatzen du, gurasoengandik guztiz ezberdinak izan daitezkeen semeak sortzeko. Kodifikazio bitarraren ordez kodifikazio uniformea erabiltzen denean, mutazio operadore estandarrak distribuzio normala erabiltzen du, genaren balioari zarata ahul bat batuz edo kenduz p_M probabilitatearekin.

Algoritmo genetiko ohiaren erronka jarraituz, gaur egunerarte helburu-anitzen algoritmo ebolutibo (MOEA) asko proposatu dira [171–174]. Algoritmo hauek arrakasta itzela izan dute, hautagai soluzioen dibertsitatea mantentzeko potentzial handia bait dute, Pareto-optimo eskualderantz abiatzen diren heinean. *Non-dominated sorting genetic* algoritmoa (NSGA) [132]-en proposatu izan zena, algoritmo ebolutiboetatik arrakasta handia lortu zuen aurreneko algoritmoetako bat da. Hala eta guztiz ere, hurrengo hiru arrazoiengatik kritikak jaso ditu algoritmo honek:

I Algoritmo honen konplexutasunak $O(MN^3)$ erregela jarraitzen du, non M eta N, helburu kopurua eta biztanleria kopurua diren, hurrenez hurren. Arrazoi hau medio, algoritmo hau konputazio ikuspegitik garestia da biztanleria handietarako. Konplexutasunari dagokionez, *non-dominated sorting* irizpidea ezartzen du belaunaldi bakoitzean.

II NSGA algoritmo originalak ez-elitista den hurbilketa bat erabiltzen du. Elitismoa, belaunaldien artean, genotipo onenen iraupena ziurtatzen duen prozedura da, hain zuzen ere.

III Elkarbanaketa parametro bat, σ_{share}, zehaztea eskatzen du NSGA-k, biztanleriaren dibertsitatea ziurtatzeko eta soluzio baliokideen kopurua murriztua izateko.

NSGA-II algoritmoak, zailtasun guzti hauek ekiditzen ditu, ahal den neurrian. HSGA originalaren konplexutasunean, N tamainako biztanleria kontuan hartuz, ez-dominatutako lehenengo frontean egon behar diren soluzioak identifikatzeko, soluzio bakoitza beste soluzio guztiekin konparatu behar da, honela jakin bait daiteke soluzio hau dominatua dagoen ala ez. Beraz prozesu honek, soluzio bakoitzeko $O(MN)$ konparaketa egitea suposatzen du. Gainera, prosezu hau ez-dominatua den lehenengo mailako soluzio guztientzat errepikatu behar da, problemaren konplexutasuna igoz $O(MN^2)$-ra. Hau guztia amaitzean, lehenengo fronteko ez-dominatuak diren soluzio guztiak identifikatuta egongo lirateke. Hurrengo frontean dauden ez-dominatutako soluzioak aurkitzeko, berriro ere prozedura errepikatzen da. Kasu txarrenean, aurrerantzeko fronteen bilaketak $O(MN^2)$ konputazio [132] beharko lituzke. Azkenik, eta beti ere kasu txarrenean, N fronteko problema baten konplexutasun konputazionala $O(MN^3)$-koa litzateke. Guzti hau kontutan izanda, NSGA-II metodoak ez-dominatutako ordenaketa bat egiteko era bat eskaintzen du, eta aldi berean, problema ebazteko beharrezko konplexutasun konputazionala mugatu egiten du $O(MN^2)$-ra. Hau egiteko, NSGA-II algoritmoak bi entitate erabiltzen ditu, dominatuen zenbaketa egiten duten n_p eta S_p, alegia p soluzioak dominatzen dituen soluzio sorta, hurrenez hurren. Geroago, hurrengo atalean, ordenaketa metodo honi buruz xehetasun gehiago aurkitu daitezke. NSGA algoritmo originalaren bigarren ahultasuna, algoritmoaren elitismo eza da. Aldiz, NSGA-II algoritmoak elitismoan oinarritutako hautaketa bat egiten du, belaunaldien arteko biztanleriaren konbergentzia errazteko.

Azkenik, NSGA-II algoritmoak dibertsifikazio ezaren problemari aurre egiten dio, eta horretarako inolako parametro finkorik erabili barik egiten du. Jatorrizko NSGA metodoan, dibertsitatea σ_{share} banaketa parametroaren bitartez lortzen zan. Parametro honen balioak pareko fitnes balioa izango duten bi soluzioen arteko distantzia geometriko maximoa adierazten du. Bertan, erabiltzaileak berak ezartzen du parametro honen balioa, nahiz eta balio hau aldez aurretik ezartzeko inongo erreferentziarik ez dagoen. NSGA-II-n ordea,

parametro honen ordez, *crowed-comparison* deitutako hurbilketa erabiltzen da. Honek, biztanleriaren soluzio konkretu bakoitzaren inguruneko soluzioen dentsitatearen estimazioa egiten du. Beraz, metodo honek ez du erabiltzailearen partaidetzaren beharrik, belaunaldi bakoitzean berriz kalkulatzen den parametro bat erabiltzearekin parametroaren finkotasun eta ziurgabetasunak ekiditzen ditu.

4.2.6 NSGA-II algoritmoaren prozesua

Lehenbizi algoritmoak biztanleria sortu egiten du, gizabanako bakoitza mugatutako espazioaren barruko balio aleatorioekin betez. Gero, gizabanako bakoitza ebaluatu egiten da, M helburuen funtzio objektiboen arabera. Jarraian, biztanleria Pareto-fronte ezberdinetan ordenatu egiten da, horretarako ez-domeinatuen ordenaketa irizpidea jarraitzen da. Konkretuki, soluzio bakoitzari fitness balio bat ezartzen zaio, soluzio horiek fronteetan duten kokapenaren araberakoak izango dira. Fitness balioaz aparte, parametro berri bat kalkulatzen da, *crowding* distantzia, eta hau ere gizabanako bakoitzarentzat independienteki kalkulatzen da. Lehenengo belaunaldian, gurasoak torneo bitarraren teknika erabiliz hautatzen dira (beraz $k = 2$), horrela hurrengo belaunaldiko umeak sortu daitezen, gurasoen arteko gurutzaketa eta mutazio operadoreak aplikatu eta gero. Hurrengo pausoan, biztanleria eta sortu berriak diren umeen bitarteko biztanleriak ordenatu egiten dira berriro ere, ez-dominatuaren metodoa jarraituz. Horrela biztanlerian dauden gizabanako guztietatik bakarrik N gizabanakok jarraituko dute bizirik hurrengo belaunaldian, eta beste guztiak baztertuko dira. Bigarren iterazioan aldiz, prozesua ez da guztiz berdin egiten. Bigarren belaunalditik aurrera elitismoa erabiliko da, beraz, crowding distantzia eta fitness onena duten gizabanakoak zuzenean hurrengo belaunaldiko biztanlerian agertuko dira, inongo hautaketa-prozesutik pasatu gabe.

Azpiatal honetan algoritmoaren iterazio prozesuan potentzialki hautagai diren soluzioen ordenaketa metodoaren xehetasunak deskribatzen dira. Ondoren deskribatutako prozedura, [132, 175] lanetan proposatutako urratsak jarraitzen ditu hain zuzen ere. Lehenengo, P biztanleriako p gizabanako bakoitzarentzat hurrengoa egiten da:

- S_p zenbagailua, p soluzioak domeinatzen dituen soluzio sorta, eta n_p, hau da, p soluzio domeinatzen duten soluzio sorta hasieratzen dira, $S_p = 0$ and $n_p = 0$, hurrenez hurren. Gero, gizabanako bakoitzarentzat $q \neq p$ non $q \in P$ eta P biztanleriako gizabanako totalaren kopurua izanik:
  - p gizabanakoak q domeinatzen badu, orduan gehitu q domeinatuen S_p sortaren kontagailuan, hau da. $S_p = S_p \cup \{q\}$.
  - Aldiz q gizabanakoak p domeinatzen badu, orduan gehitu n_p kontagailuan unitate bat, i.e. $np = np + 1$.

Konparaketa konbinaketa guztiak egin eta gero, agian ez dago p domeinatzen duen beste gizabanakorik, hau da $n_p = 0$. Kasu horretan, p lehenengo frontean kokatuta egongo litzateke eta beraz, p gizabanakoaren rangoak 1 balioa izango luke ($p_{rank} = 1$). Gainera, lehenengo fronteari p gizabanakoa ere gehitzen zaio $F_1 = F_1 \cup \{p\}$. Ondoren, algoritmoak hurrengo Pareto-frontearen bilari ekingo dio.

- Fronteen kontagailuak, i, 1 balioa hartuko du hasiera batean, $i = 1$, eta i frontea hutsik ez dagoen bitartean, hau da, $F_i \neq 0$, hurrengoa egingo da:

  - Q aldagaia hasierazten da. $(i+1)^{th}$ fronteko gizabanakoak gordetzeko erabiltzen den aldagaia da hau eta hasieran zero balioa izango du, $Q = 0$.
  - Gero, F_i fronteko p gizabanako bakoitzarentzat eta q gizabanako bakoitzarentzat, non $q \in S_p$:
    - q gizabanakoaren menpekotasun-kontagailua gutxitu unitate batean, $n_q = n_q - 1$.
    - $n_q = 0$ bada, orduan hurrengo fronteetan kokatutako gizabanakoak ez dute q domeinatuko. Beraz, q-ri hurrengo rango balioa ematen zaio, $q_{rank} = i + 1$ eta Q sorta eguneratzen da, hau da $Q = Q \cup q$.
  - Iterazio bat bukatzen den bakoitzean, fronteen kontagailuari unitate bat gehitzen zaio, $i = i + 1$, eta Q multzoa i_{th} fronteari esleitzen zaio, hau da. $F_i = Q$.

4.2.7 *Crowding* distantziaren kalkulua

Menpekotasunik gabeko ordenaketak, gizabanakoak fronte ezberdinetan sailkatzen ditu, hauen egokitasun (fitness balioa) balioaren arabera. Baina, parametro baten xehetasunik gabe biztanleriaren dibertsitate-egonkortasun baldintzak betetzeko, NSGA-II metodoak *crowding* distantzia deitatutako trena erabiltzen du. *Crowding* distantzia hau, M helburuen arabera fronte ezberdinetan sailkatutako gizabanakoen arteko M dimentsioetako hiper-espazioko distantzia euklidearra kalkulatzean datza [175, 176]. F_i fronteko N gizabanako ezberdinen arteko crowding distantzia kalkulatzeko prozedura hurrengo pausoetan deskribatzen da:

- Distantzia euklidearrak zero balioa hartzen du hasiera batean, F_i fronteko gizabanakoentzat, $F_i(d_j) = 0$, non j gizabanako zehatz bat litzateke F_i frontean.
- m funtzio objektibo bakoitzarentzat:
  - F_i-ko gizabanakoak ordenatu m helburuaren fitnessaren arabera, $I = sort(F_i, m)$.

- Frontearen mugetan kokatutako balioei distantzia infinitu bat esleitzen zaio, horrela mugetako balioak beti hautatuak izango bait dira, $I(d_1) = I(d_n) = \inf$, eta beste gizabanakoentzat distantzia ondorengo moduan kalkulatuko da:

$$I(d_k) = I(d_k) + \frac{I(k+1) \times m - I(k-1) \times m}{f_m^{max} - f_m^{min}} \tag{4.14}$$

non $I(k) \times m$ balioa k^{th} gizabanakoaren m^{th} funtzio objektiboa da I-n [175].

4.2.8 NSGA-II algoritmoaren operadore genetikoak

NSGA-II-k *Simulated Binary Crossover* (SBX) [177, 178] eta mutazio polinomikoa [179], erabiltzen ditu gurutzaketa eta mutazio operadore giza, hurrenez hurren. SBX gurutzaketa metodoa bereziki egokia da optimo ugari dituzten problemetan eta baita aldez aurretik minimoen eta maximoen kokapenaren ezagutza eskaxa dagoen problemetan. Metodo honek bi seme osatzen ditu aldez aurretik hautatutako bi gurasoengandik, ondorengo transformazioak erabiliz [175]:

$$c_{1,k} = \frac{1}{2}\left[(1-\beta_k)p_{1,k} + (1+\beta_k)p_{2,k}\right] \tag{4.15}$$

$$c_{2,k} = \frac{1}{2}\left[(1+\beta_k)p_{1,k} + (1-\beta_k)p_{2,k}\right], \tag{4.16}$$

non $c_{i,k}$, i. umearen k aldagaia da, $p_{i,k}$ hautatutako gurasoa da, eta β_k aleatorioki egokitutako zenbaki aleatorioa da, ondorengo dentsitatea duena

$$p(\beta) = \frac{1}{2}(\eta_c + 1)\beta^{\eta_c}, \quad \text{if} \quad \leq \beta \leq 1 \tag{4.17}$$

$$p(\beta) = \frac{1}{2}(\eta_c + 1)\frac{1}{\beta^{\eta_c+2}}, \quad if \quad \beta > 1 \tag{4.18}$$

Distribuzio hau (0, 1) bitartean uniformeki muestreatutako u zenbaki aleatoriotik lortu daiteke. η_c gurutzaketa operadorearen distribuzioaren indizea da eta umeen eta gurasoen aldagaien arteko sakabanaketa neurria kontrolatzen du. Ondorengo eran formulatu daiteke:

$$\beta(u) = (2u)^{\frac{1}{\eta+1}} \tag{4.19}$$

Mutazio polinomikoak c_k ume berri bat sortzen du p_k gurasotik ondorengoa jarraituz

$$c_k = p_k + (p_k^u - p_k^l)\delta_k \tag{4.20}$$

non p_k^u gurasoaren aldagai baten goiko muga-baldintza eta p_k^l azpiko muga-baldintza dira eta δ_k distribuzio polinomikotik jasotako aldakuntza txiki bat da [175]

$$\delta_k = (2r_k)^{\frac{1}{\eta_m+1}} - 1, \quad \text{if} \quad r_k < 0.5 \tag{4.21}$$

$$\delta_k = 1 - [2(1-r_k)]^{\frac{1}{\eta_m+1}}, \quad \text{if} \quad r_k \geq 0.5, \tag{4.22}$$

non r_k uniformeki muestreatutako zenbaki aleatorioa da $(0,1)$ bitartean eta η_m mutazio distribuzioaren indizea da.

Ondoren, algoritmoak, sortu berri den biztanleria aurrekoarekin batzen du. Hau eginez, aurreko biztanleriako gizabanako onenak eta baita belaunaldi berriko gizabanako onenak hautatu ditugunez, elitismoa bermatuta dago. Belaunaldi berria sekuentzialki fronte bakoitzarekin osatzen da, biztanleriaren tamaina gainditzen den arte. F_j fronteko gizabanako guztiak biztanleriara gehitzean biztanleriaren tamaina maximoa, N, gainditzen bada, orduan, F_j fronteko gizabanakoak *crowding* distantziaren arabera hautatzen dira, biztanlerian N gizabanako hautatzen diren arte. Prozedura hau belaunaldiz-belaunaldi errepikatzen da, biztanleriaren konbergentzia lortzen den arte edota aldez aurretik ezarritako iterazioak betetzen diren arte.

Kapitulua 5

Kristal fotoniko zirkuituen alderantzizko diseinuaren bidezko optimizazioa

Kapitulu honetan kristal fotonikoetan egindako eta alderantzizko diseinuan (ID) oinarritutako banda-zabalera handiko dispositibo pasiboen diseinatutako egiturak aurkezten dira. Egitura horiek, bereziki zirkuitu trinko fotonikoetan (PIC) ezinbestekoak diren funtzioak era eraginkor baten betetzeko burutu dira. Egitura hauetan, aurreko kapituluetan deskribatutako optimizazio metodo heuristiko eta genetikoak erabili dira ID prozesuaren araketa gidatzeko. Lortutako egiturak, intuizioan oinarritutako egiturak baino eraginkortasun eta funtzionalitate hobeagoak aurkezten dituzte. Metodoak, dagoeneko luzaro frogatu izan diren bi optimizazio metodo alternatiboen baliabideak erabiltzen ditu, aldez aurretik ezarritako irizpide baten araberako bilaketa bat gauzatzeko, beti ere FE metodoaren fidagarritasunaz eta bizkortasunaz baliatuz. Lortutako emaitzak aztertuz, PC egituren diseinurako, bi metodo hauen fidagarritasuna eta eraginkortasuna baieztatzen da. Gainera, kapitulu honetan proposatutako egiturak litografia prozesuak dituen mugak optimizazio-prozesuan kontuan hartu dira. Beraz, diseinu hauek ez dira bakarrik esparru teorikoan aztertu daitezkeen emaitzak, baizik eta fabrikatu daitezkeen egitura praktikoak ere badira.

5.1 Alderantzizko diseinuaren metodoa (ID)

Zientzia esperimentalak jarraitzen duen ohiko prozesuan, antzemandako fenomeno fisiko batek hipotesiak formulatzera eramaten gaitu eta hipotesi hauen baieztapenetik, aldagai batzuen menpe dagoen sistemaren eredu bat lotzen duen teoria berri bat garatzen da. Eredu teoriko hori problema era zuzenean ebazteko erabiltzen da, modeloaren aldagaien balioak ezartzen dira eta datu esperimentalak kalkulu teorikoekin konparatzen dira. Beraz, eredu teorikoa era zuzenean planteatutako problemaren formulazioa da. Aldiz, neurtutako datuen

bitartez aztertu beharreko sistemaren propietateak antzematea, hau da, alderantzizko problema ebaztea, askoz ere sailagoa izaten da, zientzia esperimentalaren ohiko prozesuaren urratsak alderantzizko eran jarraitzen bait ditu. Material baten propietateak, material honen egitura sortzeko parte hartzen duten aldagaien menpe daude. Bereziki, kristal fotoniko batean, sarearen maiztasunak edota materialaren indize dielektrikoak, egituraren propietateak baldintzatzen ditu. Beraz, material berezi bat diseinatze-prozedura zuzena jarraitu ezkero, aldagaien pisuak iteratiboki doitzen dira, behar den konfigurazio horretara ahal den gehien hurbiltzeko. Bide hau problema linealetan aplikatu daiteke soilik, hurbilketa ugari aztertzea suposatzen bait du.

Problema linealetatik kanpo, planteatutako problemak ebazpen bat izan dezake edo ez, ebazpen hori bakarra izan daiteke edo ez eta ebazpen hori egonkorra izan daiteke edo aldakortasun nabarmena aurkeztu dezake aldagaietan aldaketa txikiak jasan ezkero. Alderantzizko diseinuan aitzitik, aurreneko ebazpen batetik abiatuz, eskuratu gura ditugun propietate fisikoak definitzen dituzten aldagaien balioak ondorioztatzen dira. Beste alde batetik, problema zuzenean ebazpen bakar bat duen problemak, alderantzizko diseinuan ebazpen ugari izan ditzake [180]. Gaur egun, helburu zehatz batzuk betetzen dituen PC egitura bat lortzeko, batez ere intuizioan oinarritutako erabakiak jarraitzen dira, teknika matematiko zorrotzetan oinarritutako argibideak erabili barik. Funtsean, ekintza hori diseinu zuzenean kokatu daitekeen jokabidea da. Horrela, aurreneko ikerketa ugarik kristal fotonikoen aldagaietan eragindako aldaketa batzuen bitartez lorturiko abantaila optikoak aurkezten dituzte. Hala ere, egoera batzuetan, frogaketa-hutsegite eran oinarritutako bilaketa bat eginez ezaugarri zehatz baten hobekuntza adierazgarri bat lortzea, eragiketa saila eta neketsua bilakatzen da. Gainera, ez-korrelatuta dauden helburu bat baino gehiago betetzen dituzten egitura fotonikoak diseinatzea ez da eskuragarria horrelako metodoak erabiliz gero . Beste alde batetik, maiztasun zehatz bat jarraitzen ez duten kristal fotonikoen egiturak diseinatzeko orduan, konfigurazio posibleen kopurua asko handitzen da eta beraz, parametro gutxi batzuekin bakarrik jolasteak zentzua galtzen du. Ikus dezagun adibidez ez-periodikoa den PC baten eredua. Hartu dezagun oinarriz material dielektrikoan zulatutako hutsunez osatuta dagoen PC bat. Bertan, argiak ibilbide zehatz bat jarraitu dezan zulo batzuk material dielektrikoz estali egin beharko dira. Kasu horretan, posibleak diren konfigurazioen kopuruak gora egiten du kluster hori osatzen duten zuloen kopuruak (N) gora egin ahala. Zehazki, kasu horretani, konfigurazio kopuruak 2^N araua jarraitzen du. Nahiz eta aurreko adibidea hasiera batean ariketa sinple bat baino ez zirudien, argi ikus daiteke problemaren konfigurazio kopuru hori aztertzea ez dela bideragarria N zulo kopurua maiztasun tarte gutxi batzuetan aurkitu daitezkeen zuloak kontuan hartzen dituenean. Zailtasun honen aurrean, ohikoa izaten da problema askatasun gradu gutxi batzuetara mugatzea, eta parametro gutxi

horien bilaketa-ingurune osoa banan-banan arakatzea. Azkenik, aldagai horien araberako egituretatik, emaitzik interesgarriena eskaintzen duen egitura aukeratzen da. Metodo hori beraz, konputazionalki oso garestia da, eta kasu gehienetan ezin da era zuhur batean aplikatu. Bestalde, alderantzizko diseinuaren teknika erabilita eta bilatzen ari garen materialaren helburuak ezarriz, helburu hauek betetzen dituzten egiturak aurkitu daitezke, askatasun gradu kopuru arbitrarioak izanik ere [181–183]. Metodo hau da, hain zuzen ere, lan honetan jorratu dugun teknika kristal fotoniko egitura konplexuak diseinatzeko. Horretarako, metodo heuristikoen eta ebolutiboen konbinaketak erabili ditugu, elementu finituen metodoarekin batera [184], helburu zehatz batzuekin bat datozen egitura fotonikoak aurkitzeko. Teknika honen bitartez eraginkortasun handiko zirkuitu integratu fotonikoak diseinatu ditugu. Hauek, integrazio dentsitatearen aldetik eta baita kostu aldetik hobekuntza nabariak aurkezten dituzte. Algoritmo heuristikoak oinarrizko bi baliabide erabiltzen dituzte: zatitu-eta-menderaketa prozesua, hau da, problema azpiproblema sinpleagoetan zatitzea, eta optimizazio-prozesu sekuentziala. Algoritmo horiek, optimizazio globalaren ildoan eta baita ingeniaritzako beste esparru askotan, ibilbide luzea izan dute. Hala eta guztiz ere, optimizazio heuristikoan oinarritutako teknikak aplikatzeak oraindik konputazio baliabide handiak eskatzen ditu. Orokorrean, algoritmo heuristikoak, ebazpen hautagai bat kalkulatzeko makinaren prozesaketa-denbora bitarte tribiala behar denean soilik aplikatzen dira. Material heterogeneo konplexu baten denboraren domeinuko metodoak erabiliz Maxwell-en ekuazioak ebazteak ordea ez du horrelako azkartasunik onartzen.

Eremu elektromagnetikoen hedakuntzaren kalkuluan, konputazio denborak luzeak izaten dira eta eremu horiek kalkulatzeko konputazio baliabideak era intentsiboan erabiltzen dira. Bi arrazoi horiengaitik, metodo heuristikoak ez dute hasiera batean eraginkortasun handirik lortuko mota horretako problemak ebazteko orduan. Elementu finituen bitartez ordea, sistema luze eta konplexuetan hedatzen diren eremu elektromagnetikoak egoera egonkorrean aztertu daitezke, eta beraz, uhin EM-en ebazpenak era azkarrean aurkitu daitezke [184] optimizazio iteratibo bat burutuz. Bestalde, ondoren deskribatzen diren PC egiturak diseinatzeko erabili izan den ID teknikaren bidez, egituraren aldagaietan, CMOS fabrikazio teknologiarekin bat datozen muga fisikoak ezarri daitezke. Horretaz aparte, metodo honek, PC diseinuen problema anitzetan aplikatu daiteke, metodoak ez bait du problemaren natura ezagutu beharrik ezarritako helburura iristeko. Beraz, prozesu estokastiko baten bidez gidatutako optimizazioaren abantailak, elementu finituaren metodoaren (FEM) zehaztasun eta bizkortasunarekin batera erabiliko ditugu osagarri optiko pasibo funtzionalak diseinatzeko [184]; 3.46 errefrakzio indizea duen material baten $0.35a$ erradioko zuloz egindako sare triangeluar baten antolatutako 2D kristal fotoniko baten oinarrituz. Ondorengo

topologiak, ezinbesteko funtzionalitateak hobetzen dituzte eta ibilbide konplexuetan zehar argia garraiatzeko gai dira.

5.2 Argi-potentzia banatzaileak

Sistema elektronikoetan, oinarrizko funtzioak egiteko ezinbestekoak diren gailu optikoen artean, argi-potentziaren banaketa ahalbidetzen duten osagarri optikoak funtsezko eginkizunak betetzen dituzte. Alde batetik, uhin-gida batetik garraiatzen den argia zatitzen dute eta beste alde batetik, Match-Zhender interferometroak (MZI), edota interkonektore optiko integratuak bezalako gailu konplexuagoak sortzeko ezin besteko elementuak dira. Funtsean, potentzia-banatzaile baten eginkizun nagusia jasotako argia neurri berean irteeratako uhin-gidetan banatzea da. Aurreneko ikerketa lanen arabera, PC teknologia erabiliz, elektro-optikoki kontrolatu daitezkeen banatzaile/ akopladoreak nahiz *switch*-ak nano-eskalan eskuratzeko aparteko materialak izan daitezke [185–188]. Uhin-gida zuzenak eta kurbadurak dituzten uhin-giden ezaugarriak jadanik sakonki aztertuak izan diren esparruan diren bitartean, banatzaile eta akopladore optikoen ikerketak ez dute hainbesteko arretarik jaso orain arte. Bereziki, orain arte proposatu izan diren konfigurazioak batez ere mikro-uhinen esparruan kokatzen dira [185, 186], eta egitura hauek sistema fotonikoetara moldatzeak zailtasun handiko lana lirateke. Gainera, dielektrikozko zutabez osatutako kristal fotonikoetan, T eta Y motatako akopladoreak emaitza bikainak aurkezten dituzten egiturak dira, zoritxarrez PC-slab egituretan, banatzaile horien eraginkortasunak bortizki behera egiten du. Beste alde batetik, zuloz osatutako dielektrikoetan, modu ugari sustatu daitezke uhin-gidetan eta beraz, modu multzo horiek era optimoan banatzeko oinarrizko egitura hauek ez dute behar bezalako eraginkortasunik lortzen [186]. Argia jatorrizko uhin-gidak zehazten duen ibilbidetik desbideratzen denean norabide kristalino ezberdin baterantz, modu berriak gidatzen dira, edota jatorrizko moduen konbinaketak sortzen dira. Modu berri horien eta jatorrizko uhin-gidak gidatzen dituen moduen arteko eremuen ezberdintasunak transmititutako argi-kopurua bortizki murrizten du. Are gehiago, oinarrizko T eta Y akopladoreak erabiltzen direnean. Y akopladore estandarrean akats bakarreko kristal fotonikoz osatutako hiru uhin-gida elkartzen dira, 120°-ko egitura osatuz. Geometria honek islapen handiak sortzen ditu eta bere erabilpena banda-zabalera estuetara mugatzen da soilik. Antzeko eraginak izaten dituzte *multi-mode interference* motatako potentzia-banatzaileen konfigurazioak.

MMI banatzaileak argiaren barreiatze naturak duen izaera periodikoaz baliatzen dira argiaren banaketa gauzatzeko. Horretarako modu bikoiti baten irudi bikoitza irteeran kokatutako uhin-gida pare batera fokalizaten dute. Zoritxarrez, argi-irudi hauen simetrikoak posizio ezberdinetan aurkitzen dira maiztasun ezberdineko argi izpientzako, eta beraz, banda-



5.1. Irudia (a) *Toy-model* banatzailearen irudi eskematikoa. Bertan, R_1 eta R_2 bezala izendatutako zuloen erradioa aldatu da atzera-isladatzen den argi portzentaia murrizteko. Gezi beltzak argiaren jatorria adierazten du W1 uhin-gidan. (b) Hasierako Y–banatzailearen konfigurazioan simulatutako denboran bataz-besteko potentzia-fluxua. (c) ID metodoaren bidez lortutako emaitza baten denboran bataz-besteko potentzia-fluxua. Bertan, argi gehiena Y–banatzailearen irteerako portu batera bideratzen da.

zabalera handia lortzea ez da posiblea honelako dispositiboak erabilita. Ondoren, aurreko kapituluan azaldutako metodo heuristikoak erabiltzen dituen ID metodologia erabiliz, *Y*–eran eta MMI sistemetan oinarritutako egitura berriak aurkezten dira. Hala ere, diseinu praktikoetara jo baino lehen, oraindik konputazionalki konplexuak diren egitura tribial batzuk aztertu ditugu, ID metodoaren eraginkortasuna aztertzeko.

5.2.1 Y-banatzaile baten eredu sinplifikatua

Askatasun gradu ugari dituzten problemak ebazteko, alderantzizko diseinuko (ID) teknika erabiltzeak alagai guztien domeinuko araketa sakon bat egitea ekiditzen du eta bitartean, optimo globala aurkitzeko bide bakarra izaten da, kasu gehienetan. Horrelako kasuetan ere, zaila edota konputazionalki ezinezkoa izaten da lortutako ebazpena optimo lokal edo global baten kokatuta dagoen jakitea. ID metodoaren bidez jaso daitezkeen emaitzak frogatzeko, *brute-force* bilaketa zorrotz bat aplikatzea posiblea den eredu sinple batetik abiatu gara, bertan lortutako emaitzak optimo globalera ailegatzen diren edo ez frogatzeko, egitura konplexuagoetan ID metodoa aplikatu baino lehen. Abiapuntutzat hartutako *toy–model* egitura sinple hauen artean, aldez aurretik metodo semi-analitikoak erabiliz proposatu diren PC konfigurazioak hautatu dira.

Jarraian, ID metodoa erabiliz *Y* motatako akopladoreen diseinua aurkezten da. Gainera, era honetan eraldatutako egiturak, kasu batzuetan, orain arte jasotako ebazpenak baino emaitza hobeagoak eskaintzen dituela ikusiko da.

Nahiz eta ondorengo *toy–model* egiturak sinpletasun nabaria duten, oraindik, honelako ereduetan bilaketa sakon bat egitea konputazionalki ariketa luze eta astuna da, behintzat klusterizatu gabeko baliabideak erabiltzen badira.

5.1.a irudian lehenengo egitura sinplea aurkezten da. Egitura hau uhin-gida batez eta Y motatako akopladore bat irudikaten du, jatorrizko uhin-gidarekin $60\,^{\circ}$-ko angelua osatzen duten bi W1 uhin-gida elkartuz. Egitura horretatik abiatuz, irteeretako portuetarantz argi potentzia gehiena zuzendu dadin, eta beraz, sarrerako uhin-gidarantz barreiatzen den argi potentzia minimizatzea posiblea egiten duen konfigurazioa aurkitzean datza gure helburua. Berez, egitura hau ezin da Y akopladore moduan sailkatu, ez bait du potentziaren banaketa eragiketarik egiten. Halere, egitura teoriko honek ID metodoaren prozesua antzemateko baliogarria da.

5.1.a irudian, argia W1 uhin-gidako portu bateteik igortzen da eta irteerako portu baten transmitantzia kalkulatzen da 3.1 ekuazioa erabiliz. Eremu elektro-magnetikoen hedakuntzaren kalkuluan FE metodoa erabililtzen da, erregimen egonkorrean.

Emaitza hau hautagaitzat hartutako geometria bakoitzaren egokitasuna ebaluatzeko erabiltzen da, *fitness* balioa deritzogunean. Bereziki, *fitness* balioa kalkulatzeko*root-mean-square desviation* (RMSD) erabiliko dugu.

$$\mathrm{RMSD}(\theta_1,\theta_2) = \sqrt{\mathrm{MSE}(\theta_1,\theta_2)} = \sqrt{T((\theta_1-\theta_2)^2)} = \sqrt{\frac{\sum_{i=1}^{n}(x_{1,i}-x_{2,i})^2}{n}}. \qquad (5.1)$$

Kasu honetan, bi algoritmoen bidez lortutako emaitzen egokitasuna kalkulatzeko, Si materialean egindako $0.35a$ erradioko zuloz W1 uhin-gida zuzenaren transmitantzia hartu dugu oinarritzat.

Hiru askatasun gradu baino gehiago dituzten azpiespazioak irudikatu ezin direnez, gure lehenengo saiakera honetan, sistema hau zeharkatuz argiaren garraioa hobetzen duten R_1 eta R_2 elementuen erradioa aurkitzera mugatuko dugu problema (ikusi 5.1 irudia). Horrela, 4.2.2 eta 4.2.1 ataletan azaldutako IHS eta FSA algoritmoetan 60 Monte Carlo saiakera eginez alderantzizko diseinuaren metodoa frogatu da. Bi algoritmo hauen bitartez optimo globala aurkitu da ia kasu guztietan, 5.2 irudian ikusi daitekeen moduan. Ebazpen-espazioaren araketa sakona egiteak 24 ordu baino gehiago behar izan ditu. Aldiz, ID metodoaren bitartez egindako saiaketa bakoitza minutu gutxi batzuetan egin daiteke, *i*3 ordenagailu estandar bat erabiliz. 5.1.b irudian abiapuntutzat hartu dugun egitura ez-optimizatutan simulatutako argi potentziaren denboraren batezbesteko diagrama aurkezten da, eta 5.1.c irudian magnitude bera optimo globalarekin bat datorren egiturarentzat adierazten da. Optimizatutako egituran, igorritako argia irteerako uhin-gidarantz hedatzea lortzen da eta atzera isladatzen den eremua arbuiagarria da. Egitura horren simetria bikoitia denez, optimo globalaren grafikoak ere



5.2. Irudia Dentsitate mapak optimizazio funtzioaren kostu funtzioaren balioa adierazten du kalkulatutako ebazpen-espazio osoan. Horretarako, bilaketa-espazioa 10.000 puntuetan zatitu da. Zirkulu batez inguratutako puntuak eta diamante forma duten puntuak IHS metodoaren bidez eta FSA metodoaren bidez lortutako ebazpenak dira, hurrenez hurren.

simetria bikoitza izango du. Horrelako egoeretan, gradienteetan oinarritutako teknikak hasierako puntuaren hautaketaren menpekotasun larria izaten dute. Aldiz, erabili ditugun optimizazio algoritmo heuristikoak inplementatzen dituzten operadore estokastikoen bitartez, bilaketa-espazioan zehar ingurune zabalago bat arakatu daiteke, eta hasierako baldintzak ez dute eragin zuzenik lortutako emaitzetan. Orokorrean, bi algoritmo hauek erabiliz, optimo globalak aurkitzen dira, optimo global bakoitza %50-eko probabilitatearekin. Bereziki, IHS algoritmoak konbergentzia puntua lortutakoan, HM harmonia-memorian bi optimo globalak zehazten dituzten aldagai balio osagarriekin betetzen da, %50-eko probabilitatearekin.

5.3.c irudiak, optimizazioaren bilakaera adierazten du, 5, 10, 20 eta 30 iterazio burutakoan. Saiakera bakoitzaren egokitasuna edo *fitness* balioa aldagai sorta bakoitzarentzat kalkulatzen da, elementu finituen metodoaren bitartez eremu EM-ak ebatziz.

5.3 irudian, bi metodo hauen batezbesteko eraginkortasuna, iterazio bakoitzean eta horien maximo eta minimoak adierazten dira. Bi metodoen konbergentzia bizkorrak *toy-model* problemaren konplexutasuna iterazio gutxi batzuetan era errezean ebazten duela adierazten du. *Fitness* funtzioak ere ez du ezegonkortasun handirik aurkezten saiaketa bakoitzean, nahiz



(c)

Iteration1			Iteration10		
R_1	R_2	fitness	R_1	R_2	fitness
0.083	0.334	0.457	0.39	0.088	0.434
0.315	0.084	0.463	0.07	0.387	0.441
0.078	0.305	0.472	0.072	0.387	0.441
0.101	0.268	0.473	0.101	0.384	0.448
0.154	0.108	0.488	0.101	0.384	0.448
0.154	0.134	0.495	0.364	0.079	0.448
0.065	0.334	0.498	0.364	0.076	0.451
0.197	0.356	0.516	0.072	0.373	0.451
0.203	0.226	0.517	0.101	0.373	0.453
0.197	0.305	0.518	0.101	0.370	0.454

Iteration20			Iteration30		
R_1	R_2	fitness	R_1	R_2	fitness
0.39	0.088	0.434	0.39	0.079	0.433
0.072	0.387	0.445	0.39	0.079	0.433
0.072	0.387	0.441	0.39	0.088	0.434
0.101	0.384	0.448	0.072	0.387	0.441
0.101	0.384	0.448	0.072	0.387	0.441
0.364	0.079	0.448	0.072	0.387	0.441
0.364	0.076	0.451	0.072	0.387	0.441
0.072	0.373	0.451	0.39	0.071	0.442
0.101	0.373	0.453	0.101	0.387	0.447
0.101	0.370	0.454	0.101	0.387	0.447

5.3. Irudia (a) 60 Monte Carlo-ren bidez lortutako balioen bataz-besteko konbergentzia IHS algoritmoa erabilita (zuzen beltza), ebazpenik txarrena (zuzen berdea) eta ebazpenik onena (zuzen gorria). (b) FSA algoritmoa 300 Monte Carlo erabiliz lortutako emaitzak. (c) IHS memorian gordetako ebazpenak 1, 10, 20 eta 30 iterazio egindakoan. Urdinez azpimarratutako emaitzak maximo global batean kokatzen diren ebazpenak dira eta gorriz azpimarratutakoak problemaren simetriak sortzen dituen maximo global osagarriak dira, hurrenez hurren.

eta algoritmo hauek prozesu estokastiko baten oinarritzen diren. Eredu jakin honetan, IHS algoritmoa fitness balio baxuago batera iritzi da baina kapitulu honetan aurkezten diren egituretan jasotako beste emaitzen arabera, (IHS) eta (FSA) metodoen eraginkortasunaren bidezko konparaketa bat egitea zaila da, eta problema konkretuaren arabera bata edo bestea hobeto moldatu daitezke; tamalez aldez aurretik zein moldatuko den hobeto jakiterik ez dugu. Beste alde batetik, (IHS) eta (FSA) metodoentzat iterazio-kopuru ezberdina erabili da, IHS algoritmoak ebazpen gehiago hartzen bait ditu kontuan iterazio bakoitzean eta FSA metodoak ordea ebazpen bakar bat onartzen du.

Ondorengo ataletan, potentzia-banatzaile eskema berriak proposatzen dira. Horrelako topologietan simetria ezaugarriak mantentzen dira eta, gainera, (PIC) baten bete beharreko integrazio-tamainaren eskakizunak ere kontuan hartuko dira.



5.4. Irudia (a) Banatzaile eraginkorrago bat sortzeko ID metodoan erabili den PC klusterraren irudi eskematikoa. (b) Optimizatu gabeko Y–banatzailea. (c) IHS algoritmoa erabiliz optimizatutako Y–banatzailea. (d) Simulatutako potentzia-fluxua (c) erabiliz. (e) FSA algoritmoa erabiliz optimizatutako Y–banatzailea. (f) Simulatutako potentzia-fluxua (e) erabiliz.

5.2.2 Kristal fotonikozko Y-banatzaileak/zatitzaileak

Atal honetan, *Y* akopladore moduan antolatutako egiturak berregin dira ID metodoa erabiliz. Jatorrizko banatzaile egitura baten diagrama 5.4.a irudian ikusi daiteke eta hiru W1 uhin-gidaz osatuta dago. Horrelako banatzaileek kritika ugari jaso dituzte, haien transmitantzia-eraginkortasuna oso baxua izaten dalako [188]. Transmisioaren kalitatea uhin-giden eta bateratzaile sekzioaren akoplazio-mailaren araberakoa da. Kristal fotonikoetan sortutako uhin-gidak, band-gap fenomenoa erabiltzen dute argiaren hedakuntza kontrolatzeko eta egitura horien konfigurazioa eraldatu ezkero, argia kurbatura handiko ibilbideetan zehar garraiatu daiteke (ikusi 5.3 atala gai honen inguruko xehetasun gehiago irakurtzeko). Hala ere, 5.4-ko egituretan igorritako argia irteerako uhin-gidetara moldatzeko, 120°-ko kurbadura batzuk zeharkatu behar ditu. 120°-ko kurbadura duten uhin-gidetan zehar argi moduak akoplatzerakoan atzera-isladapen larriak sortzen dira.

Topologia horiek planteatzen dituzten erronkak gainditzeko, egitura horietan ID metodologia aplikatu dugu. ID metodoak geomertriak sortu, ebaluatu eta *fittness* balioen arabera sailkatu eta hautatzen ditu egoera bakoitzean. Horrez gain, ID metodologiak ID parametroaren bilaketa mugatua onartzen du eta, ondorioz, CMOS fabrikazioaren teknologiarekin guztiz bateragarriak diren PC topologiak proposatzeko ahalmena du. Orokorrean, ondorengo baldintzak inposatu dira:

- Zuloen erradioak. Ohiko fabrikazio tekniken bidez sortu daitezkeen egiturak proposatzeko eta beraz fabrikatu ezin diren soluzio arbitrarioak saihesteko, aldagaien bilaketa-eremua mugatu egin da,

$$0.1 < r_{ij} \geq 0.39. \tag{5.2}$$

  5.2-ko azpiko mugak, fabrikazio metodoaren atalasea gainditzen duten eta arbuiagarriak diren zuloak ekiditzeko ere, ondorengo baldintza ezarri da

$$\epsilon_{ij}\{n_{air} if r_{ij} \geq 0.1 n_{Si} otherwise. \tag{5.3}$$

  Hori dela eta, 0.1 erradioa baino txikiagoko zuloaak, material dielektrikoaz betetzen dira. Zulo hauek ezabatuz, arguiagarriak liratekeen islapenak ekiditzen dira, eta oso aldakorrak diren interferentzia patroiak erabiltzea saihesten da.

- Zulo bakoitzaren desplazamendu erlatiboa, sare triangeluarraren kokapenareko. Desplazamendu hori modu independientean eragiten da eta ndorengo mugimenduetara mugatuta dago

$$-0.2 < x_{ij} \geq 0.2. \tag{5.4}$$

  Desplazamendu negatiboak elementua ezkerrerantz mugituko du, eta positiboa eskuin aldera mugitzen du.

- Ordenatu-ardatzean eragindako desplazamenduko mugekin batera abzisa-ardatzean ere horrelako mogimenduak baldintzatzen dira.

$$-0.2 < y_{ij} \geq 0.2. \tag{5.5}$$

Horrela planteatutako egiturak, batzutan zuloen arteko gainezartzea sortu dezake geometrietan, hau da, behar bada eraginkorrak izan daitezkeen egiturak sortu ditzake baina, aldi berean, fabrikatzeko ezinezkoak izan daitezke edota zuloen arteko tarte txikiak hauskorrak diren topologiak proposatu ditzake. Hala eta guztiz ere, ebazpen horiek baztertu beharrean, ebazpen horiei fitness balio handiago bat ezartzen zaie. Egitura horiek, hurrengo iterazioetan sortutako aldaketen bitartez, topologia askoz ere hobeagoak eta sendoagoak lortzeko aukera eskaintzen dute. Bestela ere, elementu bakoitzaren erradioa eta inguruko elementuen erradioak eta kokapen erlatiboa kontuan hartu daitezke, gainezarpenik ez duten zuloen bidez sortutako geometriak bakarrik onartzeko. Hala ere, beste aldagai askoren arabera baldintzatutako aldagai baten bilaketa-espazioa mugatuz, optimizazio metodoaren aniztasuna



5.5. Irudia Optimizatu gabeko eta IHS eta FSA metodoak erabiliz optimizatutako egituren transmitantzia espektroaren konparaketa, (a) 2D PC egituretan eta (b) 3d PC egituretan, hurrenez hurren. 3D-ko egiturak (c) IHS eta (d) FSA topologientzat, hurrenez hurren.

gehiegi murrizten da. Gainera, problema planteatzeko modu horrek, intuizioan oinarritutako hierarkia bat sortzea suposatzen du, optimizazio heuristikoen prozeduren kontraesanean.

5.5 irudian, IHS eta FSA algoritmoen bidez optimizatutako eta baita optimizatu gabeko konfigurazioen transmitantzien emaitzak aurkezten dira. Optimizatu gabeko egituraren kasuan, argi ikusi daiteke bihurgune zorrotzak argiaren hedakuntza oztopatu egiten du. Bereziki, geometria horrek gehienez %30-eko transmitantzia eskaintzen du 0.278-ko maiztasun normalizatuaren inguruan eta gidatutako beste uhin-luzeretan berriz, %10-eko transmitantzia minimoa aurkezten du; ez da beraz konfiguraziorik aproposena dispositibo trinkoetan erabiltzeko. Aitzitik, FSA eta IHS algoritmoen bidez sortutako egiturak etekin askoz hobea lortzen dute. Egitura horien transmitantziak izaera laua aurkezten dute gidatutako moduaren banda-zabalera osoan zehar eta irteerako portu bakoitzean sarreratik txertatutako argiaren %45-a jasotzen da. FSA algoritmoa erabiliz lortutako egituraren transmitantzia grafikoa aztertuz, 0.267 maiztasun normalizatuan minimo adierazgarri bat dagoelaa antzeman daiteke. Minimo hori, sortutako uhin-gidan argiaren hedakuntza oztopatzen duen zuloak sortzen duen erresonantziak eragiten du, 5.4.e irudian ikusi daitekeen moduan. Dena dela, erresonantzia horren eragina arbuiagarria da, optimizatu gabeko sistemarekin konparatu ezkero.

Aurretik aipatu den bezala, zuloz osaturiko sareetan oinarritutako egiturak erabiltzeak abantaila garrantzitsu bat du zutabez osaturikoekin konparatu ezkero: 2D PC-etan kalkulatuta-

ko gida egituren gaitasunak mantendu egiten dira aplikazio optikoetan erabiltzen diren 3D-ko egituretara moldatu ezkero. Ohikoa denez, PC xafla egiturak erabili ditugu optimizatu gabeko eta IHS eta FSA metodoen bidez optimizatutako konfigurazioen ezaugarriak aztertzeko. 3D FEM erabiliz burututako simulazioak 5.5 irudian aurkezten dira. 3D-ko kasuan, aipagarria da optimizatu gabeko egiturak eraginkortasun baxua izaten jarraitzen duen bitartean, IHS-ren bidez optimizatutako egiturak, berriz ere, 2D-ko simulazioetan aurkezten zuen argi-banaketa bikaina eskaintzen du. Aitzitik, FSA-ren geometriak eragozpen larriak ditu maiztasun baxuagoetan, alegia, gidatutako moduen simetriaren aldaketa dela eta. Izan ere, moduak bere simetria bikoitza galtzen duenean, argiaren fluxua zatitzea oso zaila bihurtzen da. Egoera hori 2D ingurune batean aurreikustea ere zaila izaten da eta beraz, banatzaile batek izan behar dituen trinkotasun eskakizunak betearazten dituen hasierako konfigurazio batek ID algoritmoarentzat abiapuntu hobeagoa izan daitekeela uste dugu. Irizpide hau jarraituz, hurrengo atalean, galera oso baxuak dituen 3 dB-ko zatitzaile baten eredua azaltzen da.

5.2.3 Uhin-luzeran hautakortasunak diren eta banda zabalera altuak dituzten akopladore/zatitzaileen eta baita akats linealen bidez garatutako potentzia-zatitzaileen optimizazioa

Azpiatal honetan, 120° graduko uhin-giden konfigurazioan oinarrituta ez dauden banatzaile/akopladore batzuk azaltzen dira. Ondorengo egiturak sortzeko, [186]-en azaltzen den *multimode interference* (MMI) banatzailea erabili da, hasierako egituraren banda-zabalera handitzeko asmoarekin. MMI motatako banatzaileak dielektriko baten zuloz osatutako multi-modu diren PCWG-etan egitura optimizatuak diseinatzeko abiapuntu bikaina dirudi, *self-imaging* printzipioarekin bat datozen ebazpenak lortu daitezkeelako. *Self-imaging* fenomenoaren bidez, argi izpi bat erregularki tartekatutako izpi-kopietan banatzen da. Kopia hauek era erraz batean zuzendu daitezke sistemaren irteeran paraleloki kokatutako bi uhin-gidetarantz. Irteeran kokatzen diren uhin-giden eta sarrerako uhin-gidaren arteko hurbiltasunak super-modo berriak sustatzen ditu eta beraz, giden arteko ingurunea aldatuz gero, eremu elektriko/ magnetikoaren patroia irteerako uhin-gidek onartzen dituzten moduetara moldatu daiteke. MMI eredurik sinpleena hiru PCWG paraleloekin osatzen da: jatorritik argia garraiatzen duen uhin-gida bat eta irteera ezberdinetara eramaten dituzten bi uhin-gida paralelo izango ditu, argi moduak egokitzeko bereziki diseinatu behar den ingurune batez bananduta daudenak. Ingurune horrek, kasu honetan W5 uhin-gida baten zabalera izan dezan egokitu da. Era horretan, dispositiboak bere trinkotasunaren eta uhin-giden arteko isolaketa (*cross-talk* galeren) konpromisoak ziurtatuko ditu. 5.6 irudian, W5 uhin-gida baten dispertsio-diagrama ikusi daiteke, orain arte erabilitako parametro berdina erabiiz osatutako



5.6. Irudia W5 PCWG-aren dispertsio diagrama. Gida honek modu ugari onartzen ditu bere banda gidatuetan. Modu batzuk gap bitartez gidatzen dira (GG) eta beste batzuk errefrakzio indizearen kontrastearen mekanismoa erabiliz gidatzen dira (IG). a/λ=0.27 maiztasun arbitrarioan, modu fundamentala eta lehenengo irudiko moduak zirkulu gorriekin adierazi dira.

PC egitura baten kalkulatu izan dana. Uhin-gidaren zabalera handitzerakoan, egiturak oinarrizko moduetatik sortzen diren modu gehiago onartzen ditu. Modu berri horiek simetria bikoitia edo bakoitia izan ditzakete. Gure kasu jakin honetan, argi potentziaren banaketa bi uhin-gidetara zuzendu gura denez, bikoitiak diren moduak bilatuko ditugu. W5 PCWG-an, a/λ_0=0.27-ko maiztasuneko bandan modu bikoitiak nahiz bakoitiak aurkitu daitezke. Bi uhin-gidez osatutako banatzaile bat sortzeko, nahikoa litzateke maiztasun horretan aurkitu daitezkeen lehenengo modu pare simetrikoak bilatzea, hau da, modu fundamentala eta bigarren ordeneko modua, hurrenez hurren. Ondoren, modu horren lehenengo kopia sortzeko behar den distantzia kalkulatzeko, hurrengo formula aplikatu daiteke:

$$MMI_{spacing} = \frac{1}{(k_0 - k_2)}, \tag{5.6}$$



5.7. Irudia (a) W1 PC uhin-gida W5 uhin-gida zabalago batekin elkartzen denean modu sorta berri bat agertzen da. Bi uhin-gida hauen bitarteko akoplazio guneak, modu fundamentalaren irudi berriak sortzen ditu eta simetria bikoitza duen lehenengo irudia berehala kalkulatu daiteke 5.6 ekuazio erabiliz. Grafiko honek $[0.26 - 0.28]$ maiztasun tartean dauden maiztasunetarako argi banaketa egokia lortzeko beharrezkoak diren periodoak aurkezten ditu. (b) a/λ=0.27 maiztasunan simulatutako potentzia-fluxua eta (c) PC egitura bat erabiliz lortutako potentzia banaketa.

non k_0 eta k_2 modu fundamentalaren eta bigarren ordeneko moduaren uhin bektorean dira, hurrenez hurren. 5.6 ekuazioa aplikatu ezkero, simetria bikoitia duten irudien maiztasun tarteak (a) aurkitu daitezke eta, horrela, W1 uhin-gida pareetara gidatzeko egitura osatu daiteke. Kalkulu hauek aplikatuz lortu daitekeen emaitza 5.7 irudian ikusi daiteke.

Jarraian, material dielektrikoan zulo sare batez osatutako akopladore soil bat osatu da, 5.7.c irudian aurkezten den bezalakoa, potentziaren zatiketa eraginkor bat lortzeko. Hala ere, 5.7 irudian ikusi daitekeenez, simetria bikoitiko moduaren tartea, maiztasunaern menpekotasun handia aurkezten du eta beraz, banda zabalera estuetara mugatuta dago, behintzat, PC klusterraren konfigurazioa egonkorra eta mugiezina bada eta erregimen linealean lan egin ezkero. Modu bikoitien tartekotasunarekin bat datozen MMI konfigurazio ezberdinak frogatu izan dira $[0.26 - 0.28]$ maiztasunen bitartean. Egitura horien emaitzen kalkuluak 5.9 irudian aztertzen dira.

$[0.262 - 0.267]$ maiztasun normalizatuen bitartean, MMI banatzailearen irudi bikoitia 5 periodoen inguruan aurkezten du, baina $[0.268 - 0.273]$ maiztasunetarako bi periodoen distantzian aurkitu daiteke irudi simetriko hori. Hortaz, maiztasun tarte horretarako, ez dirudi MMI zatitzaile estandar batek horrelako simetria baldintzarik ziurtatu dezakeenik. Gainera,



5.8. Irudia (a) Optimizatu gabeko MMI motatako banatzaileak galera nabargarriak sortzen ditu. (b) a/λ=0.27 maiztasun normalizatuan optimizatu gabeko banatzaile egiturak prestazio baxuak eskaintzen ditu. (c) IHS erabiliz, optimizatutako egiturak argi potentziaren banaketa era egokian egitea ahalbidetzen du (d)-n ikusi daitekeen moduan. (e) FSA algoritmoaren bidez lortutako banatzailea. (f) Potentzia-fluxuaren simulazioa (e) erabiliz.

operaketa maiztasun *anticrosing* puntu batetik gertu balego, (5.6) ekuazioko hurbilketak ezusteko emaitzak lortuko lituzke. Bereziki, *anti-crossing* puntuetan, moduen simetriak trukatzen dira, modu bikoitiak izatetik bakoitiak izatera igarotzen dira.

Sistema hauen etekina hobetzearren, alderantzizko diseinuaren metodoa aplikatu dugu. ID prozesuak 5.8 irudian ikusi daitezkeen egiturak hornitu ditu. Bereziki, IHS metodoak emandako egiturak, [187] lanean aurkezten den egituraren antza handia dauka. Bertan,Y-motatako bateratzailea antzeman daiteke, hiru zuloz osatutako akopladerez osaturikoa. Horretaz aparte, IHS ereduak irteerako uhin-giden arteko akats bat ere gehitzen du, 60◦ graduko dolezdura duen uhin-gida elkarketak sortutako galerak saihesteko. Beste alde batetik, FSA algoritmoak diseinu guztiz ezberdin bat proposatzen du. Azken egitura horrek *Multiple Line Defect Waveguide* (LDW) uhin-gidak dituzten antzeko topologia bat proposatzen du, hain zuzen ere [188]-en lanean proposatzen direnen modukoak. Konfigurazio hori oso komenigarria da, konplikatuegia izan litezkeen edo galera garrantzitsuak sor ditzaketen dolezdurak erabiltzea ekiditzen duelako eta sare triangeluarraren $\Gamma - K$ norabidean egindako W1 uhin-gidetan oinarrituz, parametro gutxi batzuk aldatuz lortu da. Egitura hori, eta baita IHS algoritmoak eskainitako konfigurazioak, ustekabeko emaitzak izan dira, hau da, ID metodoak 5.8 irudian ikusi daitezkeen egituraren topologiak hautatu ditu, soilik 5.8.a irudiko hasierako egitura abiapuntutzat hartuz.



5.9. Irudia 5.8.c irudiko (gorriz) IHS banatzailearen, 5.8.e irudiko (berdez) FSA banatzailearen eta ohiko MMI banatzaile (beltzez) egituren transmitantzia espektroen konparaketa. Ohiko MMI-aren kasuan, banaketa distantzia d ezberdinak erabili dira 1-etik a distantzietarako tartean, non a sarearen maiztasuna da.

5.10 irudian, egitura hauen bidez kalkulatutako transmitantzia espektroak aurkezten dira. Nabargarria denez, ID metodoaren bitartez lortutako egituretan, sarrerako uhin-gidatik jasotako argi gehienak irteerako uhin-giden artean banatzen dira eta atzera-isladatutako argi-kopurua arbuiagarria da. Gainera, funtzionalitate hau uhin-giden banda-zabalera guztian zehar, $[0.26-0.28]$ bitartean, gertatzen da eta ondorioz, transmitantzia espektroak izaera ia laua aurkezten du. Ezaugarri horietaz gain, sistema hauek integrazio maila oso altua eskaintzen dute. Izan ere, biek akoplamendu akoplamendu eskualdea periodo gutxi batzuetara mugatzen dute eta aurreko ikerketa lanetan aurkeztutako konfigurazioek akoplamendu espazio handiagoak erabiltzen dituzte. Izaera hau 3D-PC xafla plataforman ere errepikatzen da, 5.10.b irudian ikusi daitekeen bezala. Y-banatzailearen kasuan ez bezala, kasu honetan, bai IHS eta bai FSA metodoaren bidez lortutako egiturak menbrana motatako ingurune hauetan eraginkortasun handia eskaintzen dute.

5.3 Kurbadura zorrotzetako PCWG osagarriak

Orain arte, 3.6 atalean, kristal fotoniko baten egindako lerro akatsen bidez sortutako uhin-giden ezaugarriak deskribatu dira. Horrelako uhin-gidak, kristal fotoniko baten, era zuzen



5.10. Irudia (a) Optimizatu gabeko egituraren eta IHS eta FSA metodoak erabiliz optimizatutako 2D-PC banatzaile egituren transmitantzia espektroen konparaketa. (b) PC xafla banatzaileen transmitantzia kalkuluak, (c) eta (d) egiturentzat, hurrenez hurren. (c) IHS eta (d) FSA topologiak PC xafla konfigurazioan.

batean argia gidatzeko elementu apartak dira. Aldiz, ikuspuntu praktikoago batetik, uhin-gida batek seinale optikoa norabide arbitrarioetarantz gidatzeko ahalmena izan behar du, dispositibo fotoniko fisiko guztietan kurbatura ugari dituzten uhin-gidez osatuta bait daude. Ohiko uhin-gidak, hurrengo kapituluan azaltzen diren hari fotonikoak esaterako, errefrakzio indizearen gidaketan oinarritzen dira argia ibilbide okertuetan zehar garraiatzeko. Gidaketa-mekanismo horretan ordea, dolezdura angelu kritiko baten limite fisikoa agertzen da. Angelu horretatik haurrera, guztizko barne isladapen mekanismoren baldintzak ezeztatzen dira eta, hortaz, dolezdura zorrotz horietan argiaren gidapena deuseztatzen da.

PCWG dolezduretan, uhin-gida dielektriko konbentzionaletan ez bezala, milimetroen mailako dolezdura angelu kritikoen mugak saihestu daitezke. Horren ordez, PCWG egiturak, dolezdura zorrotzetan zehar argia garraiatzeko sistema trinkoagoak eskaintzen dituzte [189], eta beraz, gailu opto-elektronikoen integrazio dentsitatea hobetzeko aukera zabaltzen dute. Uhin-gidetako dolezdurak sortutako atzera-isladapena murrizteko era ugari aztertu dira gaur egun arte [110, 111, 190–193]. PC uhin-gidetako dolezduretan garatutako lehenbiziko ikerketa lana Mekis et al.-ek aurkeztu zuen 1996an [190]. Bertan, sare karratu baten antolatutako 2D-ko kristal fotonikoan egindako 90° -ko dolezduren transmisioa ikertu zan. Lan horretatik gaur egunerarte, kurbatura hauen transmisio etekina hobetzeko hainbat



5.11. Irudia (a) 90°ko dolezdura duen kristal fotoniko uhin-gida. Egitura honetan GaAs zutabez (n=3.4) osatutako sare karratu baten bi uhin-gida zuzen elkartu dira, Mekis et al.-ek proposatu zuten modukoa [190]. Argia uhin-gida horizontaletik sustatzen da ([10 norabidean]). uhin-gida horren tarte diagonala, L luzeraz adierazi da. Eremu elektrikoa uhin-gida bertikalerantz ([01] norabiderantz) zuzendu dadin konfiguratu da (b) eta (c) grafikoetan.

teknika proposatu dira [110, 194, 195]. Gehienak, airez inguraturiko dielektriko zutabez osatutako egituretan oinarritu dira. Horrelako konfigurazioetan oinarritutako uhin-gidak, normalean, mono-modu izaera izaten dute. Horrelako kasuetan, transmisioa areagotzeak ez du hainbesteko konplexutasunik. Mekis et al.-ek, [190]-en, 5.11 irudian ikusi daitekeen egituran, 90° kurbaturaren transmisio propietateak deskribatzeko, dimentsio bakarreko isladapen teoriaren eredu sinplifikatu bat proposatu zuten. Horrelako uhin-gidetan, band-gap fotonikoaren eraginez, jasotako argi-izpiak ez dute uhin-gidatik kanpora argirik erradiatzeko biderik, barreiatutako moduak ezin baitira hedatzen diren moduetara akoplatu. Beraz, uhin-gidan igorritako argia transmititu edo isladatu daiteke soilik. Faktore hauek kontuan hartuz, Mekis-ek problema hau isladapen problema baten eran planteatu zuen eta isladapen koefizientea honela estimatu zuen

$$R(\omega) = \left[1 + \left(\frac{2k_1(\omega)k_2(\omega)}{[k_1^2(\omega) - k_2^2(\omega)]\sin k_2(\omega L)}\right)^2\right]^{-1}, \tag{5.7}$$

non $k_1(\omega)$ bi uhin-gidetan hedatu daitekeen moduaren uhin bektorea da, [10] eta [01] norabideetan heda daitekeena, hain zuzen ere. $k_2(\omega)$ [11] norabidean, hau da kurbatura norabidean, hedatu daitekeen moduaren uhin bektorea da eta, L parametroak bi uhin-giden arteko kurbaduraren luzera efektiboa adierazten du. Beraz, egitura honetan, kurbadurak sortutako isladapena minimizatzeko, 5.7 ekuazioan, hautatutako maiztasunerako, 5.7 ekuazioaren zeroak aurkitzera mugatzen da problemaren ebazpena.

Berriro ere, teknika hau erabilita, dielektrikoan buruturiko zuloz osatutako PC-etan, banda-estuko ebazpenak areagotzea baino ez da posiblea eta banda z-zabaleko ebazpenak

aurkitzeko beste era batera jo beharko litzateke. Hau egiteko bide bat, uhin-gida mono-modu izatera bultzatzea litzateke. Horretarako, uhin-gidaren zabalera murriztu daiteke. Hala eta guztiz ere, uhin-gida estuak hedapen-galera handiagoak aurkezten dituzte [192] eta beraz, dolezdura zorrotzen egituren analisia dagoeneko galera nabariak dituzten uhin-gidetara mugatzea ez dirudi jokabiderik praktikoena. Problematika honen inguruan, atal honetan, kurbadura zorrotza duten W1 uhin-gidetan eta banda-zabalera handian zehar, transmisio etekin optimizatuak aurkitu daitezkeela azalduko dugu. Aurretik, beste egile batzuk argitaratu dituzten lanen artean teknika ezberdinak proposatu dira. Ezagunen artean, kurbadura gunetik gertu puntu akatsak erabiltzea proposatzen dituztenak aurkitu daitezke [194, 196, 197], zulo batzuen erradioa aldatuz transmisio etekina hobetzea lortzen dituzten aurrekariak [198], akatsen inguruko akopladore adiabatikoak sortzen dituztenak [192] edota kurbaduraren ondoko zuloak topologia exotikoekin ordezkatzen dituztenak [195, 199] azpimarratu daitezke. Aurrekari hauen estrategiak jarraitu ezean, atal honetan, ID prozesua jarraituko dugu maiztasun optikoen transmisioa hobetzeko, 60° eta 120°-ko kurbadurak dituzten egituretan.



5.12. Irudia (a) 60°-ko dolezdura duen kristal fotonikozko uhin-gida diseinatzeko erabili den PC klusterraren eskema. Optimizazioan erabili diren airezko zuloak kolorez adierazi dira. (b) Optimizatu gabeko PCWG dolezdura. (c) IHS algoritmoa erabiliz optimizatu den egitura eta (d) horren bitartez simulatutako potentzia-fluxua. (f) FSA algoritmoa erabiliz optimizatu den egitura eta (g) horren bitartez simulatutako potentzia-fluxua.

Hasteko, **??** atalean deskribatzen den 2D kristal fotonikoaren sareaz abiatuz, zulo sorta bat ezabatu da 60° kurbaduraz lotzen diren bi uhin-gida elkartzeko, 5.12 irudian azaltzen den moduko egituran. Kristalaren sarearen apurketa bortitza sortzen duen dolezdurak ispilu ia ezin hobe baten moduko efektua sortzen du, sarrerako uhin-gidako potentzia optiko



5.13. Irudia 60°-ko kurbadura duten egituren transmitantzia, IHS FSA eta optimizatu gabeko egiturentzat, hurrenez hurren. (b) Aurreko kalkuluak PC xafla plataforman kalkulatutakoak. (c) IHS eta (d) FSA algoritmoak proposatutako egiturak.

gehiena isladatu egiten da. Transmisio baxu hori ere 3.12 irudian azaltzen den 2D W1 uhin-gidaren dispertsio diagrama hausnartuz arrazoitu daiteke. Dispertsio diagraman ikusi daitekeen moduan, Γ–K norabideko, band-gap barneko moduak Γ–M norabidean ezin dira gidatu, edota zuzenean modu desagerkorrak izatera bilakatzen dira eta material dielektrikoan esponentzialki gainbeheratzen dira. Honek denak transmisio espektroan galera adierazgarriak sortzen ditu, 5.13 irudian ikusi daitekeen moduan.

Egoera hau aldiz erabat aldatzen da optimizazio algoritmoak erabiltzen direnean. IHS eta FSA algoritmoak erabilita sortutako egiturak 5.13 adierazten dira, hurrenez hurren. 5.13 irudiak egitura hauek eskaintzen duten transmitantzia espektroaren areagotzea erakusten du, uhin-gidak onartzen duen maiztasun zabalean, hau da 0.26-tik 0.28-ra. Funtsean, 5.12 irudian adierazten den dolezdura ingurunea, partzialki desordenatutako zuloz osatuta dagoena, Γ–M eta Γ–K norabideetan hedatu daitezkeen moduen arteko akoplamendu eraginkorra eskaintzen du. Printzipioz, izaera multi-modoa duen W1 uhin-gida bat erabiltzean, gutxienez modu bat akoplatzea lortu dezakeen egitura bat aurkitzea errazten du. Hala ere, 5.13 irudian aurkezten diren kongigurazioak eskaintzen duten transmitantzia diagramak forma laua dute eta hortaz, akoplazioa gidatuak diren modu guztietarako gertatzen dela baieztatu daiteke. Hau dena kontuan hartuta, 5.13 irudian agertzen diren transmisio koefizienteak W1 PCWG zuzenean kalkulatutako erreferentziazko balioetatik oso gertu daude, optimizatutako banda-zabalera



5.14. Irudia (a) 120°-ko kurbadura duen PCWG diseinatzeko erabili den klusterraren eskema. Optimizazio-prozesuan erabili diren elementuak kolorez adierazi dira. (b) Optimizatu gabeko egitura. (c) IHS algoritmoaren bidez optimizatutako egitura eta (d) egitura horretan simulatutako bataz-besteko potentzia fluxua. (e) IHS algoritmoaren bidez optimizatutako egitura eta (f) egitura horretan simulatutako bataz-besteko potentzia fluxua.

ingurune osorako. Emaitza honek, teknika heuristikoak PC topologien optimizazioan aplikatu daitekeen metodo oso moldakorra dela baieztatzen du.

Dolezduraren kurbatura handitzean, gidatutako moduen akoplamenduaren gabeziak are kritikoagoak bihurtzen dira. Hain zuzen ere, 120°-ko dolezdura zorrotzen bidez argia zuzentzea eginkizun zaila bihurtzen da eta bi uhin-giden arteko lotura bortizki eraldatzea suposatzen du. Bestalde, problematik hau garatzen duten ikerketa lan gutxi aurkitu daitezke, [200] eta [201] bezalakoak. Izan ere, lan hauetan egituretan aldaketa garrantzitsuak ezartzen dira banda-zabaleko transmisio gaitasunak hobetzeko. Horregatik, espazio-simetria osoa hautsi beharrik gabe, banda-zabalera osoan argia transmititzea ahalbidetzen duten konfigurazio berriak aurkitzea funtsezkoa da. Berriki, horrelako kurbadura duen uhin-gida bat aurkeztu zan, fotonika topologikoa erabiliz diseinatu izan dana [202]. Tesi honen azken kapituluan ere babes-topologikoa aztertzen da.

Dolezdura zorrotz hauetan argia gidatzeko, alderantzizko diseinuaren prozedura erabili dugu berriro ere, oraingo honetan 5.14.a irudian agertzen den 2D 120°-ko egituratik abiatuz. 5.14.c eta 5.14.e irudian IHS eta FSA algoritmoen bidez jasotako 2D topologia optimizatuak errepresentatzen dira, hurrenez hurren. Bihurgunerik gabeko W1 uhin-gidaren eta 120°-ko dolezdura duten egituretan kalkulatutako transmisioak antzekotasun handia aurkezten



5.15. Irudia (a) 120° -ko kurbatura osatzen duen uhin-gida baten transmitantzia espektroaren konparaketa IHS, FSA eta optimizatu gabeko PCWG egituretan. (b) PC xafla plataforman egitura hauek eskaintzen duten transmitantzia espektroa. (c) IHS eta (d) FSA algoritmoak proposatutako egituraren eskema.

dute berriro ere. Gainera, 5.15 irudian adierazitako transmisioen konparaketak, egitura optimizatuak, dolezdura zorrotzak izanik, aurkezten dituzten galerak minimoak direla baieztatzen du. $\omega = 0.273$ inguruan modu erresonante bat dagoela antzeman daiteke. Bertan, egitura ez-optimizatuak ere transmisioan maximo bat azaltzen du. Lortutako emaitzak, xafla kristal fotoniko baten ere kalkulatu dira eta transmitantziaren espektroaren hobekuntza esanguratsuak sortzen dituztela frogatu da. 5.13 eta 5.15 irudietan lortutako espektroak hiru dimentsioko FE metodoaren bidez egiaztatu dira.

Azkenik, 5.13.b eta 5.15.b irudietan, 2D eta 3D-n kalkulatutako simulazioen arteko lotura bikaina adierazten du. Hala eta guztiz ere, xafla egituraren indize efektiboa eta 2D egiturarenak bat ez datozenez, egiturek aurkezten duten band-gap tartea eta horren barruan dauden modu gidatuak maiztasun ezberdinetan aurkitzen direla arrazoitu daiteke.

5.4 *Channel-drop* motatako iragazkiak

Banda-zabalera handiko argi-komunikazioak ahalbidetzea ezinbesteko faktorea da komunikazio aplikazio berrietan. Modu berean, selektibitate hobeagoa duten iragazkiak sortzea bereziki garrantzitsua da banda-zabalera zabala duten uhin-gidetan modu aberasgarri modulazio

teknika berriak eskaintzen dituzten onuren abantailak erabiltzeko. Beste alde batetik, *channel-drop* motatako iragazkiak behar-beharrezko elementuak dira uhin-luzerako demultiplexazio-sistemetako (DWDM) demultiplexazio trinkoen gaitasunak ustiatzeko [203, 204]. Kristal fotonikoak, horrelako egiturak sortzeko material hobezinak dira, alde batetik, PBG fenomenoak uhin luzera sorta asko bereizteko erabili daitezke eta beste alde batetik, sare periodikoaren eraldaketa minimoak Q-faktore altuko modu lokalizatuak sortzeko gaitasuna azaltzen dute. Modu lokalizatu horiek, uhin-gida batetik jasotako eremuak beste uhin-gida baten alokatzeko erabili daitezke. Horretarako, uhin-luzeraren arabera argiaren ibilbidea kontrolatu ditzaketen PC egiturak egin ditugu, hau da, elektronikan interkonexio elektronikoek egiten duten eginkizunaren analogia optikoa lortzen duten egiturak direnak. Orain arte, superprisma efektua erabiliz horrelako dispositiboak egitea posiblea dela frogatu duten ikerketa lanak argitaratu dira [205, 206], eta baita erresonantziak erabiliz antzeko emaitzak sortu dituztenak aurkitu daitezke, [207, 208] esaterako. Superprisma efektua erabiltzen dituztenak sare zabalak behar izaten dituzte eta beraz, (PIC) baten trinkotasun baldintzaren aurkako joera azaltzen dute. Erresonantziak erabiliz ordea, integrazio trinkotasun handia sortzen da, baina banda-estuko erabilpenetara mugatuta daude.

5.4.1 Oinarrizko *Channel-drop* iragazki baten diseinua

[203]-en, Ren-ek eta bere lankideek hiru portuz osatutako *add-drop* bat proposatu zuten, kristal fotoniko baten parametro gutxi batzuk aldatuz lortutakoa. 5.16.a irudian, Ren et al.-ek proposatutako jatorrizko geometria irudikatzen da. Egitura hori, 3.4 errefrakzio indizeko, eta $0.2a$ erradioa duten zutabe errenkada bat ezabatuta duen W1 PCWG batez eta perpendikularki kokatutako beste uhin-gida batez osatzen da. Honen bidez, uhin-gida horizontaletik igorritako uhin EM-ak modu ezabakorren bidez akoplatzen dira irteerako uhin-gidarantz. Modu ezabakor horiek, egituraren barrunbearen maiztasun erresonantearen bidez akoplatzen dira. Egitura horretan, *time coupled mode theory* metodoa aplikatu zuten, kristal fotonikoaren barrunbea osatzen duen zutabearen eta uhin-gida bakoitzetik gertu dauden zutabeen erradioa kalkulatzeko.

5.16.b irudian Ren et al.-ek proposatutako geometrian, maiztasun erresonantean kalkulatutako denboraren batez-besteko potentzia fluxua aurkezten da. Bertan $R_1 = 0.042a$ eta $R_2 = 0.211a$ parametroak erabili dira. Ren-ek egindako analisi teorikoa, 5.18.a irudian erakusten dan uhin-gida transbertsalaren transmitantzia espektroarekin baieztatu daiteke. Espektro horretan, transmitantziaren jausi bortitza modu erresonantearen akoplazioaren eraginari dagokio. Ren-ek iradoki zuenaren arabera, aire akatsaren eta bi uhin-giden ingurunean sortzen diren barrunbeen kalitate faktoreak orekatuz, uhin-giden moduen akoplazioa optimizatu daiteke. Konfigurazio sinple horretan bi parametro baino ez dira kontuan hartzen. Hau



5.16. Irudia (a) Bi huin-gida transbertsalez eta R_1 eta R_2 erradioen aldaketaz sortutako *add-drop* filtroaren irudi eskematikoa. Denboran bataz-besteko potentzia fluxua, $a/\lambda = 0.37$ erresonantzia maiztasunean (b) Ren et al.-ek proposatutako konfigurazioan, non $R_1 = 0.042a$ eta $R_2 = 0.211a$ eta (c) IHS algoritmoak sortutako konfigurazio batentzat, non $R_1 = 0.388a$ eta $R_2 = 0.276a$.

horrela izanik, ebazpen-espazio osoa arakatu daiteke. 5.17 irudian, 10.000 ebazpenen fitness balioen bidez osatutako mapa ikusi daiteke. Kalitate faktore altuak dituzten PC barrunbeen modu erresonanteak ebazteko, zehaztasun handia behar da eta beraz, simulazio denborak nabarmenki gora egiten du, nahiz eta horretarako metodo azkarrak erabili diren [184]. Ondorioz, 5.17 irudian jasotako informazioa eskuratzeko ia 250 ordu behar izan ziran. Hala ere, ID metodoa erabiltzean prozesua azkartu egiten da, hau da, IHS, nahiz FSA-z gidatutako ID prozesu bakar batek, 17 minutu baino gutxiagotan konbergitzen du ebazpen egokira.

5.18 irudiak ID metodoak proposatutako ebazpen batzuk aurkezten ditu. Emaitza hauek, Ren et al.-ek proposatutako ebazpenetik oso gertu daude eta batzuk Ren-en emaitzak baino akoplazio hobeagoa lortzera ailegatu dira.

Fan et al.-ek Wang-ek planteatutako prozesua jarraitu zuten eta hiru kanaletako filtro batetik lau kanaletako filtro simetriko batera zabaldu zuten haien aurrekarien lana[207]. Fan et al.-ek erabilitako akopladore sistemaren diagrama 5.19 irudian ikusi daiteke. Bertan, aluminiozko zutabez osatutako kristal fotoniko sare baten *A* uhin-gidatik hedatu daitekeen modu bat (ikusi Fig. 5.19.a diagrama), era konstruktibo batean eragin dezake *D* uhin-gidan, gainerako uhin-gidetan modu ezabakor batean eragiten duen bitartean. Nabarmenki, Fan et al.-ek proposatutako sistema Ren et al.-en erakutsitakoaren antza handia dauka, baina, kasu horretan, Fan-ek zutabeen erradioa ez ezik (R_1 elementuak 5.19.a irudian), 5.19.a irudian koloreztatutako elementuen errefrakzio indizea ere aldatzea proposatzen du.

Guztira, eredu horrek hiru askatasun gradu ditu, eta hortaz, sistema horren ebazpenak Ren-en egiturak baino konplexutasun handiagoa inplikatzen du. Hori dela eta, bilaketa-espazioen araketa sakona egiteak gehiegizko kalkulu kopurua egitea inplikatzen du. Hala ere, ID metodoaren eraginkortasuna frogatzeko esparru honek praktikotasun handia du. 5.20



5.17. Irudia Kostu funtzioaren balioaren adierazpena kalkulatutako bilaketa-espazioko puntu bakoitzarekiko. Horretarako, bilaketa-espazioa 10.000 puntuetan diskretizatu da. Zirkulu batez eta diamante itxurako puntuekin adierazitako ebazpenak, ID metodoa IHS eta FSA algoritmoekin erabiliz lortutako ebazpenak adierazten dituzte, hurrenez hurren.

irudian Fan et al.-ek proposatutako topologiaren eta ID metodoaren bitartez lortutakoen transmitantzia kalkuluen emaitzak aurkezten dira. Oinarrizko topologian ID metodoak eskainitako parametroak ezartzen direnean, filtroaren operaketa maiztasunaren inguruan patroi interesgarri bat aurkezten du, hots, C eta B kanaletara zuzentzen den argia era ezabakorrean interferitzen du eta D kanalean berriz, era konstruktiboan jokatzen du, argi transferentzia osoa lortuz.

Bereziki, Fan et al.-ek proposatutako ebazpena sare karratu baten antolatutako 11.56-ko konstante dielektrikoko zutabetan garatzen da. Bertan, R_1=0.05a, n_1=6.6 and n_2=9.5 ebazpena proposatzen da. Bitartean, ID algoritmoak R_1=0.0727, n_1=2.32 and n_2=10.69 parametroak proposatzen ditu. Laburbilduz, Fan-ek proposatutako kabitate erresonantzia sistema erabilita, argi transferentzia eraginkorra lortzen duten egiturak lortu dira. Metodo analitikoen bidez ebatzi daitezkeen eredu hauek, ID metodoaren bitartez modu erraz eta bizkor baten ebatzi daitezke. Gainera, kasu honetan, gure ebazpenak Fan-ek [207]-en proposatutako emaitzak baino zertxobait hobeagoak dira. Emaitza hauen arabera, ID metodoak, IHS nahiz FSA metodoak erabiliz, PC klusterren diseinurako erabilgarria dela ondorioztatu daiteke.



5.18. Irudia Ezkerretik eskumara: kanal bakoitzaren transmitantzia espektroa Ren et al.-ek proposatutako egiturarentzat, IHS metodoaren bidez lortutako egiturarentzat, FSA algoritmoaren bidez lortutako ebazpenarentzat eta IHS metodoak proposatutako beste egitura osagarri batentzat.



5.19. Irudia (a) Fan et al.-ek bi uhin-gida paralelo erabilita argia filtratzeko proposatu zuten egitura [207]. (b) Denboraren bataz-besteko potentzia-fluxua Fan et al.-ek proposatutako egiturarentzat eta (c) ID algoritmoak proposatutakoarentzat, a/λ=0.373 maiz-tasun normalizatuaren inguruan.

Gainera, hurrengo atalean, metodo hauen erabilgarritasuna askatasun gradu asko dituzten konfigurazio konplexuen kasuaetan areagotzen dela erakusten da.



5.20. Irudia Fan et al.-ek proposatutako egituran kalkulatutako *B*,*C*, *D* portuen transmitantzia (zuzen jarraiak) eta IHS-ren bidez lortutako egituraren emaitzak (zuzen etenak).

5.5 PCWG taperren alderantzizko diseinua

Bi uhin-gida optikoen arteko akoplamendu eraginkorra eskuratzea funtsezko zeregin bat da zirkuitu optiko integratu konplexuen garapenerako. Horrez gain, PCWG-etan hedatzen diren emphslow-light moduen akoplaketa sustatzeak ere garrantzi handiko helburua da [209], argi-materiaren interakzioa *slow-light* erregimenean areagotzen bait da [210–212] eta, beraz, *optical delay lines* konpaktuagoak eta aldakorrak sortzeko erabili daitezke [192, 213]. Hala eta guztiz ere, *slow-light* erregimenean, PCGW-en arteko akoplazioak atzera-isladapen bortitza sortzen du [209, 214]. Hain zuzen ere, PCWG konfigurazio ezberdinetan egindako uhin-gidak aurkezten duten talde-indize diferentzia handiak sortzen du efektu hori eta, askoz nabariagoa da abiadura oso baxuko moduak hedatzen direnean [215].

Berriki, sekzio ezberdinak dituzten PC uhin-giden arteko akoplazio eragingarria lortzeko teknika eta egitura ugari proposatu dira. Zenbait kasutan, [216]-en bezala, ohiko siliziozko uhin-giden arteko akoplamendua obetzeko, uhin-giden moduen moldaketa bultzatzen da (hurrengo kapituluan siliziozko uhin-gida trinkoei buruzko informazio gehiago ematen da) PCWG-etan modu eraginkor batean argia txertatzea ere interes handiko gai bat da eta dagoeneko ikerketa lan batzuetan landu da, bai teorikoki [215], bai esperimentalki, [214]-ean esaterako. Bereziki, [214]-en, Vlasov et al.-ek *strip* motatako uhin-gida batetik PCWG batera argia akoplatzeko elementu batzuk moldatuz lortu daitekeela frogatzen dute. Gainera,

prozedura horrek abiadura oso baxuko argi moduen kasuan ere aplikatu daitezkeela frogatzen dute. Aldiz, bi uhin-giden arteko trantsizioa errazten duten egitura adiabatikoetan oinarritutako ebazpenak arreta gehiago jaso dute. Gailu horien funtzionamenduaren printzipioa zulo/zutabeen diametroa pixkanaka doitzean datza. Moldaketa horiek, indize-efektiboaren gradiente leuna simulatzen dute eta ondorioz, horrelako egiturak erabiliz, bi uhin-giden arteko indizeen ezberdintasunak sortutako islapenak minimizatu daitezke. Printzipioz, moduen moldaketa gradualak uhin-gida klasikoen eta PCWG-en arteko akoplazioa egitea bideratzen du [192, 217] eta baita zabalera ezberdina duten PCWG-ak bateratzea ahalbidetzen du, argi modua uhin-gida horietan ondo konfinatuta egon ezkero [218]. Gainera, metodo horrek emaitza ikusgarriak lortzen ditu abiadura ertaineko argiarekin, baina, abiadura-baxuko argia hedatzerakoan, uhin-gida ezberdinen inpedantzia diferentziak nabarmenagoak egiten dira eta sortu beharrezko taper-aren luzera handitu egin behar da akoplamenduko galerak murrizteko [219, 220]. Beste alde batetik, kristal fotonikoen egituretan diseinu adiabatikoak sortzea fabrikazio metodo oso zehatzak eskatzen ditu, egitura adiabatikoak akats estrukturalen aurrean erantzun guztiz ezberdin bat aurkezten bait dute. Beste motatako taper egiturak diseinatzeko, algoritmo genetikoak ere erabil izan dira, algoritmoaren bitartez egituraren zilindro batzuen kokapena aldatuz [221, 222]. Aurretik egindako ikerketek soluzio hurbilak aurkitzean ardazten dira (sarritan intuizioan oinarritutakoak izan direnak) edo, kasu askoz sinpleagoetarako, konponbide erdi-analitikoak aurkezten dituzte, baina azken horiek elementu ugariz osatutako kristal fotoniko xafla batean sortutako uhin-gidetan aplikatzea oso zaila izaten da. Hala ere, [209]-en, Oskooi et al.-ek adierazten dutenez, askatasun gradu asko dituzten kasuetan, horrela lortzen diren topologiak fabrikazio-akatsen menpekotasun handia dute. Hori dela eta, taper egiturak diseinatzeko orduan parametro gutxi batzuk baino ez dira kontuan hartzen. Baldintza eta limitazio horiek kontuan hartuz, [209]-en, kasu-txarrenaren optimizazio metodoa proposatzen da. Metodologia hori fidagarria eta egonkorra dela dirudien arren, kapitulu honetan azaltzen diren bezalako sistema konplexuagoetara estrapolatzea oso zaila izaten da.

5.5.1 Akopladore sinple baten eredua

Kasu horretan, 5.21 irudian aurkezten den *toy-model* problema planteatzen da. Bertan, zabalera apur bat ezberdinak dituzten bi uhin-giden arteko moduen akoplamendua aztertuko da. Kristal fotonikoko egitura horrek lerro akats bat du Γ - M norabidean. Horrela, $\sqrt{3}a$-ko zabalera duen uhin-gida bat sortzen da, normalean W1 izenez ezagutzen dena. Notazio horren arabera, hurrengo zulo errenkada ere ezabatzen denean, uhin-gida zabalagoa sortzen da, W3 bezala izendatzen dena. Bertan, modu gehiago hedatzeko aukera agertzen da, baina orokorrean, modu berri horiek ezin dira zuzenean W1 uhin-gidara akoplatu. Horrela, bi uhin-

giden arteko ezberdintasunak sortutako argi isladapena ekiditzeko eta transmisioa hobetzeko, ezaugarri horiek betearazten dituen egitura lotura batez hornitu behar da sistema.



5.21. Irudia (a) 3.5-eko errefrakzio indizea duen material baten $0.295a$ erradioko zuloz egindako sare triangeluarrean zulo errenkada bat estali da, W1 uhin-gida bat sortzeko. Sare berean 3 errenkada estaliz W3 uhin-gida bat sortu da ere. Irudian, uhin-gida horien banda-diagrama erakusten da. W1 egituran, modu gidatu batzuk agertzen dira (koloreztatutako marra jarraiekin adierazita), baina W5 uhin-gidan modu-gidatu gehiago hedatzen dira gand-gap bitartean (koloreztatutako marra etenez adierazita). (b) Optimizatu gabeko W3-W1 egituraren, ID prozesuak proposatutako egituraren eta Talneau et al.-ek proposatutako egituren transmitantzia espektroa. (c) R_1 eta R_2 erradioen menpe dagoen oinarrizko taper egitura. (d) ID metodoak proposatutako konfigurazioaren potentzia fluxuaren simulazioa.

[223]-en Talneau et al.-ek izaera adiabatiko duten *taper* egiturafk proposatzen dira, W3-ko sekzioa duten uhin-gidetatik, estuagoak diren w1 uhin-gidetara argia akoplatzeko. Talneau et al.-ek proposatutako eredua, gero eta diametro txikiagoko zuloak dituen egitura batean oinarritzen da. Horren bidez, material artifizial baten mailakako indize efektibo baten efektua sortzen da. Talneau et al.-ek proposatutako egiturarik sinpleena 5.21.c irudian ikus daiteke. Egitura hori 3.5-eko errefrakzio indizea duen GaInAsP materialean egindako zulo sare baten sortutakoa. W1-eko gidatik W3-ko uhin-gidara dagoen trantsizioa diametro txikiagoa duten bi zuloen bidez lortu da, R_1 eta R_2 bezala izendatu direnak, hurrenez hurren. Talneau et al.-ek uhin-gidaren egitura optimizatu zuten, atzera-isladatzen diren argi eremuak ekiditzeko. Eredu hori *toy-model* eredu gisa aukeratu dugu, simetria bikoitza duen diseinu sinplea delako eta beraz, simetria horrek problema are gehiago sinplifikatzea ahalbidetzen duelako. ID metodoaren kalkuluak egin baino lehen, uhin-gida bakoitzan hedatu daitezkeen moduak



5.22. Irudia Kostu funtzioaren balioa kalkulatutako bilaketa-espazioko puntu bakoitzarekiko. Horretarako, bilaketa-espazioa 10.000 puntuetan diskretizatu da. Zirkulu batez eta diamante itxurako puntuekin adierazitako ebazpenak, ID metodoa IHS eta FSA algoritmoarekin erabiliz lortutako ebazpenak dira, hurrenez hurren.

aztertu dira. 5.21 irudian W1 eta W3 uhin-giden dispertsio diagramak aurkezten dira, lerro jarraiak eta etenak erabiliz, hurrenez hurren. PCWG bi horien akoplamendu eragingarria sortzeko, bi uhin-gida horietan hedatu daitezkeen moduak moldatu egin behar dira, lehenengo uhin-gidan aurkitu daitekeen moduaren forma, bigarren uhin-gidan aurkitzen denarekin bat egin dezan. Nabarmenki, a/λ =0.215 puntuaren inguruan W1 eta W3 gidetako moduak bat egiten dute, maiztasunean eta forman. Hala eta guztiz ere, egoera hori maiztasun gutxi batzuetarako baino ez da ematen eta beraz, 5.21.b irudiko diagraman ikusi daitekeenez, transmitantzia azkar galtzen da puntu horren inguruan.

Kasu horretan, R_1 eta R_2 aldagaien balio optimoa aurkitzeko, bilaketa-espazioaren arakaketa zorrotza egitea posiblea da, *brute-force* eran eta horretarako 10.000 ebazpen kalkulatu dira. Kalkulu horien bidez, optimo globala $R_1 = 0.1531$ eta $R_2 = 0.118$ balioak ezartzerakoan dagoela aurkitu da. Berriro ere, IHS eta FSA algoritmoak bilaketa-espazioaren optimoan kokatutako aldagaien balioak aurkitzen dituzte, baina, kasu honetan, ebazpen horiek ez datoz bat Talneau et al.-ek proposatutako ereduarekin. Hain zuzen ere, 5.21.b irudian ikusi daitekeenez, Talneau et al.-ek proposatutako konfigurazio adiabatikoa erabiliz, non $R_1 = 0.1$ eta $R_2 = 0.2$ diren, transmitantziaren eraginkortasunak ID metodoaren bidez

aurkitutako ebazpenak sortutako transmitantziaren adinako hobekuntza sortzen du. Hala ere, lan honetan erabilitako optimizazio metodoetarako, konponbide adiabatikoak dakarren ebazpena oraindik ere maximo lokal batean kokatzen da. Behar izanez gero, ID metodoaren optimizazioak puntu horretatik ihes egiten du eta optimizazio globala aurkitzen du iterazio gutxi batzuetan. 5.22 irudiak IHS metodoa erabiliz arakatutako 60 Monte Carlo fitness frogapen eta FSA metodoa erabiliz kalkulatutako beste 60 Monte Carlo erakusten du. Erabilitako bi metodoen bidez, w1 uhin-gidako akoplazioa maximizatzea lortzen duten optimo globalen egiturak aurkitzea lortu da.

5.5.2 W5 eta W1 kristal fotoniko uhin-giden arteko akopladore eraginkorra

Normalean, siliziozko fotonika arloan, ohikoa da SOI uhin-gidak erabiltzea osagarri trinkoen arteko argiaren gidaketa egiteko. Uhin-gida horien bideragarritasuna osagarri trinkoetan luzaro frogatu bait da. Beraz, kristal fotoniko baten sarean egindako uhin-gida bat (PIC) batean erabiltzean, SOI uhin-gida horietara konektatu behar izango da, baina SOI uhin-giden sekzioak W3 PCWG baino zabalera askoz handiagoa du. Bestela ere, SOI uhin-gidak W5-eko zabalera duten gidekin konektatu daitezke, kasu horretan, antzeko zabalera dutenez akoplazio kalterik larrienak ekidin daitezke. Geroago, W5-eko uhin-gidetatik W1 uhin-gidetara akoplatu daitezke taper gailu bat erabiliz. Halaber, zabalera hain desberdina duten uhin-giden arteko akoplazioa lortzea, aurreko *toy-model* ereduan egindako hausnarketa baino prozesu konplexuagoa da eta parametro gutxi batzuk aldatzeak ez du eraginik izango atzera-isladapenaren arazoan. 5.23.b. irudian akopladore berria garatzeko erabili den hasierako konfigurazioa aurkezten da. Berriro ere, ohiko kristal fotoniko sare triangeluar bat erabili da, $0.35a$ erradioko zuloz osaturikoa, non a sarearen maiztasuna da. Zulo horiek 3.46 indizea duen Si materialean antolatzen dira. Bertan, W5 uhin-gida bat W1 uhin-gidarekin elkartzen da. Ingurune bi horien arteko akoplazioa hobetzeko, ID algoritmoari 5.23.a irudian koloreztutako zuloen kokapena eta erradioa aldatzea utzi zaio. Bi uhin-gidak $[0.26-0.28]$ maiztasunen arteko moduak onartzen dituzte eta banda-zabalera horretan ID metodo aplikatzen dugu, maiztasun tarte horretan transmisio laua azaltzen dituzten egiturak aurkitzeko. Guk dakigula, hemen proposatu den egitura litzateke hainbesteko banda-zabala eskaintzen duen lehenengoa. 5.23.a irudian aurkezten den kluster-ak simetria-plano bat dauka eta beraz, geometria erdia simulatzea nahikoa da sistema hori ebazteko. Simetria hori simulatzeko, *perfect electric* muga baldintzak (PEC) ezarri dira plano simetrikoaren mugan eta *perfectly matched layers* baldintzak erabili dira beste muga guztietan, klusterraren izaera mugatuak sortutako islapen ez-fisikoak saihesteko. Simulatutako eredu hau ezkerreko



5.23. Irudia (a) Taper egituraren akoplazio eskualdearen irudi eskematikoa bere simetria ardatzetik zatituta. Optimizazioan erabilitako zuloak kolorez adierazi dira eta irudi honen xehetasunean sarearen unitate-zelda bat ikusi daiteke. (b) Optimizatu gabeko *horn* taper baten egitura. Taper honek argi gehiena atzera-isladatzen du W5 uhin-gidarantz. (c) IHS algoritmoaren bidez optimizatutako egiturak ia %100-eko akoplazio etekina lortzen du (d) a/λ =0.265 maiztasun normalizatuan. (e) FSA algoritmoaren bidez optimizatutako egitura. (f) Denboran bataz-besteko potentziaren fluxua (e) konfigurazioa erabiliz.

simulazio mugatik sustatutako uhin plano monokromatiko batekin argitu da. Gero, IHS eta FSA metodoak erabilita, alderantzizko diseinua erabili da. Optimizatutako diseuniak 5.23.c-. 5.23.e irudietan ikusi daitezke.

5.24.irudiak 5.23.c- 5.23.e-etako topologiak erabiliz lortutako transmitantzia espektroak aurkezten ditu, 5.23.b irudian ikusi daitekeen optimizatu gabeko W5-W1 taper egituraren taperraren espektroarekin batera. Alde batetik, akoplamendu etapa barik lotutako eta zabalera ezberdineko uhin-gidak erabiltzean, islapen bortitzak agertzen dira eta transmisioaren inten-



5.24. Irudia (a) Optimizatu gabeko (beltza), IHS (urdina) eta FSA (gorria) algoritmoen bidez optimizatutako akopladore egituren anplitude eta transmitantzia espektroen konparaketa, Si (n=3.46) materialean egindako $0.35a$ erradioko zuloz osatutako 2D kristal fotonikoan diseinatutakoak. Barneko irudiak IHS metodoak proposatutako 3D PC xafla egitura aurkezten du. (b) Xafla egituretan kalkulatutako transmitantzien konparaketa. Barneko irudiak, FSA metodoak proposatutako egitura 3D PC xafla konfigurazioan aurkezten du.

tsitatean galera handiak azaltzen dira. Beste alde batetik, argiaren akoplamendua nabarmenki hobetzen da taper egiturak erabiltzen direnean. Gainera, transmisio espektroak, gure erreferentzia dan W1 uhin-gidaren simulazioak eskaintzen duen transmisio emaitzetatik oso gertu dagoen emaitza aurkezten du. W1 PCWG-aren transmitantziari dagokionez, kalkulatutako transmitantziaren maximoak 0.9 balioaren azpitik daude. Izan ere, egoera hori absortzio mugak sortzen dute 2.kapituluan deskribatutako PML muga baldintzek.

Taper egiturrik gabeko sistemak, transmisioan konfiguratutako gailuetan erabiltzeko adinak izan daitezke. Aitzitik, islapenan operatzen duten gailuetan, islapen txikiek Gires-Tournois bezalako interferentziak sortu ditzake eta beraz, sistema eragileetan kalteak sortu ditzake. Kasu horietan, orain arte proposatutako taper egiturak arbuiagarria diren islapenak aurkezten dituzte. Horrez gain, bi kasuetan, taper egitura kristal fotonikoaren zirkuituan integratzen da eta, beraz, egitura osoaren fabrikazioak ez du beste teknika konplexurik behar

osagarri hori fabrikatzeko. Gainera, proposatutako diseinuak PCWG-etan erabilitako objektu geometrikoak erabiltzen ditu, hau da, ez du inolako geometria exotikorik erabiltzen. Azkenik, taper sekzioaren luzerak ez du osagarria gehiegi luzatzen, 8 periodoz ez besterik osatuta bait dago. Orain arte aurkeztu diren taperrak izaera adiabatikoa duten egitura luzez osatzen dira, zabalera tarte gutxiagoko bi uhin-gidak lotzeko (gehien bat W3-W1 bitarteko akoplazioa lortzeko taperretan oinarritutakoa), [192]-en bezala. Gainera, optimizatutako taper egituren 3D-ko simulazioak egin dira, $0.6a$-ko lodiera duen kristal fotoniko xafla bat erabiliz. Egitura hauek sortutako transmitantzia diagramak 5.24.b irudian ikusi daitezke. Emaitza horietatik, 2D PCWG-etan kalkulatutako egiturak 3D xafla plataforman ere ezaugarri berak mantentzen dituztela ondorioztatu daiteke. Gainera, xafla egituraren lodiera handitzen denean, gidatutako bandak maiztasun baxuagoetan aurkitzen dira eta taper-aren eraginkortasunak gora egiten du, 5.24.a irudian aurkezten den transmitantzia balioetara hurbilduz.

5.6 Ondorioak

